

WILLIAM SHAKESPEARE

Uda gau bateko ametsa

William Shakespearek ingelesez idatzia
eta Bingen Ametzagak euskaratua

Xabier Irujo Ametzagak eta Elizabete Manterola
Agirrezabalagak prestatutako edizioa



euskal itzultzaile, zuzentzaile eta
interpreteen elkarte

Jatorrizko izenburua:
A Midsummer-Night's Dream

Argitalpen hau DSS2016EU erakundearen eta EIZIE elkartearen arteko lankidetzaz egin da, eta Getxoko Udalaren laguntza jaso du.

Diseinua: J.L. Agote

Itzulpena: Bingen Ametzaga

© Hitzaurreak: Xabier Irujo Ametzaga eta Elizabete Manterola Agirrezabalaga

© Edizioa: Elizabete Manterola Agirrezabalaga

© Argitalpen honena: EIZIE
Zemoria 25
20013 Donostia

ISBN: 978-84-614-606-9105-1

Legezko gordailua: SS-703-2015

Inprimatzaile: Itxaropena SA – Araba kalea, 45 – 20800 Zarautz

BINGEN AMETZAGA ARESTI (1901-1969)

XABIER IRUJO AMETZAGA

1901ean Algortan jaioa, euskal kultur munduan gizon eza-guna izan genuen Bingen Ametzaga. Euskara jakin arren, ez zen 17 urte bete arte amarekin euskaraz mintzatu. Izan ere, 17 urte betetzean amari esan zion aurrerantzean euskaraz eta euskara hutsean egingo zuela harekin, eta bizkaiera baliatzen jarraitu zuen bere Algortako hurbi-leko adiskide eta familiako kideekin zituen harremanetan. Euskarari eta euskal kulturari eskaini zion ahalegin eta lan ugari bizitza guztian zehar. Getxon bake epaile aritu ondoren (1931-32), Eusko Jaurlaritzan Lehen Hezkuntza zuzendari izendatu zuten 1933an, eta Justizia Saileko idazkari izan zen gero (1936-1938). Gerra piztu zenean, erbestera alde egin behar izan zuen: Iparraldera lehenengo 1936an, eta Parisera 1938an; Erresuma Batura igaro zen gero, atzerriko euskal haurren koloniak ikuskatzera, eta Hego Ameriketara jo zuen handik, Montevideora lehenengo (1942-1955) eta Caracaserako gero, 1969an hil zen arte. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari aritu zen Uruguain (1943-1955) eta euskara eta euskal kultura katedrako irakasle izan zen Errepublikako Unibertsitatean (1944-1955). Gerora, Venezuelako Boulton Fundazioan ikerlari izan zen. Euskaltzain urgazle ere izendatu zuen

Euskaltzaindiak 1957an, euskararen alde eginiko lanagatik, itzulpen jardueragatik, batik bat.

Euskal kulturaren sustatzaile sutsua izan zen, eta lan ugari egin zuen. Literatur arloan, 1925-1934 artean saritua izan zen hainbat literatur lehiaketatan, eta gerora idatziriko lanen artean *El hombre vasco* lana aipatu beharko genuke. Olerkari gisa, berriz, *Itsaso aurrean* (2006) bilduman irakur litezke euskaraz idatzi zituen lanak. Erbestetik, harreman handia izan zuen garaiko beste hainbat euskal idazle eta intelektualekin, hala nola Jokin Zaitegi, Orixe, Andima Ibiñagabeitia eta besterekin. Lan oparoa eskaini zuen garaiko aldizkarietan (*Euzko-Gogoa*, *Euzko Deia*, *Egan...*).

Hizkuntza ugari menderatzen zituen Ametzagak (greziera, latina, frantsesa, ingelesa, alemana, gaztelania eta euskara) eta itzultzaile agorrezina izan genuen. Euskarako itzulpena landu zuen batik bat, baina egin zuen gaztelanarako itzulpenik ere (ingelesetik zein euskaratik).

Genozidio kulturala

1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondoren, tropa frankistek Bilbo hartu zuten 1937ko ekainaren 19an. Diktadura bortitz baten ezarpenak jarraitu zion gerrari Hegoaldeko lau lurraldeetan: oinarrizko giza eskubideen urraketa, epaiketarik gabeko zigorren inposaketa, jazarpenak, konfiskazioak, kontzentrazio-esparruak eta lan batailoiak, erbestea, exekuzioak eta hilketak gertatu ziren. Zifrek oraindik ezezagunak izaten jarraitzen badute ere, oro har, 1936 eta 1937 bitartean erregimenaren eskuetan milaka pertsona hil zirela estimatzen da. Gudaren eraginez hil ziren milaka lagunak gehitu behar zaizkie horiei, baita

matxinatuen hegazkineriak balio estrategikorik gabeko hiri eta herrien kontra (Otxandio, Elorrio, Durango, Gernika...) gauzatutako izu-bonbardaketa kanpainaren eraginez bitzta galdu zuten milaka zibil ere. Eusko Jaur-laritzaren datuei jarraiki, 1937ko apirilean soilik matxinatuen hegazkineriak 2.445 hildako eragin zituen, zibilak nagusiki. 150.000 herritarrek baino gehiagok erbesteko bidea hartu behar izan zuen eta, Gernikako bonbardaketa-
ren ostean, 1937ko apirila eta abuztua bitartean, gerraren kaltetik babesteko, 32.000 haur eraman zituen Eusko Jaur-laritzak Europako beste zenbait herrialdetara.

Errepresio bortitza jarraitu zitzaion gerrari. Atxiloketa eta sententzia arbitrarioa, tortura, neurritz gaineko isunak, konfiskazioak zein heriotza zigorra jasan zuten milaka espetxeratuk. Goseak eta hotzak mota guztietako eritasunak zabaldu zituzten espetxeratuaren artean, eta ehunka lagun arrastorik utzi gabe desagertu ziren. Gatibu-lanak eta esplotazioa zein bortxaketak eguneroko gertakari bihurtu ziren hamar urte luzez. Erregimen berriak purgei eta oposizio politikoaren garbiketari ekin zien Hegoaldeko herrialde guztietan; adibide gisa, Aritz Ipiñak erakutsi duen datuari jarraiki, Bizkaian soilik diputazioko langileriaren %52,63 purgatu zuen erregimenak eta beste %13 zigortu¹. Etxerik gabe, lanik gabe eta erregimenak ezarritako isunak ezin ordainduz, erbesteratuen arrastoari eutsiz Ameriketarako bidea hartu behar izan zuten hainbat herritarrek.

Politikoki, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki Hegoaldea erraustu zuen espainiar estatu berriak.

1. Ipiña, Aritz, *La depuración de funcionarios y empleados públicos provinciales y municipales en Bizkaia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista (1936-1976)*, argitaratu gabeko doktore tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2015.

Egoera ez zen hobe Iparraldean. 1940ko maiatzean, Alemaniako tropek eskualdea okupatu zuten, eta errepresioak jarraitu zion okupazio militarri. Espainiar eta alemaniar polizia zerbitzuek sinatu zuten itunari jarraiki, Gestapok Iparraldean edota okupatutako beste herrialdeetan harrapatutako disidente politikoak zein espainiar erregimenaren aurkariak kontzentrazio esparruetara bidali zituen. Horiakin batera, milaka euskal juduk bizia galdu zuten Auschwitz-Birkenau, Mauthausen, Buchenwald edota Guseneko kontzentrazio esparruetan. Gestaporen edota Vichyko erregimenaren agenteekin batera, polizia espainiarrak hainbat euskal lagun harrapatu zituen Iparraldean 1938 eta 1944 urteen artean, eta Francoren espetxeetara bidali zituzten horietako asko. Beste batzuk fusilatu egin zituzten, hala nola Julian Zugazagoitia edo Kataluniako Generalitateko presidentea bera, Lluís Companys. Erbestera bidea hartzea behartu zituen beste asko okupazioak. 1936tik hasita, hori izan zen euskal herritarrek jasan zuten hirugarren erbestea, nazismoak eraginiko deserriratzea.

Errepresio fisikoaren eskutik, genozidio kulturalari eutsi zion espainiar gobernu nazional-katolikoak. Erregimen frankistaren lehen neurriak sinpleak eta sendoak ditugu: gidari, lelo eta sistema bakar baten pean, hizkuntza ofizial bakarra –gaztelania– izango zuen estatu berriak. Ondorioz, isuna, espetxeratzea, tortura eta, Aitzolen edota Lauaxetaren kasuetan bezala, heriotza zigorra jasoko zuten euskaraz egiten zutenek. Administrazioetik, Hezkuntza sistematik, Justizia Administrazio sistematik eta kaleetatik ere baztertua izan zen euskal hizkuntza. Euskal hiztunek euskaraz hitz egiteko eskubidea galdu zuten, bai eta gaztelania erabiltzeko agindua jasan ere. Espainiako gobernu-

ren legediak inposaturik eta kode penalaren arabera edota hautamenez zigorturik, mota eta tankera guztietako debekuak eta zigorrak ezarri ziren euskal hiztunengan berrogei urtez. Raphael Lemkin-ek adierazi zuen bezala, herrialde jakin batean eskoletan bertako biztanleriaren jatorrizko hizkuntza erabiltzea legez edo aginduz eragozteia edo jatorrizko hizkuntzan liburuak, egunkariak, aldizkariak edota beste edozein motatako idazkiak inprima daitezen debekatzea eta, era berean, boterean dagoen giza taldearen hizkuntza erabiltzeko agindua indarrean jartzea genozidio kulturala da².

Egoera politiko-legalak isla nabarmena izan zuen bai euskal hizkuntzan, baita euskal gizartearen egoera sozio-linguistikoan zein kulturean ere. Espainiako legediak eta diktaduraren errepresioak euskal hizkuntzarengan izandako eraginaren adibide gisa aipa dezakegu euskal liburuen argitalpena: Joan Mari Torrealdaik erakutsitako datuen arabera, 1916 eta 1935 bitartean, 593 liburu argitaratu baziren euskaraz (batez beste 31,2 liburu urtean), euskal liburuen argitalpen tasa urteko 10 liburu baino gutxiagora jaitsi zen 1936-1945 urtealdian. Eta argitara eman ziren horien arteko gehienak Ipar Euskal Herriko askapenaren ondoren argitaratu ziren, 1945etik aurrera, edota Ameriketan.

Etxean debekatuta, erbestean bilatu behar izan zuten euskal hiztunek euskararentzako babeslekua. Garai hartako euskal literaturako aitzindari nabarmenenek erbestera jo zuten. Orixek, Jokin Zaitetik edo Telesforo Monzonek bezala, beste egile askok Ameriketara idatzi eta argitaratu

2. Lemkin, Raphael, *Axis Rule in Occupied Europe*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington D.C., 1944, 84-85 orr.

zituzten euren gerraosteko idazkiak. Ildo horretan, 1938 eta 1940 bitartean Parisko erbestean ziren Jaurlaritzako hainbat kide bildu ziren euskara suspertzeko estrategiak asmatu nahian. Gertu sentitzen zuten erbesteratuek itzulerara garai hartan, eta 1937an gerra zela-eta gauzatu gabe edo amaitzeke utzi zituzten ekintzak berriz ere hartzea zuten gogoan. Eusko Jaurlaritzako “Zuzentza ta gogolantze zaingoa” Kultura Saileko kide ohiak ziren gehienak, hala nola Jesus Maria Leizaola justizia sailburua, Bingen Ametzaga Lehen Hezkuntzako zuzendari ohi, Bonifacio Etxegarai Euskadiko Kultura Kontseiluko kidea, Francisco Basterretxea Eusko Ikaskuntzako kidea eta diputatu ohi, Joxe Migel Barandiaran ikerlaria, Julio Jauregi diputatu ohi eta Bartzelonako ordezkari izandakoa eta Manuel Irujo³.

Oro har, euskal idazleek zientzietako edozein arlotan euskaraz lan egiteko behar zituzten baliabideak edo “langaiak” osatzea zen taldearen erabakia eta asmoa. Euskaraz ikertzeko, euskaraz idazteko eta euskara maila literario, zientifiko eta akademiko egokira igotzeko langaiak:

Idazlearen lankaik, bai, idazleak edonun eta iñon baiño geiago gaurko Euskal Errian orrelako lankaik bear ditugulako. Yakiña, idazleak bere burua du lenbiziko lankaia, buru, antze-edo bear-bezelako adimen eta irudimenik gabe idazlea ez baita idazle izango. Orren ondoan, ordea, liburuek eskeintzen dioten laguntzaren bearra du. Ba dira liburuak –“Gero”, “Otoitz-Gaiak”, “Peru Abarka” ta orien antzekoak– bein eta berriz irakurri bear ditugunak euskera-

3. Irujo, Xabier, “Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko egoitzan finkatutako politika kulturalako ildo nagusiak (1938-1940)”, *José Antonio Agirre, proiektu kultural bat = José Antonio Agirre, un proyecto cultural*, Saturrarán, Donostia, 2007, 77-90. orr., 2007.

ren errai sakonak ezagun eta aren mami goxoaz yabetu nai badugu. Baiña, ba dira ere, beste mota batetakoak, idazleak beti eskumenean euki bear ditunak: iztegiak. Aurrenik, itz guziak edo bil ditezkezanak oro dauzkana; gero Izenkide edo Zentzukideena (Diccionario de sinónimos) ain onuratsua izango litzakiguna, ta azkenik, “Amaikideen iztegia” (Diccionario de la rima) olerkariak erri guzietan ainbeste erabilli oi dutena. Badira beste iztegi-motak ere, baiña lau oriek, beintzat, len-bai-len argitaratzea txit onuragarri izango litzakio gure euskerari. Gure izkuntzaren alde darabilgun burruka gorri ontan dauzkagun iskillu guziez baliatu bear. Arana-Goirik piztu gogoaz batera, lankaiak bear ditugu. Antziñako ta oraingo idazle argiek –or dugu “Orixe”– aiek eskeintzen dizkigute ta Azkuek iñork baiño geiago, noski. Baiña, oraiño ez dira aski. Euskeraren iztegi aundia, osoa, argitara bear da len-baiño-len, eta aren atzean beste bereziak. Oriek ditukegu idazlearen lankaiak, euskal idazleari bere oraingo lan gozogarratzean ain ederki lagun egin bearko diotenak⁴.

Euskarak behar zituen langai horien artean hiztegiak ziren lehen mailako behar Parisko Marceau kaleko egoitzan bildu ziren euskal erbesteko egileen aburuz. Ez hori baka-rrik, ordea; entziklopediak, zientzietako arlo guztietako manualak, idazki zientifiko eta literarioak, aldizkariak, egunkariak, eta itzulpenak ere bai. Horrekin guztiarekin batera, euskararen sustapenerako programa bat garatzea beharrezkoa zen, hala nola euskaltzaleen elkarten antolaketa, ikastolen eta euskal ikastetxeen eraketa, irрати programen antolaketa, baita Eusko Ikaskuntzen Biltzar Nagusien antolakuntza eta biltzar horiek kudeatuko zituen erakundearen garapena ere.

4. Ametzaga, Bingen, “Idazlearen lankaiak”, *Euzko Deya*, Mexiko, abuztua, 1955.

Nazien 1940ko okupazioaren ostean, haiekin eraman zituzten erbesteratuek proiektu horiek Ameriketara. Eta izugarria dugu fruitua. Amerikar eta europar erbestee-tako txoko ezberdinetan eta bakoitzaren indarraren arabera, puntuz puntu eutsi zieten erbesteko lagunek Parisko Marceau kalean ezarritako zeharlerroei. 1942an Andres Irujok eta Ixaka Lopez Mendizabalek Ekin argitaletxea sortu zuten Buenos Airesen, eta, berrogei urtean, ehun liburutik gora eman zituzten argitara. Halaber, Ogoñopek Editorial Vasca sortu zuen Mexikon. 1943an, Montevideon, Uruguaiako Errepublikako Unibertsitateko Eusko Ikaskuntza Mintegia sortu zen, Bingen Ametzagaren zuzendaritzapean. Euskara eta euskal kultura klaseak eskaini zituen Ametzagak Montevideon 1944 eta 1955 artean, eta, 1962tik aurrera Caracasko Eusko Etxean eratuko zen erbesteko lehen Euzkadi ikastolaren hazia jarri zuen. Erbesteko kultur arloko aldizkarien artean Iparraldean Joxe Migel Barandiaranek bultzatutako *Gernika* eta *Euzko Jakintza* ditugu aipagarri. Bestetik, Barandiaranek gorpuzturiko Ikuska institutua aipatu behar da, baita Andres Irujoren eraginez Argentinan osatutako Instituto Americano de Estudios Vascos erakunde kulturala eta elkarte horrek argitaraturiko *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* bizi luzeko aldizkaria ere. Victor Herreroren laguntzaz, Uruguain, Argentinan zein Londresen BBCren bitartez eta, geroago, Iparraldeko eta Venezuelako Euzkadi Irratietan, euskal hitza irrati-uhinen bitartez zabaltzeko aukera izan zuten erbesteko lagunek. 1949an, euskaraz eta euskara hutsez erbestean argitara emango zen lehenengo aldizkariaren lehen alea kaleratu zuen Guatemalan Jokin Zaitegik.

1950 eta 1959 artean *Euzko-Gogoa* aldizkariaren 44 ale argitaratuko zituen Zaitegik Ameriketako eta Iparraldeko erbesteetatik.

Hainbat herrialdetan eta askotariko jendeak antolatutako jarduerak badira ere, aipatutako ekintza horietan guztietan parte hartu zuten lagunak elkarrekin kontaktuan zeuden etengabean, eta helburu nagusi jakin batekin eta logika bateratu baten ildora planifikatu, antolatu, gorpuztu eta bultzatu zuten ekitaldi multzoa dugu.

Euskara erbestean

Eusko Etxearen estatutuen hirugarren artikuluari jarraiki, elkartean euskara zabaltzea eta elkarteko aldizkarian euskaraz idaztea zen Montevideoko Eusko Etxearen eginbehar nagusia. Asmo horri gogoan, 1944an Arte eta Kultura Batzordearen osaketa sustatu zuen Montevideoko Euskal Erria Eusko Etxean Ametzagak. 1943ko urrian ospatutako *Gran Semana Vasca* edo *Euskal Astearen* ondorio zuzena dugu erakunde berria. Unibertsitateko Eusko Ikaskuntza Mintegiarekin lotuta, batzorde eraginkorra eta dinamizatzailea dugu eta, 1944tik hasita, Eusko Etxeko Arte eta Kultura Batzordeak hainbat jardunaldi eta ekitaldi kultural eta politikoren sustatzailea izango zen. Izan ere, Eusko Etxean euskara irakasteko eta zabaltzeko taldea Kultura Batzordearen baitan sortu zen, eta lehenengo Euskaltzaleak taldea ere hor gorpuztu zen. Hain zuzen, Bingen Ametzagaz gain, Manuel Gortari, Rodolfo Gorriti, Jose Mendiola, Pedro Artetxe, Miguel Bañales eta Abel Biraben ditugu batzordekideen eta kolaboratzaileen artean; alegia, Errepublikako Unibertsiti-

tateko Eusko Ikaskuntza Mintegiko kideak eta euskara klaseko ikasleak denak⁵.

Bi asmo nagusi zituen Euskaltzaleak taldeak. Alde bate-tik, euskal hizkuntzaren erabilera sustatzea Eusko Etxean, eta, bestetik, hainbat ekitaldi eta programa martxan jartzea. Ildo horretan, elkarteko kideek Ametzagak Uru-guaiko Errepublikako Unibertsitatean eskaintzen zituen euskara klaseetan izena emateko deialdia egin zuten urtez urte 1944tik 1954ra arte. Ordutik 1960ko hamarkadara arte, Jose Mendiolak hartu zuen euskara klaseak emateko ardura. 1944 eta 1963 artean eman ziren euskara klaseak eta, unibertsitatearen ordenantzei jarraiki, klaseak gutxie-nez 50 ikasle behar zituen izan. Horrek erakusten digu eus-kara atzerrian ikasteko Eusko Etxean egindako deialdiaren indarra. Bestalde, Ameriketako eta Europako beste puntu batzuetan euskaraz egiten ziren ekintzak laguntzarren eta, bereziki, euskaraz argitaratzen ziren lanak sustatzarren, euskaraz idatzitako liburu eta aldizkari guztiak erosi eta irakurriko zituzten Euskaltzaleak elkarteko kideek.

Era berean, Euskaltzaleak elkarrekin zenbait ekintza bultzatzen zituen eusko etxeetan, bai eta eusko etxeetako zuzendaritza taldeetan parte hartu ere. Ildo horretan, Bigar-ren Mundu Gerra amaitu eta lau urte geroago, Hego Eus-kal Herria diktadurapean zegoela-eta euskararen erabilera bizitzako esparru guztietan debekatua egoten jarraitzen zuelarik, lehen Euskara Eguna (*Día de la Lengua Vasca*) antolatzea erabaki zuen Uztaritzeko euskaltzale talde

5. Irujo Ametzaga, Xabier, *Euskal erbeste politikoa Uruguain (1943-1955). Eusko Jaurlaritzaren administrazioa eta kanpo ekintza atzerrian*, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea - Instituto Vasco de Administración Pública (HAEE-IVAP), Oñati, 2005.

batek. 1949ko maiatza aldera, Iparraldean eta munduko eusko etxe guztietan Euskararen Eguna ospatzea planteatu zien Manuel Sotak Joxe Mari Lasarteri, Telesforo Monzoni eta Manuel Intxaustiri Uztaritzeko Intxausti-Baita etxean. Bigarren bilera batera, Pierre Laffitte euskaltzale eta idazlea eta Louis Dassance Uztaritzeko alkate eta Euskaltzaleen Biltzarra erakundeko lehendakaria gonbidatu zituzten haien bien iritzia jasotzeko. Ideia martxan jartzea erabaki zuten bilera hartara bildutakoek. Abenduaren 3a, alegia, Xabier deunaren eguna, proposatu zuen Euskararen Eguna ospatzeko Manuel Intxaustik⁶.

Helburua bikoitza zen: alde batetik, Ameriketako eta Europako Euskaltzale taldeak proiektu komun batean elkarrekin harremanetan jartzea –kultura, literatura eta hezkuntza arloetan jarduerak suspertu eta Euskaltzaleak taldeak Europan eta Ameriketako punta guztietan osatzeko–, eta, bestetik, euskal hiztunek Euskal Herrian –Iparraldean zein Hegoaldean– pairatzen zuten egoera makala eta euskal hiztunen hizkuntza eskubideen urraketa mundu zabalean salatzea.

Denak emanda hartu zuen parte Montevideoko Euskaltzaleak elkarteak 1949ko Euskara Egunaren antolaketan eta, Montevideoko Jaurlaritzako ordezkariaren eskutik, Oscar Secco Ellauri Uruguaiako Hezkuntza ministro euskal-uruguaitarraren babesa izan zuten Euskal Erria Eusko Etxean 1949ko abenduaren 3an egindako ekitaldiek. Halaber, Leopoldo Agorio Etcheverry Errepublikako Unibertsitateko errektorea eta Adolfo Berro García filologiako katedratikoa (euskal etorkinen ondorengoak biak)

6. *Ibid.*

bertaratu ziren Euskara Eguna ospatzeko. Aste oso batez bete zuen euskal liburu erakusketak eta azokak Eusko Etxearen areto nagusia. Era berean, hogeitabat artista bildu zituen erbesteko lehen euskal margolarien arte erakusketak. Horrez gain, mezak, afariek eta asteburuko jaialdiak osatu zuten Montevideoko Eusko Etxeko lehen Euskara-eguneko egitaraua. Nahiz eta Euskaltzaleak elkarteak 1944an osatu, 1949ko Euskara Egunak Euskaltzaleak taldea indartu eta bizkortu zuen, eta Euskal Liburu Elkarteak (*Club del Libro Vasco*) taldea osatzeko bultzada eman zien Montevideoko euskaltzaleei. Erbesteko beste herrialdeetan kaleratzen ziren liburuen eta aldizkarien harpidetzak egingo zituzten taldekideek eta, liburuak eta aldizkariak jaso eta irakurri ondoren, aldizka bilduko ziren irakurritakoaren gaineko gogoetak egiteko:

La celebración del Día del Euskera ha sido aquí realmente una semana, de jueves a jueves, (...) Como le decía, entre Euskal Erria y el departamento de Estudios Vascos de la Universidad, hemos empleado la semana y creo que hay cosas que no han salido bastante bien. Para que Ud. se vaya haciendo una idea le adjunto unos recortes de diarios de acá con diversos aspectos de los actos ya en Euskal Erria ya en la Universidad donde asistió, no sólo el rector, como dice el recorte que le adjunto, sino también el secretario de Instrucción Pública representando al ministro que por tener interpelación en la Cámara no asistió como era su deseo. (...) De las suscripciones a “Gure Herria” he empezado a trabajar y, sinceramente le digo que aquí se podrá hacer muy poco. Tenga Ud. la seguridad de que lo que se haga será lo máximo que se haya podido hacer. A base de mi pequeño grupo de alumnos de euskera pienso ahora crear aquí la entidad “Euskaltzaleak” y trabajaremos en esto de la

simpática revista “Gure Herria” que tanto hizo y que tanto puede hacer por nuestra cultura⁷.

Gutun horretan Ametzagak Manuel Intxaustiri aipatutakoaren ildoan, Ameriketako zein Europako beste hainbeste tokitan egiten zenaren harira, euskaraz argitaratutako liburu guztiak erosteaz eta Uruguain zabaltzeaz gain, urteko liburu bat euskaraz idatzi eta argitaratzeko erronkari heldu zioten Montevideoko euskaltzaleek. Hori horrela izanik, Montevideoko Euskaltzaleak elkartearen eskutik Euskal Erria elkartean susperturiko ekintza guztien artean bi argitalpen azpimarratu behar dira: Ekin argitaletxeak 1952ko Euskara Egunerako plazaratu zuen *Hamlet, Prince of Denmark* Shakespeareren klasikoaren itzulpena, batetik, eta 1953an Florensa argitaletxeak argitaraturiko *Platero eta biok*, bestetik⁸. Biak ditugu ordezkartzeko kide Bingen Ametzagak euskaratuak eta Eusko Ikaskuntzako kide Carlos G. Mendilaharsuren irudiekin hornituak:

Como iniciación de una serie de publicaciones de obras de valor universal vertidas al éuskaro para expresar así el amor de los vascos a la cultura y a su idioma, ha sido editado en esta ciudad, por vez primera en vascuence, “Hamlet”, en versión del profesor Vicente de Ametzaga, que fue director general de primera enseñanza en Vasconia⁹.

Oihartzun zabala izan zuen liburuaren argitalpenak, izan ere, Nicolas Ormaetxearen, Andima Ibinagabeitia-

7. Bingen Ametzagak Manuel Intxaustiri idatzitako gutuna, Montevideo, 1949ko abenduak 10.

8. Bingen Ametzagak Andres Irujori idatzitako gutuna, Montevideo, 1952ko maiatzak 9.

9. “Celebran los vascos el día de su idioma”, *La Nación*, Montevideo, 1952ko abenduak 3.

ren eta Jokin Zaitegiren oniritzia jaso zuen argitaratu eta berehala itzulpenak¹⁰.

Ekin argitaletxeak kaleratutako *Hamlet*, *Danemark'eko erregegaia* zein Florensa argitaletxean kaleratu zen *Platero eta biok* Euskaltzaleak elkarteko kideen emariei esker atera ziren. Hirukoitza zen helburu nagusia: Unamunoren kulturaren teoriari aurre egitea, euskara idazki eta espresio berriekin aberastea eta euskararen normalkuntza linguistikorako bidea egitea.

Unamunoren hizkuntza eta kultur teoria klasistari kontra eginez, edozein hizkuntzatara edozein motatako idazkiak itzultzerik bazegoela erakutsi nahi izan zuen Ametzagak. Hots, hizkuntza guztiak maila bereko diskurtsoak ekoizteko gai zirela agertuz, balio berdina zutela frogatu zuen Ametzagak Shakespeareren obra horiek euskaratzean: *Hamlet*, *Julius Caesar*, *Macbeth* edota *Uda gau bateko ametsa*. Mezua garbia zen: Shakespearek jatorriz ingelesez idatzitakoa euskaraz ere jantzi daiteke eta, ondorioz, hizkuntza guztiak maila berean daude eta hizkuntza guztietako hitzunek eskubide kultural berak izan beharko lituzkete. Unamunoren gogapenari aurre eginez, goi eta behe mailako hizkuntzarik ez zela demostratu zuten euskal itzultzaileek erbestetik, munduko hainbat hizkuntzatatik garai zein mota ezberdinetako klasikoak euskaratzean. Era berean, atzerrian argitara ematen zuten itzulpen bakoitzarekin euskararen egoera salatu zuten erbesteko euskal idazleek.

10. Irujo, Xabier. "Eusko Jaurlaritzaren kultur ekintza atzerrian (1938-1955): Uru-guaiko kasua". *Guregandik. Revista del Centro de Estudios Arturo Campion*, Laprida (Argentina): 6 zenb., 2010: 72-95. orr. ISSN: 1850-1303.
Online: <http://www.arturocampion.com.ar/libros/Guregandiks/gure6/4.irujo.pdf>

Euskaraz idazki berriak idatziz eta argitara emanaz, euskal hizkuntza bera bizirik mantentzen laguntzeaz gain, hizkuntza bera aberasten zuten atzerriko euskaltzaleek. Idazteko eta espresatzeko era berriak eratuz, moldatuz eta eraberrituz, normalizazio prozesu linguistikoa bultzatzen ari zirela garbi zuten idazleek. Euskararen normalizazio prozesuaren inguruko gogoeta eta debateetan bat egin zuten Azkuerekin Ametzagak eta Zaitegik: euskara normalizatuaren geroa gipuzkera osotua zen. Eta, esan bezala, nahiz eta Ametzaga hitzun bizkaitarra izan, gipuzkera osotuaz idatzi zuen beti. Ahalegin horren ondorioz, 1968an Arantzazuko bileran euskararen urratsez urratseko normalizazio prozesuari euskaltzainek eta euskaltzaleek ekin ziotenean, aldaketa gutxi batzuekin batera, Resurreccion Maria Azkuek markatutako eta Zaitegik, Ibiñagabeitiak, Orixek, Ametzagak eta erbesteko beste hainbeste egilek erabilitako gipuzkera osotua hartuko zuten ardatz euskara batua gorpuzteko.

Hamaika arazori aurre egin behar izan zion Ametzagak itzulpena egitean, bai eta Irujok argitara ematean ere. Adibide gisa, esango dugu hasiera batean Shakespeareren lanak itzultzeko Ametzagak zuen hiztegi bakarra Ixaka Lopez Mendizabalek 1943an Ekinen argitara emandako *Diccionario Vasco-Castellano y Castellano-Vasco* zela. Nabarmenki urria *Uda gau bateko ametsa* itzultzeko. Hori dela eta, erbesteko egileek etengabe jardun zuten elkarrekin gutun bidez, hitz eta espresio berrien bila eta ideiak alderatzen. Editorerik gabe, idatzitako testuak ez zituen inork berrikusten edo zuzentzen. Argitalpen eta inpresio prozesuari dagokionez, garai hartan, plantxak egiten zituzten langileek ez zekiten euskaraz; hortaz, letraz letra jarri behar zituzten plantxetan itzultzaileen edo egileen liburu

osoak, hitz horiek zer esanahi zuten jakin gabe. Normala den bezala, akatsez josita ateratzen ziren galeradak eta, ondorioz, lanak, nekeak eta prezioak izugarri handitzen ziren. Hona hemen Ametzagak *Hamleten* itzulpenaren inguruan argitutakoa:

Baditugu, beraz, irakurle, iru eragozpen euskeratze ontan: lenengoa, Shakespearerena berarena; bigarrena, gure euskera, onelako lanetara gutxi oitua; irugarrena, nire gutxitasuna. Iru eragozpen aundi orien aurka, ordea, beti izan ditut bi bultzagai indartsu: maite maite dut Shakespeare, Euskera areago. Maitasun bi auek lanean yarri ta burutzeko adorea eman didate. Dakuskezun ona aiei zor diet. Utsak, berriz,... maite aundia izan dudala ta barkagarri nauzute. Shakespeareri alik zintzoenik yarraitzea izan dut lenbiziko xedea; bulkoetan bakarrik ez, itzetan ere; itzez-itzez al izan dudan aldi oro. Au, ordea, eziña da askotan, euskera ta ingeleraren izakera oso bestelakoak baitira ta, bestalde, olerkari bat zeaztasun osoz biurtzeak illuntasuna dakarrelako, sarritan. Orregatik, zintzotasuna ta zeaztasunaren aldean, argitasuna izan dut beti elburu, olerkariaren opaz ta euskeraren onerako. Zuk dasakezu, irakurle euskalduna, zintzotasun ori argitasunaz einkatzea lortu dudanez¹¹.

Erbesteko euskal egileen gogoia, ahaleginak eta indarra emankorrak izan ziren, eta euskal literatura gutxika gorpuzten hasi zen 1950eko hamarkadan. Hogei urte dikta-durapean igaro ondoren, 1955ean Espainiako erregimena Nazio Batuen Erakundean onartu zen, eta, nazioarteko politikagintzaren bermeaz, 1975 arte luzatu zen euskararen eta euskal kulturaren kontrako jarrera. 1955eko gertakariak eragin handia izan zuen erbesteko Eusko Jaurlaritza-

11. Shakespeare, William, *Hamlet, Danimarkako Erregaia*, Ekin, Buenos Aires, 1950.

ren ekimen politiko eta kulturalean, eta eragina izan zuen, noski, Hegoaldeko euskal kulturgintzan ere. Hirurogeiko hamarkada arte euskaraz bultzatutako kultur jarduerak letargikoak eta eskasak izan baziren ere, aurrerantzean indarra berreskuratzen hasiko ziren. 1936 eta 1937 artean ikastola guztiak itxi zirenetik eta Elvira Zipitriaren gidaritzapean lehenengo ikastolak atek ireki zituenetik urte batzuk igarota, berrogeita hamarreko hamarkadaren azken urteetan hasi ziren ikastola berriak osatzen. Atzerriko lehenengo ikastola ofizialak 1962an ireki zituen atek Caracasen; Euskal Herrian, berriz, bata bestearen atzetik sortu ziren: Bilbon 1957an, Iruñean 1963an, Gasteizen 1966an eta Baionan 1969an. 1969an hainbeste ikastola zegoen Gipuzkoan, non Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak osatu baitzen eskola horiek zuten erabateko legez kanpoko egoerari aurre egiteko. 1964an ikastoletan 600 bat haur zeudela erregistraturik uste bada ere, 1970erako 8.000 ikasle inguruk ikasten zuen euskal eskoletan.

Iparraldean, Frantziako Laugarren Errepublikak (1944-1958), 1951ko urtarrilaren 11n, *Loi Deixonne* delako legearen bitartez hizkuntza gutxituetan eta dialektoetan klaseak emateko aukera ireki zen. Izan ere, Bigarren Mundu Gerraren amaieran, Ipar Euskal Herrian, Britainian edota Okzitanian okupazioari aurre egin zieten erresistentzia taldeen ekimenek Parisko parlamentuan sortu zuten eztabaida politikoaren ondorengoa dugu *Loi Deixonne*. Nola bait herri txikien ekimenak saritzeko onartu zen lege hori, Frantziako Alderdi Komunistako zenbait kideren laguntzaz. Laugarren Errepublikaren hizkuntza legedi berriaren babespean osatu zuen 1948ko urriaren 26an, Bordeleko Unibertsitateko letren fakultatean euskara eta euskal literaturako katedra René Lafon filologiako irakasleak. Eta,

Montevideoko euskaltzalearekin harremanetan, Ametzagak Uruguaiko Errepublikako Unibertsitatean egindakoa-
ren ereduari jarraitu zion Lafonek Bordelen. Hogei urte
geroago, Nevadako Unibertsitateko Center for Basque Stu-
dies – Renoko Euskal Ikergunea sortu eta gorpuztuko zuten
William Douglass-ek eta erbesteratutako Jon Bilbaok.

Bingen Ametzagak atzerrian egindako Shakespeareren
itzulpenak ez ziren lan literario hutsa izan; esanahi politiko
eta kulturala ere badute, eta euskara desagertzeaz egon
zen garai bateko borrokaren isla dira. Egungo egoeraren
aitzindaria, gerora luzatuko den gure herri honen erronka
luze baten urratsa.

AMETZAGA ITZULTZAILE

ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA¹

Shakespeareren lanak izan du presentziarik euskaraz, eta hemen dakargun *Uda gau bateko ametsa* dugu horren erakusgarri. *A Midsummer-Night's Dream* lanaren hiru itzulpen egin dira euskarara, eta Bingen Ametzagak eginikoa dakargu hona. Hiruretan lehena izan zen gauzatzen (1952), nahiz eta argitaratzen azkena izan. Bigarren itzulpena Aita Bedita Larrakoetxeak egin zuen, eta 1974an argitaratu zen². Hirugarren itzulpena, berriz, itzulpen gaurkotua, Juan Garziak egin du, eta 2014ko abenduan argitaratu da EIZIEren webgunean, DSS2016EU erakundearen eta EIZIEren lankidetzaz gauzaturiko “Shakespeareren *Ame-*

1. Atal hau TRALIMA/ITZULIK (GIC12/197, UPV/EHU) ikerketa talde kontsolidatuaren baitan kokatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatua (IT728-13), baita UFI11/06 UPV/EHUko Formakuntza eta Ikerketa Unitatearen lanaren baitan eta Espainiako Gobernuaren Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak babesten duen “Traducción y censura en España (1939-1985): corpus textuales y contexto cultural” (FFI2012-39012-Co4-01) ikerketa proiektuaren barruan ere.

2. Larrakoetxeak Shakespeareren lan ugari euskaratu zituen: lehenengoak 50eko hamarkada bukaeran eman zituen argitara (*Macbeth*, *Lear Errege* eta *Ekatxa*); gainerakoak, 1970eko hamarkadan etorri ziren, sei liburukitan bilduta. Haren lanari buruzko informazio zabalagoa nahi izatera, ikus Eusko Jaurlaritzaren “Bidegileak” bilduman Pablo Anduagak argitaraturiko *Benito Larrakoetxea Agirrezabala. Hemen nahiz erbestean euskaltzale (1894-1990)* (2014).

tsa biziarazten” programaren baitan. Hiru testuon aurkezpena eta horietan izaniko itzulpen-estrategiak aztertu eta alderatzeko saiakera ere egin zen programa beraren baitan, 2014ko azaroan, Donostian³. Esku artean dugun *Itzultzaile aitzindarien* bildumako ale honen bitartez etorri da, hortaz, Ametzagaren itzulpena. Honi esker, bada, hirurak ditu irakurleak eskura.

Lan eskerga egin zuen Bingen Ametzagak euskal kulturaren eta euskararen alde bizitza guztian zehar, eta itzultzaile lanetan nabarmendu zen batik bat. Euskaraturiko lan ugari argitaratu zituen, bai liburu formatuan baita aldizkarietan ere⁴; beste hainbat, ordea, argirik ikusi gabe geratu ziren. Esku artean dugun Shakespeareren *Uda gau bateko ametsa* dugu horietariko bat. Idazle kuttuna zuen Ametzagak, eta ez da harritzekoa, hortaz, haren lan ugari landu izana. *Macbethi* heldu zion lehenik, eta *Hamlet* etorri zen ondoren, baita *Uda gau bateko amets* hau eta *Juli Kaisar* ere. Dena den, lau lanetatik bakarra eman zuen argitara: *Hamlet*, 1952an. Beste hirurak tiradera batean gorderik izan dira orain arte eta honako argitalpen honekin, lan hori ezagutzera emateko garaia heldu zaigu.

Shakespeare, idazle kuttuna

Erbesterako bidean heldu zion Ametzagak Shakespeareren lehen itzulpenari: *Macbethi*. 1941eko urtarriletik 1942ko

3. Helbide honetan ikus daiteke saioari buruzko informazio zabalagoa: http://www.eizie.org/uda_ametsa/UGBAeus. Beste lotura honetan, berriz, hiru bertsioren inguruko informazioa kontsulta daiteke, Garziaren itzulpenaren argitalpenaren kariatara zabaldua: http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBA2014/UGBA_eu_eguna.pdf.

4. Ikus lanen zerrenda osatua Irujo 2009n edo honako helbide honetan: <http://vicenteamezagaaresti.blogspot.com.es/2008/12/vicente-ametzaga-aresti.html>.

apirilera bitarteko itsas bidaian zihoala, Frantziatik Hego Amerikara bidean, hainbat lan itzuli zituen, Shakespeareren *Macbeth* eta Plinio gaztearen gutunak tartean. Ez zen egoerarik onena ere itzulpena gauzatzeko, ez baitzuen baliabide nahikorik eskura itzulpen-lanean aritzeko. Hori dela eta, *Euzkel-Erdel Iztegiñu* bat osatu zuen itsas bidaialdi hartan, egiten ari zen itzulpenetan baliagarri izan zekion.

Behin jada bizilekua Montevideon ezarrita, *Hamlet* izan zen Ametzagak itzuli zuen Shakespeareren bigarren lana. Bigarrena, eta argitara eman den bakarra. Ametzagaren itzulpen lanetan ezagunenetarikoa. “1945ean hasi zen Ametzaga *Hamlet, Danemark’eko erregegaia* Shakespeareren klasikoaren itzulpenean lan egiten. 1947ko apirilean erdia edo egina zuen, 1947ko udazkenean jo eta ke aritu ondoren, ekainean bosgarren ekinaldiko erdia burutua zuen [...]” (Irujo, 2009, 64). Halako itzulpen lan batek zailtasun ugari zekartzan berekin: euskara normaldu gabea, neologismoen sorrera eta hitz zaharrak txertatu nahia, dialektoen ugaritasuna, alfabetatu gabeko irakurleak, erbestean jardutea, eta abar.

“Itzulpena burutu eta hiru urte geroago, 1950eko irailan hain zuzen, proposatu zion lehen aldiz Andrés Irujori lanaren argitalpena [...]” (*ibid.*). Urte hartako euskararen egunean argitaratu nahi zuen Ametzagak, nahiz eta epe laburra egon ordurako. “Ondo iruditu zitzaion Irujori Ekin argialetxean *Hamlet* euskaraz ematea, izan ere, euskaraz kaleratuko zen Shakespeareren antzerki lan baten lehen guztizko itzulpena dugu hau” (*ibid.*). Inprentako lanek luze jotzen zuten, eta hainbat zuzenketa (Lopez Mendizabalenak baina baita Ametzagarenak berarenak ere) zein maketazio eskakizunak tarteko (Euskaltzaleak taldeko kideenak –Irujo, 2009: 68–), 1952ko euskararen

egunean argitaratu zuen azkenean, Montevideoko euskal etxeko Euskaltzaleak elkartearen laguntza ekonomikoa medio. Harrera beroa izan zuen irakurleen artean, eta bai erbestean bai Euskal Herrian irakurleek gustura irakurri zutela esan liteke. Halako klasiko bat euskaraz irakurtzeko aukera izatea azpimarratu zuten batzuek; itzultzaileak zerabilen euskara laudatu, beste batzuek.

Shakespeare gustuko izanik, 1952ko udan heldu zion *A Midsummer-Night's Dream* itzultzeari, Buenos Airesen. “Hiru bat hilabetetan, 1952ko urrian alegia, amaitutzat jo zuen Ametzagak itzulpena. Ondoren komediaren bigarren orrazteari ekin zion 1953ko apirilean eta, hirugarrenari 1954ko urtarrilean” (Irujo, 2009: 88). Behin itzulpena amaituta, Orixeri bidali zion testua, haren iritzia jasotzearren. *Euskal Erria* aldizkarian *Hamleten* itzulpenari buruzko iruzkina egina zuen hark, eta Ametzagak bazekien Orixek ez zuela oso gogoko idazle ingelesa.

[...] veo que Shakespeare no es uno de los santos de su mayor devoción. Pero piense un momento en lo que ha de perder trasladado a cualquier idioma un escritor entre cuyos mayores méritos está el extraordinario dominio del suyo y su magistral dominio del verso. De todos modos y a modo de *catharsis* me gustaría ofrecerle mi versión de *El sueño de una noche de verano* que hace más de un año terminé y desde entonces está esperando, en un rincón de mi escritorio, que vuelva a dedicarle unos días o semanas a fin de dejarlo completamente a punto. Es una maravilla de poder imaginativo, fineza y buen humor, bien capaz de disipar en Ud. todas las oscuras nieblas del *Hamlet* (Irujo, 2009: 90-91).

Zaitegik ere izan zuen itzulpenaren berri eta “Plinio Gaztearen eta Zizeronen itzulpenekin batera Algortakoa-

ren Shakespeareren lanak *Euzko-Gogoa* aldizkarian argitaratzeko prest agertu zitzaion” (Irujo, 2009: 88). Jakina denez, baina, lan horiek ez ziren argitaratu. Erbestean garai gogorak bizi izan zituzten bai Zaitetik eta bai Ametzagak, eta ez zen posible izan itzulpenak argitaratzea.

Shakespeareren testuen zailtasun mailari dagokionez, maiz adierazi zuen itzultzaileak askoz samurragoak suertatu zitzaizkiola *Hamleten* ostean itzuli zituen antzerki-lanak. “[...] como Ud. dice al comienzo de su comentario, la obra es difícil en sí –le confieso que por eso me tentó– pero ello tiene la ventaja de que, después de ella todo le parece a uno cuesta abajo. ‘El sueño de una noche de verano’ me costó la vigésima parte y ‘Julio César’ –que estoy terminando– muchísimo menos debido a su claridad de obra de arte clásico”⁵ (Irujo, 2009: 89).

Nahiko segidan egin zituen *Uda gau bateko ametsa* eta *Juli Kaisar* lanen itzulpenak. 1954ko uztailean amaitu zuen *Julius Caesaren* itzulpena eta urte bereko urriaren 14an *Macbeth* tragediaren berrikuspena amaitu arte jarraitu zuen Shakespearerekin. “Behin itzulpenak burutu eta borobildu ondoren, *Uda gau bateko ametsa*, *Macbeth* eta *Yulius Kaisar* ale bakar batean argitaratzeko proposatu zion Andrés Irujori. Azken honek ordea, arazo ekonomikoak bide, bi urtetan ezin izango zuela euskaraz idatzitako libururik plazaratu adierazi zion” (Irujo, 2009: 90).

Ikus dezakegunez, oso gogoko zuen Ametzagak Shakespeare, eta bere gutunetan nabari da hori. Bizitza haren lanak itzultzen emango zukeela esaten zuen. Shakespeareren “Obras completas” bilduma Euskal Herrian utzia zuen

5. Ametzagak Manuel Irujori 1954ko abenduaren 15ean idatzirikoa gutuna.

eta familiakoei eskatu zien erbestera bidaltzeko harekin lanean jarraitu ahal izateko.

Garai zailak izan ziren euskal idazle eta itzultzaileentzat gerra osteko urte haiek. Erbestean bizi izanda, ez zen erraza Euskal Herriko kultur ekoizpena gertutik jarraitzea. Ametzagak bazuen harremanik beste euskal idazle eta intelektual batzuekin, eta Zaitegirekin izaniko gutun-truke baten bitartez izan zuen Shakespeareren lanen beste euskaratze baten berri, Ametzaga bera ere itzulpen lan haiek egiten ari zen garaitsu berean izan ere. Lau urtez elkarren berririk izan ez eta 1958an idatzi zion Zaitegik, *Eusko-Gogoarako* zer edo zer idatziko ote zuen galdetuz. Eta, bide batez, Bedita Larrakoetxea apaizak onduriko *Macbethen* bertsioa argitara emango zutela jakitera eman zion⁶. Ametzagak, antzezlan haren itzulpena berak ere egin zuela esanez erantzun zion:

Macbethen itzulpen bat iragartzen duzue, Aita Larrakoetxea adiskide onak egiña. Nire aldetik, nik *Hamletena* egin eta bereala burutu nun itzulpen ori ta emen dago lotan nire paperen artean noiz irtengo. Tamala da gauza berean bi euskalari ari izatea ainbat eta ainbat egiteko dagonean, baiña zer egingo zaio! Arazo ontan ez dago beste errudunik ni baiño. Emen bainauzu ezertarako gogorik gabe, nire euskal lanak oro lagatu ta ildako bat bezala naizela. Ta onela izango da emendik irten nadin arte, behintzat (Irujo, 2009: 90-91).

1955ean, Montevideotik Caracasera joan zen bizi-tzera Ametzaga, eta beste hainbat zereginetan jardun zuen

6. Larrakoetxearen eta Ametzagaren itzulpenen artean bada alderik. Lehenengoak, arratiera aberastua baliatu zuen bere itzulpenerako; bigarrenak, gipuzkera osotua. Hori horrela izanik, esan genezake ez zutela irakurleko mota bera buruan itzulpena egiterakoan.

ordutik aurrera. Amaiturik zituen Shakespeareren lanen itzulpenak tiradera batean gorderik geratu ziren. 1955az geroztik, ez zuen itzulpenari ganoraz heltzeko paradarik izan, eta ezin uka garai gogorrek bizi izan zituenik Ametzagak. Anaia Ramoni honela aitortu zion 1958an, gutun bidez:

[...] a mi me pasa que no puedo dedicarme a la obra para la que me había preparado y es la ilusión de mi vida, de modo que aunque desde Montevideo tengo unas cuantas cosas del estilo de *Hamlet* terminadas, aquí no puedo ni siquiera dedicarles el último *peinado* que es, para mí al menos, el que la hace subir a su verdadera altura. Es decir, que me dedico a contemplar cómo los últimos años de vida que me pueden quedar se me van en una vida que no tiene para mí sino muy poco interés y que Dios me perdone⁷ (Irujo, 2009: 91).

Dena den, hamarkada bat igaro ostean hartu zituen lanok berriz ere. Jarraian ikus liteke bere asmoa, Miguel Pelay Orozcori idatziriko gutunean:

Hoy comienzo mis vacaciones, que buena falta me hacen, y voy a ver si termino de redondear y dejar para la imprenta mis versiones de *Macbeth*, *Julio César* y *El sueño de una noche de verano* que tenía hechas a continuación de la del *Hamlet*. Después de haberlas tenido durmiendo durante unos quince años, se me ocurrió hace pocos meses que tras una buena puesta al día, es decir, cuidándome en lo posible de todo lo que en el *Hamlet* pudo parecer de purismo y sin caer como Ud. dice en el extremo opuesto de los mordollistas de moda cuyo ideal por lo visto es convertir al euskera en un patois, merecía la pena dar a la estampa esas obras. En ello he estado trabajando con todo cariño estos últimos

7. 1958ko azaroaren 18ko gutuna.

meses y muy poco es lo que me falta para rematar el trabajo. Veremos lo que se puede hacer⁸ (Irujo, 2009: 91-92).

Hiru hilabete eta erdira hil zen Ametzaga, 1969ko otsailaren 4an, eta hiru lan horiek oraindik ere argitaragabe jarraitzen dute. Shakespeareren lanak argitaratzeko hainbat saiakera egin zituen, ikusi dugunez, baina ez zen posible izan. Honako argitalpen hau, hortaz, euskal kulturak itzultzaile handi honi dion zorra kitatzera dator, hiru lan haietariko bat plazaratuz.

Itzulpen-arazoak

Erbesteko egonaldia eta euskara estandarizatuta ez egotea itzulpen-jarduna zailtzeko moduko faktoreak izan ziren, inondik ere. Gogoan izan behar dugu erbestean zuten baliabide egokien falta ere, apenas baitzuten material egokirik itzulpen lanari ekiteko. Lehen esan dugun moduan, adibidez, Ameriketara bidean euskal-erdal hiztegi bat osatu zuen Ametzagak berak, egiten ari zen itzulpenetan baliagarri izan zekion. Horrez gainera, Euskal Herrian utziriko zenbait erreferentzia lan ere eskuratu nahi izan zituen, ingeles hiztegi bat eta Shakespeareren lanak tarteko (Irujo, 2009: 89). Material hori eskuratzeko luze itxaron behar izaten zen, Euskal Herritik Hego Ameriketarako distantzia itsasoz egiteko denbora tarte handia behar baitzen.

Ametzagak ongi zekien zein zuen ezinbesteko materiala itzulpen lanetarako, baita jardun horretan zer falta izan zuen ere:

8. Miguel Pelay Orozcori Caracastik idatziriko gutuna, 1968ko urriaren 22an.

Parece imposible que aún continuemos sin un diccionario fundamental. Sin embargo, en pocos meses podría estar preparado uno que, sin reputarlo definitivo, serviría utilísimamente y que teniendo como base el vasco-castellano-francés de Azcue estaría completado con miles de palabras usuales recogidas de boca del pueblo, mas los cientos o quizá miles de neologismos que por haber sido ya adoptados por los vascos parlantes o por su indiscutible claridad pueden considerarse merecedores de incorporarse definitivamente a nuestro léxico (Irujo, 2009: 36-37).

Hiztegi orokorrarekin batera, ezinbestekotzat jotzen zituen Ametzagak beste hiru hiztegi tekniko, hots, sinonimoen, errimaren eta esamoldeen hiztegiak. Itzultzaile gisa, maiz sentituko zuen hiru hiztegi horien falta:

La primera deficiencia que el traductor vasco tiene que lamentar es la falta de ese diccionario por el que desde hace lustros venimos clamando. Cada vez que pienso que me lancé a la traducción del *Hamlet* sin otro diccionario que el Bera-López Mendizabal –sólo casi al término de la obra recibí de un buen amigo el regalo del diccionario del Padre Lhande y, ya la tarea cumplida, me llegó mi ejemplar del de Azkue– no puedo menos que asombrarme de mi audacia... o inconsciencia (Irujo, 2009: 37).

Itzulpenerako erabiliriko euskara

Euskaratze lanean aritu zen garaian, euskara idatzia oraindik ere arautzeko zegoen eta ez zegoen eredurik finkatuta. Zentzu horretan, ikaragarritzko meritua dute halako lanari ekiteko izan zuen prestutasunak eta, nola ez, lorturiko emaitzak. Garai hartan eztabaida handia zegoen idazteko baliatu behar zen hizkera motaren gainean. Ametzagak iritzi garbia zuen: euskaldun guztiak ulertzeko moduko

testuak sortu behar ziren, eta horretarako euskara estandarizatuaren beharra nabarmentzen zuen. Haren ustez, gainera, hizkuntza arautuak gipuzkeran oinarritu behar zuen. Gipuzkera osotua deitzen zuena baliatu zuen, hortaz, bere lanetan, hau da, euskalki horretan oinarrituriko hizkera, gainerako euskalkietako hiztegiz osatua.

Hori kontuan izanik, Ametzagaren itzulpen lanak aztertzean, garaiko zailtasunak nagusitzen direla ikusiko dugu: euskalki bat edo bestea erabiltzeko erabakia hartu beharra, irakurleari irakurketa ez zailtzeko zein hitz edo hiztegi baliatu behar zen pentsatzea, eta abar. Esan dugun moduan, gipuzkera hautatu zuen lanerako abiapuntu gisa, euskara bera bateratu, indartu eta zabaltzeko. Bestalde, erabili beharreko hiztegiari dagokionez, bi arlotan kokatu behar dira Ametzagaren zalantzak eta buruhausteak: bategitik, euskalki guztietako hiztegia erabiltzearen aldeko hautua egin zuen. Hitz berriei dagokienez, berriz, “neologismo eta kultismo gutxi erabiltzen saiatu zen euskalki ezberdinetatik hitzak hartuz euskara osatuaz edozein ideia azal zitekeela erakusteko” (Irujo, 2009: 79). Ez zen, hortaz, hitz berriak beste hizkuntzetatik ekarri zale, ezta hitz berriak asmatu zale ere. Hona hemen Ixaka Lopez Mendizabali idatzirikoa, *Hamleten* itzulpenaren harira: “Como verá Ud. empleo el dialecto guipuzcoano completado con algunas modalidades de otro y léxico de todos. He procurado poner en circulación el mayor número posible de palabras castizas huyendo por igual, y en lo posible de neologismos y erderismos; creo que de los primeros hay poquísimos y de los segundos, los menos posibles” (Irujo, 2009: 82).

Hamleten kasuan, eskuizkribua Ixaka Lopez Mendizabalek irakurri zuen, euskarari zegozkion zuzenketa eta oharrak egiteko. Ametzagak hari idatziriko gutun batean

zioenez, “eskerrak ematen dizkizut nire *Hamleten* irakurtaldienatik, baita gogo berotu didan zure iritzi atseginarengatik ere. Itz berriak edo gutxi oituak diostazunari buruz ez dakit zer egin oraindik. Batetik ongi derizkiot argitze orri; bearrezkoa ere badirudi batzutan; bestetik, ordea, liburua zerbait itsustutzen dula uste dut eta gaiñera, biurpen bat izanik, badute ingeleraz dakiten irakurleek Shakespeareren idatzia, ta Bidasoaz emendiko ta andiko euskaldunek españerako ta prantzerazko itzulpenak aien bidez edozein itz naiz idaztune illun argitzeko” (Irujo, 2009: 66).

Euskara baturik ezean, eta euskara idatzira ohitu gabeko irakurleak zirenez nagusi, jatorriz euskaraz sortu edota euskarara itzuliriko testuak apalak eta irakurle horietara egokituak izan behar zutela uste zuenik ere bazen. Jose Antonio Agirre lehendakariak, adibidez, jendeak ulertzeko moduko euskara apalean idazteko gomendioa egin zion Ametzagari, garrantzitsuago iritzita jende gehiagorengana iristea, euskara jasoan lantzea baino (Irujo, 2009: 82). Dena den, ez zirudien asmo hori zuenik Ametzagak, izan ere, literatura unibertsaleko lanak gureratzeko ahalegina egin zuen bere itzulpenen bitartez, eta, bide batez, euskara osatu bat gorpuzteko oinarriak ezarri zituen. *Platero eta biok* argitaratu zuenean (1953), Orixek Ametzagari idatziz zion esanez itzulpena ez zuela gustuko: “Adiskide on, berandu iritxi zan ‘Platero y yo’ eta ni, zahartu egin naiz. Aukera txarra egin duzu itzulteko. Hainbeste zearotasun eta politikeri, bein esan, tankera ori, ez dagokio euskerari. Erditsu bat irakurri nendun eta aspertu nindun. Tamala!” (Irujo eta Irigoyen, 2014: 32-33). Badirudi erabili zuen

9. Orixek Bingen Ametzagari 1954ko maiatzaren 25ean bidaliriko gutunean.

euskara jaso ez zuela gustuko izan Orixek. Ametzagak, ordea, kontrako iritzia zuen: “[...] tamala ‘Platero ta biok’ zuri eder ez izatea. Egia da ‘floritura’ aski badula, baiña, nire aburuz, guzitariko lurretan landatu bear ditugu euskal aldaskak¹⁰” (Irujo eta Irigoyen, 2014: 33). *Platero eta biok* liburuan eginiko lanagatik eskertza eta laudorio hitzak ere jaso zituen itzultzaileak beste hainbat idazle eta euskaltzaleren eskutik, hala nola Ibiñagabeitia, Jon Mirande edo Koldo Mitxelenaen eskutik (Irujo eta Irigoyen, 2014). Guztiek iritzi zioten euskara jaso lantzea egokia ez ezik beharrezkoa ere bazela.

Uda gau bateko ametsa lanaren itzulpena

Seguru-seguru ezin jakin daitekeen arren, adituek diotenez 1595-1596an sortu zuen Shakespearek *A Midsummer-Night’s Dream* komedia, Ametzagaren itzulpen lana 350 bat urtera edo sortu zen, eta ordurako klasiko handi zen autorea. Duela mende erdi sorturiko itzulpena gaur egungo begiez aztertzerakoan, gogoan izan behar dugu orduko itzultzaileek ez zutela inondik ere eskura azken urte luzeetan egin izan den Shakespeareren lanaren inguruko ikerketarik. Eta, noski, itzulpena sortu zen garaia eta egoera zer nolakoak ziren gogoratu behar ditugu. Itzultzaileek eskura zituzten baliabideak oso urriak ziren, jatorrizko testua besterik ez zutela ekiten zioten lanari, gehienez ere hiztegiaren bat edo beste lagun hartuta. Erbestean egonik, beste hainbat itzultzaile zein idazlerekiko harremanean aritzeko zailtasunak zituzten, eta euren arteko zalantza argitzeak edo kontsultak epe luzera egin behar izaten ziren. Euskara

10. Ametzagak Orixeri 1954ko abuztuaren 17an bidaliriko gutuna.

finkatu gabe batekin lanean aritu beharra ere erronka handia zen. Ezin ahaztu horiek guztiak Ametzagak eginiko itzulpena gaurko egunetik aztertzerakoan eta, hortaz, egin zuen lanari ikaragarritzko meritua aitortu behar zaio.

Shakespeareren lana itzultzeak nahikoa buruhauste ekarri zion Ametzagari. Garaiko baliabideak eskura, ez zen ez lan samurra izan *Hamleti* aurre egitea. Aurrez esan dugun moduan, lehen itzulpen haren ostean, askoz ere ari-nagoa suertatu zitzaion hurrengo lana:

Esto de traductor, cuando uno quiere serlo a conciencia, me parece que es uno de los oficios más ingratos y deslucidos que los hombres hayan inventado; esto en general. Pero cuando la cosa se particulariza y se concreta en nuestro idioma resulta peor aún. Sin embargo, tengo que agradecer a esta dura labor que representó la traducción de *Hamlet* el haber conseguido resolver cantidad de problemas que flotaban en mi espíritu y, principalmente, el haberme decidido ya firmemente y sin titubeos por la elección del dialecto literario que ha de hacer de nuestro idioma un vehículo de cultura cosa ésta que ha de hacerse rápida y definitivamente antes de que el verbo racial se nos vaya de entre las manos. También le tengo que agradecer el que me haya servido grandemente para hacerme la mano a otras cosas ya hechas o por hacer. Por ejemplo, la traducción de *El sueño de una noche de verano* que lo concluí hace unos días y que ha sido para mí un juego de niños en comparación con *Hamlet*; claro que intrínsecamente, hay una gran diferencia entre las dificultades que una y otra obra presentan¹¹ (Irujo, 2009: 79-80).

Jatorri-jatorrizko ingelesezko bertsoian testua soila bada ere, Ametzagak sorturiko euskarazko bertsoian ako-

11. Bingen Ametzagak Pello Mari Irujori igorritako gutuna, Montevideon, 1952ko abenduaren 18an.

tazioak ageri dira. Ondorioz, hark baliaturiko ingelesezko testuak akotaziodun bertsioren bat behar du izan. Shakespeareren antzezlan honen ingelesezko bertzio ugari topa liteke, eta bertsiotik bertsiora aldeak nabari dira. Ez gara gai izan Ametzagak baliatu zuen bertzio finkoa topatzeko, baina badirudi 1911n Oxford University Pressek argitaraturiko *The Complete Works of William Shakespeare with a General Introduction by Algernon Charles Swinburne* izan zela.

Shakespeareren lanen artean, antzerki kutsurik handiena dutenatarikoa dugu *Uda gau bateko ametsa*. Eta antzerki-lana den heinean, ahozko literatura modura begiratu beharko genioke, bere-bereak dituen ezaugarriak gogoan izanik. Egia esan, zerikusi gutxi du obra honek Shakespeareren beste lan batzuekin. Antzezlanaren barruan bada beste antzezlan bat eta, nolabait, parodiazko irudia txertatzen da horren bitartez. Era berean, antzezpen eta ipuin hitzak nahastu egiten dira obra honetan, baita amets eta ipuin kontzeptuak ere. Irudimen eta fantasia handiko obra dugu *Uda gau bateko ametsa*, nahiz eta errealista ere baden zentzu batean. Parodia modura sailkatuko genuke endredoizko komedia hau, komedia karnabalesko hau.

Grezian gertatzen da kontakizuna, Atenasen hain zuzen. Teseo eta Ipolite nobleak ezkontzear dira; ezkontzaren prestalanekin emango zaio hasiera istorioari, eta horren inguruan etorriko dira gainerako gertakariak ere. Ermi, Demetir, Elene eta Lisander nobleen amodio korapiloek emango diote segida lehen agerraldi horri, haien arteko arazoak konpontzeko eskatuko baitio Ermiren aita Aigeuk Teseori. Maitasun korapilo horiek osatuko dute istorioaren ardatzetariko bat, eta horiek konpondu nahian ariko dira plano fantastikoan kokatzen diren maitagarriak

ere. Horrez gain, Atenasko eskulangile koadrila bat ere ageri da kontakizunean, Teseoren eta Ipoliteren ezkontza egunean ezkonberriei antzezlan bat eskaintzea izango duena helburu. Antzezlan horren entseguen gorabeheren berri ere izango du irakurleak. Istorio batzuk besteekin nahastuko dira kontakizunean zehar, eta komedia kutsu nabarmena hartuko du obrak zenbaitetan.

A Midsummer-Night's Dream antzezlanak Shakespearen lanen artean, proportzioz, bertso-lerro gehien dituenetarikoa dugu. Izan ere, komedia horren zati ugari hitz neurtuz ageri dira. Shakespearek testuan bertso mota ezberdinak darabiltza. Nolabait, badira bertso dramatikoak, antzerkirako erabiltzen direnak; eta badira bertso poetikoak ere, aurrekoen aldean poesia kutsu handiagoa dutenak. Bertso dramatikoari dagokionez, antzezlan honetan zuriak zein errimatuak topa litezke. Shakespearek ohikoa duen arren bertso-lerro zurien erabilera, bertso-lerro errimatu ugari dugu testu honetan, bi lerroka errimatzen dutenak. Erronka handia da edonorentzat hitz neurtu errimatu zein errima gabeak bere horretan xede hizkuntzara ekartzea. Hortaz, eta garaian hain arraroa ez zen moduan, ingelesez neurtitzetan ageri diren bertso dramatikoak –antzezlanaren zatirik handiena– hitz lauz eman zituen Ametzagak. Hori dugu itzulpenean ikus daitekeen ezaugarriarik behinena¹². Hortaz, bertsoen luze-laburrek emango

12. Nahiz eta esku artean dugun antzezlanean jatorriz neurtitzez zegoen testua hitz laura igaro zuen Ametzagak, beste hainbat itzulpen neurtitzez eman zituen. Horren erakusgarri dugu, esaterako, *Rubaiyat of Omar Khayyam* lana, 1953an argitaratua. Honela dio itzultzaileak: “Neurtitzez egin dut yakiña ta ahapaldiak biribil atera zaizkit. Nik uste, ta euskal-loretegirako pitxiak lirakelakoan nauzu” (Irujo, 2009: 57). Oscar Wilderen *Reading baitegiko leloa* ere hitz neurtuz eman zuen argitara 1954an *Euzko-Gogoan*, lau orrialdeko poema. Halaber, *Egan* aldizkarian argitaraturiko lan gehienak poesia lanak izan ziren (Irujo, 2009: 63).

lituzketen arazoak saihestu zituen, baita errima bilaketak ere. Nabarmentzekoa da, hala ere, bertso dramatikoak eta poetikoak bereizteko Ametzagak eginiko ahalegina. Hizkera bera lantzeaz gain, formari dagokionez ere hitz neurtuz irakur litezke bertso dramatikoak euskaraz. Hona hemen, esaterako bertso poetiko baten adibidea, istorioaren amaiera aldera irakur litekeena:

PUCK: Orain leoi gosa orroaka ari da
 ta otsoak yulu egiten dio illargiari;
 lo zurrunkaz dagoiño lugin nekatua,
 bere lan gogorraren pean akiturik.
 Orain illeti-ondoek zart egiten dute,
 gau-ontzak karraisika, larritasunean
 dagoan gaisoari il-jantzi zuriaren
 oroitzapena ekarten dion bitartean.
 Orain, gau ordu ontan, illobiek oro
 aoak zabalduen ditute orroaka,
 dutela irten-erazten zeiniek bere iratxo
 illerriko indan barna zirrist dagiana.
 Ta Hekate irukoitzaren gurdian ondoan
 gabiltzan gu mamuok, eguzki begitik
 beti igesean eta, amets baten gisan
 illunaren lagunak, orain gera pozik.
 Sagu batek ere ez du nastu eraziko
 etxe bedeinkatu au. Aurretik bidaldu
 naute, itsuskia eskuan, nator atosteko
 auts zikindu guzia dezadan itsastu

(Ametzaga, 2015: 137).

Hitz neurtua hitz lauz eman zuenez Ametzagak, Shakespearek horrekin jolas egiten duenean, jolas hori galdu egingo da euskarazkoan. Esaterako, pasarte batean, Ermi eta Elene lagun minak elkarrekin haserretuko dira. Ermiz maitemindurik zegoen Lisanderrek bat-batean Elene izango

duelako gogoko. Haserretzen diren unean, errima galduko dute euren jardunean eta, noski, joko hori erabat galdua geratuko da hitz lauz eta errima gabe eginiko itzulpenean.

Orotara, hiru planotako pertsonaiak eta gertakizunak ageri dira antzezlan honetan: basoko iratxo edo maitagarriak ditugu batetik, bestetik nobleak, eta azkenik Atenasko eskulangileak. Lehenengoak plano fantastikoan kokatzen dira, eta ingeles tradizioko pertsonaia tradizionalen antza handia dutela esan liteke. Nobleak eta eskulangileak, berriz, plano errealago batetan kokatzen dira. Nahiz eta Atenasen kokatu istorioa, pertsonaiek ingeles tradizioko ezaugarriak dituzte. Mota bakoitzeko pertsonaiek ezaugarri jakinak dituzte, eta hitz egiteko modua ere aldatu egiten da batzuetatik besteetara. Eskulangileek hizkuntza nahiko arrunta darabilte, eta hitz lauz hitz egiten dute, hanka-sartzeak eginez tarteka (darabilten diskurtoan hitz jasoagoren bat tartekatu nahian, adibidez) edo zabar samar hitz eginez¹³; maitagarriek eta nobleek, berriz, estilo deklamatorioa darabilte, eta gehienetan hitz neurtuz jarduten dira. Hitz neurturik, neurri finkorik edo errimarik ageri ez denetan ere, argi ikusten da darabiltena ez dela prosa arrunta. Pertsonaia mota bakoitzaren jardunak erregistroa markatzen du jatorrizkoan, pertsonaia bakoitzaren kategoria. Efektu hori bilatu zuen Shakespearek pertsonaien karakterizazioan, eta esan liteke obraren indarguneetariko bat dela. Ezaugarri horien artean, forma eta edukiaren artean nolabaiteko loturarik bada. Tonu aldaketa hori mantentzea garrantzitsua izango da, hortaz, jatorrizkoaren

13. Maila jasoagoan hitz egin nahiak sorrarazten ditu, sarritan, egiten dituzten akatsak; hiztegi aberatsa dutela erakutsi nahiak, nahiz eta nabarmen geratu ahalegin horretan.

plano ezberdin horiek islatze aldera. Ingelesezko testuan hain nabarmen ikusten diren ezaugarri horiek galdu egin dira nolabait Ametzagaren itzulpenean formari dagokionez. Izan ere, pertsonaia guztien jarduna hitz lauz jarrita, neutralizaturik ageri dira batzuen eta besteen hitz egiteko moldean egon daitezkeen aldeak, ez baita bereizketarik nabari pertsonaia batzuen eta besteen artean. Dena den, tonu deklamatorioa mantentzea lortzen du itzultzaileak, eta honako pasarte hau dugu horren erakusgarri:

OBERON: Badakusk maitale oriek burrukatzeko toki baten billa zebiltzakala. Lastertu adi, ba, Errobin, egizu gaua illunago. Estal ezak arin zeru izartsua laino itsuz, Akeront bezain beltza ta bidea galdu eragiek naikide sumindu oriei, elkar arkitu ez dezaketekan. Batzutan Lisanderren mintzura alakotu ta zirika ezaiok Demetirri nausa garratzez; ta bestetan irri egiok Lisanderri, Demetir baintz. Eta orrela alde eragiek bata besteagandik, loak eriotz antzekoak, bere berunezko oiñak eta saguzar egoak aien bekaiñetan jarri ditzan arte. Ordun lauskitu belar au Lisanderren begietan; bere uriñaren eragitez edozein ikusmen uts kendu ta begiak beren oiturazko ariketan itzultzen dituk. Esnatu ditezenean narrita guzi au, amets bat, ikuskari uts bat iduriko zazkiek eta maitaleak Ate-naira joko ditek berriz eriotzera arte amaituko ez dukan loturaz batuta. Egiteko ortan ari aizen artean erregiñagana joango nauk eta aren mutil iditarra eskatuko ziokat. Mamu orren zoragarria kenduko diñat begietatik eta bakea orotan izango diagu berriz.

PUCK: Nire iratxo-errege ori, laster egin bear da ori. Dagoneko gabaren irantsugeak baitoaz ego arin odeiak ebakitzen eta an bean Ortzargiaren aintzindariak dirdiratzten du; onen urbiltzeaz orron dabiltzan iratxoak itzultzen dira parrastaka illerrietara; bidarte ta uñetan eortzitako

arima madarikatuak dira guziak, arrez josiriko beren illobietara dioazenak. Egunal aien laidoa erakutsi dezan beldurrarren, argia oldez uzten dute ta gau kopetillunaz elkartzen dira betiko (Ametzaga, 2015: 108-109).

Nahiz eta Ametzagaren testuan bertsoak prosaz agertu, nahiz eta errimarik ez den ageri euskarazkoan, badu erritmorik testuak, ahoz gora esateko moduko itzulpena osatu baitzuen Ametzagak.

Kontakizunean ageri diren pertsonaien izenei dago-kienez, istorioan bi motatako izenak ageri zaizkigu: izen motibatu gabeak, hau da, zentzu jakinik ez dutenak, eta motibatuak edo iradokitzaileak, hots, izena duen horren ezaugarriren bat nabarmentzen dutenak (Barros Ochoa, 1996-1997: 57). Barros Ochoak bi multzotan banatzen ditu antzezlanean ageri diren pertsonaien izenak. Lehenengo multzoan ageri dira jauntxoek eta nobleen izenak, bai eta iratxoek errege-erreginak ere. Dena den, ezaugarri jakinei erreferentziarik egiten ez bazaie ere, ezin uka Shakespearek beste hainbat lanetako pertsonaien oihartzuna bilatu nahi izan zuela. Hona hemen Ametzagak nobleen izenen inguruan dioena antzezlanaren sarreran:

Oi bezela Shakespearek ixtori zarretan artu du gaia –antzerki ontarako Plutarken “Teseuren bizitza”, Chauceren “Knights Tale” ta Obidiren “Metamorphosis” batez ere–, baiña gero bere erara, au kendu ori ipiñi, bere etorri ta asma-indarrari bakarrik jarraitu zaio. Onela antzerki ontan izenak grezitarrak dira bai, baiña besterik ez. Ezer ez da klasiku emen, guzia erromantiku ta Elisabete-arokoa dugu (Ametzaga, 2015: 55).

Jarraian, berriz, iratxoek errege-erreginen izenei buruzko azalpena irakur liteke: “Oberon, mamuen erregea, ‘Book of Duke Huon of Bordeaux’ deritzan liburu

zarretik artua da, ta Titani, berriz, Shakespeareren aldian mamuen erregiñatzat jotzen zuten. Diana jainkosaren deitura bat da¹⁴” (Ametzaga, 2015: 56).

Izen berezi iradokitzaileen artean, berriz, arloteak eta iratxoak topatuko ditugu. Lehenengoak izen-abizenez aurkezten dira, eta bakoitzaren abizenak ezaugarri fisikoren bati edo lanbideari egiten dio erreferentzia (Barrios Ochoa: 70). Guztiak ere ingelesetik euskarara ekarri zituen Ametzagak, jatorrizko izenek zituzten ñabardurak jaso nahian. Hona hemen langileen izenak: Peru Txirlora, Nikola Tuta, Patxi Txirul, Erruperta Gosekil, Toma Mutur eta Laztabin. Oberon eta Titaniren jarraigoa osatzen duten iratxoen izenei dagokienez, berriz, Shakespearek asmatuak dira gehienak eta euren tamaina txikiari egiten diote erreferentzia, bai eta euren bizileku duten naturari edo herri-medizinari (Barrios Ochoa: 66). Honakoak ditugu: Illar-lore, Armiar-masare, Sits eta Yeben-azi. Bada bosgarren iratxo bat ere, Puck edo Errobin Mutil Ona deiturikoa, istorioan presentzia handiena duena, hain zuzen ere. Ametzagaren hitzetan “Puck edo Errobin Lagun ona, oso ezaguna da etxe-iratxo oker bat bezala Ingelendako erri-jakintzan” (Ametzaga, 2015: 56). Izan ere, tradizio luzea du Ingalaterrako herri kulturaren. Barrios Ochoak dioenez, izen berezi modura tratatu izan bada ere, Puck berez iratxoari deitzeko izen arrunta da ingelesez. Alabaina, izen berezi modura igaro da hainbat hizkuntzatarara itzulpenen bitartez eta Ametzagaren lanean ere izen berezi modura ikus dezakegu.

Lehentxeago aipatu dugun moduan, euskara batu baterako bidea egiten ahalegindu zen Ametzaga, gipuzkera

14. Barrios Ochoaren lanean are azalpen zabalagoa irakur liteke horien jatorriaren inguruan (Barrios Ochoa: 65-66).

osotua deitzen duena baliatuz. Horrez gain, gainerako euskalkien eragina ere hor dago. Batetik, hiztegi aldetik, bizkaierazko zenbait hitz ageri dira (berakatz, itxungi, kirikiño, eroan, ostera ere, eta abar), itzultzailearen jatorria bera nabarmentzen dutenak, ez baitugu ahaztu behar Ametzaga bera algortarra zela. Bada, bestalde, Iparraldeko hizkeraren arrastorik ere. Azken batean, Ametzagak ongi ezagutzen zituen euskaraz idatziriko lanak, eta tradizio horretan lapurteraren eragina nabarmena da lan haietan. Bestalde, neologismo eta kultismoak bazter uzteko erabaki irmoa zuen itzultzaileak, aurretik ikusi dugunez, eta nabarmena da jatortasuna hobesten duela.

Testura joanez, nabarmena da hitanoaren erabilera pertsonaien artean. Zenbaitetan nahiko nahasgarria izan daiteke, zuka eta hika tartekatzen baititu elkarrizketa berean. Bestalde, gaurko gure begietatik arraroa suerta liteke maila jakineko pertsonaiak hikaz aritzea (maitagarrien erregina, Titani, kasu), eta oraindik arraroagoa egiten da nagusiari hitz egiterakoan erabiltzea. Ondorengo adibidean Puckek Oberon bere nagusiari egiten dion moduan, esaterako:

PUCK: Ez izan beldur, nagusi. Ire jopuak onelaxe egingo dik.

Dena den, euskal literatura idatziaren tradizioa joz gero, ez genuke halakoekin harritu beharrik izango. Jainkoari ere hikaz egin izan zaio; ikus Leizarragaren testuak, esaterako. Hala ere, “joera hikatzailea salbuespena besterik ez da gure hizkuntzaren literatur tradizioan”¹⁵. Behetik

15. Sareko Euskal Gramatikaren arabera, “gaur egungo euskaldungoarengan, agian hemengo elizaren mendeetako arau zukazale orokorraren ondorioz, erabat sustraituta dago zukako usarioa”.

gorako norabide horretan, hortaz, hitanoaren erabileraren presentzia hor dagoela esan daiteke.

Itzulpen-prozesuari dagozkion bereizgarriekin jarraituz, itzultzaileak nahikoa buruhauste izan zuela esango genuke hitz joko zenbaitekin, jatorrizkoan badira-eta grazia berezia eragiten duten pasarteak. Horiei aurre egitea ez da, baina, erraza beti. Adibidez, langileak antzerki pieza prestatzen ari direlarik, hitz ponposoak sartu nahi dituzte, eta hanka-sartzeak egiten dituzte saiakera horretan. Kasu batean, Tuta edo Bottom pertsonaia falta zaielarik antzerkiaren entseguan, hari erreferentzia eginez Txirlora edo Quince pertsonaiak *paramour* esaten du ingelesez (amorantea), *paragon* esan beharrean (eredu). Jarraian ikus liteke jolas hori:

QUINCE. *Yea, and the best person too: and he is a very paramour for a sweet voice.*

FLUTE. *You must say paragon: a paramour is, God bless us, a thing of naught.*

Euskarazkoan *eredu* eta *eremu* hitzen arteko nahasketa proposatzen du itzultzaileak hitz-jokoa mantentzeko, baina konponbide horretan ingelesezko testuak zuen grazia galdu egingo da¹⁶.

TXIRLORA: Bai ta iduri onenekoa ere; ta bere mintzuras eremua da.

TXIRUL: “Eredua” esan bear duzu; eremua, Jainkoak lagun dagigula! gauza larria da.

16. Euskarara eginiko beste bi itzulpenetan itzultzaileek topaturiko konponbideei begira, Larrakoetxearen bertsioan Txirlorak (Irasagar izena duenak han) *alango* “galantik” dio, eta *alako* “gizonik beharko lukeela” esaten diote. Juan Garziaren itzulpenean, berriz, *gutziz* “*eredugarria*” dela esaten du Irasagar izena eman dion pertsonaiak, eta “*eredugarria*” beharko lukeela zuzentzen diote.

Hitz-jokoekin jarraituz, beste kasu batean, eskulan-gileak nobleen aurrean antzerkia erakusten ari direlarik, Tuta antzezten ari den Piramu pertsonaiak Tisbe bere maitalea lotan ikusten du, baina hilda dagoela iruditzen zaio. Eta, hura gabe ezin bizirik, bere buruaz beste egitea erabakitzen du. Hona hemen Piramuren azken hitzak:

PYRAMUS. *O! wherefore, Nature, didst thou lions frame?
 Since lion vile hath here deflower'd my dear?
 Which is—no, now which was the fairest dame
 That liv'd, that lov'd, that lik'd, that look'd with cheer.
 Come, tears, confound;
 Out, sword, and wound
 The pap of Pyramus:
 Ay, that left pap,
 Where heart doth hop:
 Thus die I, thus, thus, thus. [Stabs himself.
 Now am I dead,
 Now am I fled;
 My soul is in the sky:
 Tongue, lose thy light!
 Moon, take thy flight! [Exit MOONSHINE
 Now die, die, die, die, die. [Dies.*

DEMETRIUS. *No die, but an ace, for him; for he is but one.*

LYSANDER. *Less than an ace, man, for he is dead; he is nothing.*

THESEUS. *With the help of a surgeon, he might yet recover, and prove an ass.*

PIRAMU: Ene, Izadia, zergatik sortu al ukan leoia?

Leoi zital, uzu batek maitea dik orbandu,
 dukana –oi! ez– ukana, bizi, maite ta poztu
 eta aurpegi on ipiñi zian andre ederrena.
 Ots, negarrak, ni ondatu,

ea, ezpata, zauritu,
 Piramuren titia!
 Bai, eskerreko aldean,
 biotz au, aren pean
 ari baituk taupakan.
 Eta iltzen nauk onela,
 onela, onela, onela.
 (*Bere burua sakaitzen du*)
 Illa nauk dagoneko,
 igesia onezkero,
 goian diat arima.
 Mingain, gal ire argia!
 Illargi, oa iges egiten!
 Orain iltzen nauk, iltzen, iltzen, iltzen!

DEMETIR: Iltzen bat dauka buruan. Nork aterako?

LISANDER: Iñork ez, il da ta; orain ez du ezer.

TESEU: Sendagille baten laguntzaz baliteke osatu ta berriro zertu.

Amaierako ahapaldian *Now die, die, die, die* dio Piramuk, heriotzaren iragarle. Ingeleseztik *die* hitzak “dadao” ere adierazten du, hiltzeaz gain, eta horrekin jostatzen da Shakespeare. Antzezlanaren ikusten ari den Demetir nobleak, antzezlariei barre eginez, “dadao” baino “bateko” (*ace*) soilak dela diosku, eta Lisanderrek erantzuten bat baino gutxiago dela, hutsa (*nothing*). Gero, Teseuk *ace* (bateko) eta *ass* (asto) hitzen arteko jokoa egingo du, aurrez astoburua jantzita izan baitu Tutak obraren beste pasarte batean. Euskarazkoan nola irudikatu hori guztia? Ametzagak guztiz aldatu du dadoari eginiko erreferentzia eta homofono baten bila jo du, euskaraz ere hitz jokoa sortu nahian. Goian ikus dezakegun moduan, “iltzen, iltzen,

iltzen” esaten du Piramuk, eta buruan iltzeren bat ote duen galdetzen du Demetirrek¹⁷.

Ez dakigu oso garbi Ametzagak zein irakurlego mota zuen gogoan, edo irakurlearengan pentsatu ote zuen ere. Lehen esan dugun moduan, euskara aberastea zuen xede, euskal literatura goratzeko asmoa literatur lan aberatsak eta entzutetsuak geureratuz. Garbi zuen horretarako euskara bat eta bakarra beharko zela, Euskal Herriko edozein txokotako irakurlea bere testura gerturatzeko. Dena den, borrokan aritu behar izan zuen lan horretan, garaian garaiko arazoei aurre eginez: euskalkien banaketa, baturik eza, neologismo edo kultismotarako joera. Hizkuntza jatorregia ere ezin hautatu sarri, hiztegi markatuegira jotzeko arriskua baitzegoen. Bateko zein besteko hiztegia erabiliz, baina, batzuentzat eta besteentzat ezezagunak ziren hitzak txertatuz irakurlea uxatzeko arriskua ere bazuen. Ezin uka, aterpe bakarraren bilaketak zekartzan zailtasunak. Garai hartako beste hainbat itzultzailearen modura euskara goratzeko ahalegina zuen helburu nagusi, eta besterik ezean, itzulpen programatikoa egin zuen: euskara salbatzeko literatura unibertsala geureratu, eta horretan jarri ahalegina.

Emaitzari erreparatuta, nahiko testu exigentea sortu zuela esan liteke. Hau da, irakurleari lan aktiboa eskatzen dio; hitz bati ematen dion zentzua ulertzeko, lanketa egin behar da zenbaitetan. Klasiko gehiegirik ez zegoen garai

17. Euskarara eginiko beste bi bertsioetan zer jartzen duen ikustea ere interesgarria da. Larrakoetxeak, adibidez, ezinezkotzat jo du pasarte hori itzultzea eta ohar bat gehitu du parentesi artean. Pertsonaia hil dela esan ostean, honakoa gaineratzen du: “Emen Dimitir’ek diñona itz yoko utza da-ta, ez euzkerara, ez beste izkuntzetara ezin aldatu leiteke. Bego, ba” (Larrakoetxea, 1974: 314). Juan Garziak, berriz, dadoari erreferentzia mantendu egin du. “Hil, bada, hil, hil, hil” esan eta gero, “‘Bada’ ez ‘bata’ horra irten horri” esaten du, beste mota bateko konponbidea bilatuz (Garzia, 2014: 70).

hartan eta, gainera, ez ziren hain ezagunak. Hori guztia dela eta, Ametzagaren helbururik behinenak euskara aberastea eta euskal literatura goratzea izan zirela esango genuke, gehiegi neurtu gabe euskaraz irakurtzera ohiturik ez zegoen irakurleari eskaintzen zion testua sortzen ari zela.

Shakespeareren lanari miresmen handia izan zion Ametzagak, eta pena handia da egin zuen lan eskergak argirik ikusi ez izana oraino. Sortu zenetik hirurogei urte igaro ondoren argitaratu da antzerki-lan hau. Xabier Irujo Ametzagak, Bingen Ametzagaren bilobak, EIZIERi eskaini dizkio esku haren hiru itzulpen argitaragabeak (bai *Uda gau bateko ametsa*, eta bai *Macbeth* eta *Juli Kaisar* ere), horiek euskal irakurleari eskaintzeko asmoz. Gure esker ona adierazi nahi diogu honen bitartez hari, bai testuak guregana helarazteagatik eta baita horiek argitaratzeko proposamena egiteagatik ere. *Itzultzaile aitzindariak* bildumaren baitan plazaratu nahi izan dugu *Uda gau bateko ametsa* lanaren itzulpena, Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren bulegoarekin elkarlanean eta Getxoko Udalaren laguntzaz. Izan bedi, bada, irakurlearen gozagarri.

Eskuizkribuaren inguruko azalpena

Idazmakinez papereratu zuen itzulpena Ametzagak. Aurretik esan dugun moduan, 1952an idatzi ondoren, hainbat aldiz berrikusi zuen berau hurrengo bi urteetan. Eta anaiari 1968an idatziriko gutunean aipatzen zionez, azken orrazketa bat egiteko asmoa zuen. Ezin dugu ziur esan halakorik egitera iritsi ote zen, gutun hura idatzi eta hilabete gutxira hil baitzen Ametzaga. Hortaz, esku artean dugun testu hau hark idatziriko eskuizkribua du oinarrian,

eta ezin jakin argitalpena egiteko berrikusketa gehiagorik egingo ziokeen itzulpenari.

Eskuizkribua haren familiaren eskuetan geratu zen eta, hain zuzen, Xabier Irujo Ametzaga bilobak egin du transkripzioa, eta hura jarri da EIZIErekin harremanetan testua argitaratzeko asmoz. Transkripzio hori berrikusi, eskuizkribuarekin alderatu eta hona ekartzea izan da gure azken lana, okerrik balego zuzenduz eta forma bateratua emateko asmoz. Testua idatzi zen garaian argitaratu izan balitz bezala plazaratzea izan da gure helburua, ahalik eta aldaketa gutxien txertatuz.

Makinaz eginiko bertsioan, badira akats tipografiko zenbait, edizio honetan konpondurik eman nahi izan ditugunak (atrealdi > ateraldi, adibidez). Idazte edo berrikuste prozesuan, Ametzagak berak hainbat zuzenketa txertatu zuen testuan, izan makinaz zein eskuz gehituak, eta horien artean badira guztiz ongi ulertzen ez diren batzuk. Horrez gain, bada orri edo lerro amaiera mozturik ageri duen zatirik. Halako kasu gehienak nahiko erraz zuzendu ahal izan ditugu, baina zalantza kasuak oin-ohar bidez markaturik utzi ditugu testuan. Aipatu akats tipografiko eta ortografikoez gain, izen berezi bat edo beste modu batera baino gehiagotara topa liteke testuan (Demetir/Demitiri; Gosekin/Gosekil; Puck/Puk) eta gehien ageri den moduan jarri dugu.

Bestalde, gipuzkera osotuan idatziriko testua, bere horretan utzi dugu eta ez dugu batura ekarri, Ametzagaren lana bere horretan uztea iruditu baitzaigu egokiena. Hala ere, itzulpena euskara baturik ez zegoen garaian sortua izanik, hainbat kontu grafikoki egokitzea hobetsi dugu. *Itzultzaile aitzindariak* bildumako aurreko ale batean, Charles

Dickensen *Eguarri abestia* liburuari Luzearrek eginiko itzulpenean hain zuzen, Inazio Mujika Iraolak atonduriko sarreran aipatzen diren moldaketa irizpideak baliatu ditugu erreferentzia modura, egokiak iruditu baitzaizkigu gaur egungo irakurlearentzako. Ametzagak idatziriko bertsoa ahalik eta gutxien moldatzen saiatu gara hemen argitaratzeko alabaina, aipatu zuzenketez gain beste hainbat kontu ere moldatu ditugu. Honakoak dira:

- /t/ gangordunak /rr/ bikoitz bihurtu ditugu. Ziu^r, ede^r eta lu^rmutu^r, esaterako.
- izen propioen ondorengo apostrofoak kendu ditugu: Shakespeare'k > Shakespearek.
- Hitz elkarketarako marra eta apostrofoak kendu egin ditugu, gaur egungo arauetara egokituz: ba-dakigu > badakigu, bea^r-bada > bearbada edo ba^rdiogu > badiogu, adibidez.
- Puntuazioari dagokionez, sarritan harridura eta galde-marken ostean puntua gehitzen du, esaldi amaiera adierazteko. Gaur egungo arauetara ekarri eta marka horien osteko puntuak ezabatu egin ditugu.

Ingeleseztako eta euskarazko testuak parez pare aurkeztea izan zen gure lehen asmoa, bien arteko erkaketa lana errazteko. Baina hitz neurtua eta prosazkoa parez pare jarzteak dituen zailtasunak kontuan izanik, eta emaitza egokirik lortu ez dugunez, bata bestearen jarraian topatuko ditu irakurleak euskarazkoa eta ingelesezkoa. Liburuaren amaieran, bestalde, hiztegitxo bat gehitu dugu, gaur egungo euskal irakurlearentzat ezezagunak izan daitezkeen adierak azaltze aldera.

Amaitu aurretik, ez nuke atal hau amaitutzat eman nahi eskerrak eman gabe. Batetik, nire eskerrik beroena Xabier Irujori. Euskal literaturaren eta itzulpenaren baitan halako balioa duen itzulpena esku artean izan eta eskuza-baltasun osoz gure esku uzteagatik, eta baita Bingen Ametzagaren lana ezagutzera emateko asmo honetan gudan jarritako konfiantzagatik ere. Testua EIZIEren eskuetara heltzeko zubi-lana egiteagatik ere eskerrak eman nahi nizkioke Ibon Uribarriri, hark jarri baikintuen harremanetan Xabier Irujo eta biok.

Bestalde, lerro hauen bitartez liburua orrazteko izan dudana laguntza aitortu nahiko nuke. Eskerrak, lehenik, Inazio Mujikari, testua moldatzeko irizpideen inguruko zalantzak argitzen laguntzeagatik eta baita testua zuzentzeagatik ere; Arantzazu Royori, bigarrenik, testuaren orrazketa prozesuan bidaide izateagatik, eta Jose Luis Agoteri, azkenik, maketazio kontuetan eginiko lan eskerbarengatik.

Bibliografia

- Ametzaga, Bingen (2015) Uda gau bateko ametsa. Donostia: EIZIE.
- Anduaga, Pablo (2014) *Benito Larrakoetxea Agirrezabala. Hemen nahiz erbestean euskaltzale (1894-1990)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Barros Ochoa, María (1996-1997) “Los antropónimos de *A midsummer night’s dream* y su traducción al español”, *Archivum: Revista de la Facultad de Filología*, 45-47 liburukia, 57-84 orr.

- Euskara Institutua, EHU, “Barne-bakarrizketa eta beste”,
Sareko Euskal Gramatika (SEG), www.ehu.es/seg.
ISBN: 978-84-693-9891-3
- Garzia Garmendia, Juan (2014) *Uda gau bateko ametsa*.
EIZIE. On-line argitalpena: [http://www.eizie.eus/
uda_ametsa/UGBA2014/ugbaosoa.pdf](http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBA2014/ugbaosoa.pdf).
- Irujo Ametzaga, Xabier (2009) *Itzulpena erbestean. Bingen Ametzagak Ameriketara euskarara eramandako lanak (1938-1968)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Irujo Ametzaga, Xabier eta Irigoyen, Alberto (2014)
“Hitzaurrea. *Platero ta biok* eta euskara erbestean”.
In: Juan Ramón Jiménez, *Platero ta biok*. *Platero y yo*, 11-40.
- Larrakoetxea, Bedita (1974) *William Shakespeare-en antzerki guzti-guztiak – 37 euskeraz*. *Komediak a*.
Tolosa: Librería Técnica de Difusión.
- Literaturaren Zubitegia, Bingen Ametzaga: <http://zubitegia.armiarma.com/?p=ona-292>
- Onaindia, Santi (1977). *Euskal literatura V. 1915-1940*.
Bilbao: Etor liburuak.
- Shakespeareren *Ametsa* biziarazten programa, DSS2016EU
eta EIZIEren artean antolatua. [http://www.eizie.eus/
uda_ametsa/UGBAeus](http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBAeus).

Uda gau bateko ametsa

Bingen Ametzagak euskaratua

Azalpena

Auxe duzu, irakurle, irizleen ustez, Shakespearek sortutako lenbiziko maisu-lana, ots, bere gaztaroko antzerkien artean obetzat jotzen dutena.

Idatzi zuen urtea ez da ziur ezagutzen. Badakigu, ordea, 1595 eta 1598 artean izan zala. Azkeneko urte ortan Southamptoneko kondea, gure poetaren adiskide ta laguntzaillea ezkondu zan Elizabeth Vernonekin, eta jost-irudi au errege jauregiko ezkontza baterako, Elizabete Erregiña bera bearbada izan zan ezkontza baterako idatzia dirudiala ta badira urte ori jaiotalditzat ematen diotenak. Baiña badaude oztopoak uste ortan eta urte batzu lenago sortu zalakoak ziurrago dirudi. Dana dala, lenbiziko irarkaldia 1600garren urtean izan zan.

Egintzaren tokia Atenai dugu, atenaitar usaiñik iñondik artzen ez badiogu ere. Aldi-nasteak edo anakronismuak ugari dabiltz eta erriko nagusi dan Teseu dukea, erdi-mendeko jaun baten gogoaz agertzen zaigu. Oi bezela Shakespearek ixtori zarretan artu du gaia –antzerki ontarako Plutarken “Teseuren bizitza”, Chauceren “Knights Tale” ta Obidiren “Metamorphosis” batez ere–, baiña gero bere erara, au kendu ori ipiñi, bere etorri ta asma-indarrari bakarrik jarraitu zaio. Onela antzerki ontan izenak grezi-tarrak dira bai, baiña besterik ez. Ezer ez da klasiku emen, guzia erromantiku ta Elisabete-arokoa dugu.

Antzerkiaren izenburuak “A Midsummer-Night’s Dream” ura jokatu bearuko luken aldia adirazten digu, ots, Donibane-gaba; iratxo, mamu, maitagarri ta beste mun-

dukoak oro iñoizko bizkorren dabiltzan gau izkutugarria, erri-siñeskerien arauz. Orien artean nagusienak Puck, Oberon eta Titani dira. Puck edo Errobin Lagun ona, oso ezaguna da etxe-iratxo oker bat bezala Ingelendako erri-jakintzan; Oberon, mamuen erregea, “Book of Duke Huon of Bordeaux” deritzan liburu zarretik artua da, ta Titani, berriz, Shakespeareren aldian mamuen erregiñatzat jotzen zuten. Diana jainkosaren deitura bat da.

Antzerkiak iru gai ditu: lenbizikoa, biotz-ukigarria, ots, lau maitale atenaitarren azi-orraziak; bigarrena, arri-garrizkoa, mamuen mundua erakusten diguna, ta irugarrena, parregarrizkoa, langille komerizaleen bizkar dagona, beren izkera mordoillo ta ateraldiekin. Esan genezake ere, zenbait ixtori dauzkala: Teseuren ezkontza, maitale atenaitarrena, Oberon eta Titaniren arteko mokokaldia, ta Piramu ta Tisberen gertakaria: lenengoa da beste gaiñerakoen lokarria.

Crocek esan dunez antzerki txiki onek “parre-zirri batetik jaioa dirudi”. Ez billatu artan aztergai sakonik, ezta ereduzko izakerarik ere. Ori ez da izan emen Shakespeareren asmoa. Baduzute, ordea, amets atsegingarri bat, irudimen-joko arrigarria, biotz-zoramena ta gaztetasunaren betiko poza.

DRAMATIS PERSONAE

TESEU, Atenaiko dukea.

AIGEU, Ermiren aita.

LISANDER, }
DEMETIR, } Ermiz maiteminduak.

PILLOSTATER, Teseuren jai-antolatzaile.

TXIRLORA, zurgina.

LAZTABIN, zubeltxari.

TUTA, eule.

TXIRUL, auspo-adabatzaille.

MUTUR, perzkill.

GOSEKIL, jostun.

IPOLITE, amazonaen erregina, Teseuren emaztegai.

ERMI, Aigeuren alaba. Lisanderrez maitemindua.

ELENE, Demetirrez maitemindua.

OBERON, maitagarrien errege.

TITAN, maitagarrien erregina.

PUCK edo ERROBIN MUTIL ONA, iratxo bat.

ILLAR-LORE,
ARMIARMASARE,
SITS,
YEBEN-AZI. } maitagarriak.

PIRAMU,
TISBE,
ORMA,
ILLARGI-ZURI,
LEOI. } Izkirimiriaren antzezleriak.

Beste Maitagarri batzu, errege ta erreginaren zerbitzariak.

Teseu ta Ipoliteren jarraigoa.

AGERTOKIA.- Atenai ta urbilleko baso bat.

Lenengo atala

LENENGO AGERRALDIA

Atenai. TESEUREN jauregia.

*TESEU, IPOLITE, PILLOSTATER ta jarraigokoak
sartzen dira.*

TESEU: Ipolite eder ori, badugu urbil ezta ordua. Lau zorioneko egunek ilberria ekarriko digute. Zarra, ordea, bai astiro beratzen dala ene irudiz! Nire usteak usteltzen ditu, il gogorra izan ta jabegai gaztearen etorkia ondartzten dun ugazama naiz alargun bat antzo.

IPOLITE: Lau egun laster urtuko dira lau gautan; lau gauek aldia ametsetan igaro-eraziko dute eriosuar, eta ordun illargiak, zeruan makotu berria dan arranbel bat iduri, gure ezkontza gaua argituko du.

TESEU: Zoaz, Pillostater, zirika ezazu gaztedia jolasetarako; iratzarri pozaren gogo bizkor, zailua; oil ezazu goibeltasuna illetara; lagun zurbilla ez dagokio gure jaiari. (*PILLOSTATER irtetzen da*). Ipolite, ezpataz gorte egin nizun, eta gogor egiñez irabazia dut zure biotza; beste era batean, ordea, ezkonduko naiz zurekin, arrandi, txalo ta jai alaiean.

*AIGEU, bere alaba ERMI, LISANDER eta DEMETIR
sartzen dira.*

AIGEU: Zorionak Teseu, gure duke ospetsuari!

TESEU: Anitz esker, Aigeu on ori; zer duk berri?

AIGEU: Banatorkizu, gogo-illun, nire alaba Ermiren aurka salaketa egitera. Aurrera zaitetz, Demetir. Gizon onek, nagusi jauna, badu arekin ezkontzeko nire baimena. Aurrera zaitetz, Lisander; onek, ordea, nire duke ona, nire neskatoaren biotza sorgin-lilluraz jo du. Bai, Lisander, ik, ik egin dizkiok neurtitzak, baita maite-adiguriak elkarri eman ere; illargitan aren leio ondoan gezurrezko maitasun aapaldiak kantatu dituk mintzo iruzurgillez. Ire illezko eskumuturrekoen, ereztunen, txirimirien, zirtzillerien, lore sortaen eta kotxoen bidez— gazte ikasi-gabeekiko mezulari oso indartsuak— seta gogor biurturik ire irudia tinkatu duk, gerizka, aren oldean maltzurkeriz ostu duk ene alabaren biotza, zor zidakana mentasuna seta gogor biurturik. Beraz, ene duke ona, baldin emen zure aurrean, nire alabak Demetirikin ezkontzea onartzen ez badu, Atenaiko berarizko lege zarra eskatzen dut. Nire dut eta ari buruz agindu dezaket; auta beza, beraz, zaldun onen eskua ala eriotza, onelako gertarientarako gure legeak argi agintzen dutenez.

TESEU: Zer diozu, Ermi? Ausnartu ezazu, neska ederra. Zure aita jainko bat bezela izan bear da zuretzat; zure edertasunaren egille bakarra, bai, ta ark eratuta iraun erazi ala ezabatu dezaken ezko irudi bat zera zu arentzat. Demetir aukerako zalduna da.

ERMI: Bai ta Lisander ere.

TESEU: Berez bai; baiña gai ontan zure aitaren baia ez daukalarik, bestea obetsi bear.

ERMI: Nai nuke aitak nire begioen bidez so egitea.

TESEU: Zure begiok, aldiz, aren zentzunaz so egin bear lukete.

ERMI: Barka nazazu, arren, nagusi jauna, Ez dakit zein izkutuko indarrek bekoki ematen didan, ezta ere noraiño dagokion nire begiruneari zure aurrean, jaun aundi ori, nire biotzondoak azaltzea. Eskatzen dizut, ordea, jakin erazi dezaidazula, arren, zer nuke txarrena, baldin Demetirikin ezkontzeari uko egiten badiot.

TESEU: Bizitza galtzea ala gizarteari betiko ukatzea. Beraz, Ermi ederra, galde egiozu zure biotzari, gogotan artu zure gaztetasuna, aztertu zure jaiarak, zure aitaren autatzeari baietza ematen ez badiozu erlijioiko soiñekoa eramateko ta illargi otz, elkorrari eresi motelak abesten bakartegi itzaltsuan aizpa antzu bat bezela betiko izateko gai zera-
nez jakin dezazun. Irutan donetsiak beren griñaen jabe bidezkunde garbi ori jasan dezaketenak. Zoriontsuagoa da, ordea, lurrean bere lurringaia ematen digun larrosa, bere zurtoin ikutu gabeen zimeldurik, bakar-bakarrik azi, bizi ta iltzen dana baiño.

ERMI: Onelaxe azi ta bizi nai dut nire gogoak aren buztarria zapuztu ta jaun eta jabetzat onartu ezin dezaken gizon bati nire nexkatasuna eskaiñi baiño len.

TESEU: Artu astia gogoratzeko; ta urrengo ilberrian, nire emaztegai ta nire arteko betiko lagungoaren korapiloari zildai emango diogun egunean, gertu zaitez iltzera zure aitaren naiari men ez egiteagatik ala Demetirrekin ezkontzera, berak nai dunez, ala Dianeren aldare aurrean betiko neskatasun eta ildura zin egitera.

DEMETIR: Amor eman, Ermi ezti ori, ta txil eragiozu, Lisander, zure asmo zoroari nire eskubide agiriaren aurrean.

LISANDER: Baduzu aitaren maitasuna, Demetir; ezkon zaitez arekin eta utzi ezadazu Ermi.

AIGEU: Lisander aogorri! Izan ere, badu nire maitasuna ta nire maitasunak emango dio nirea dana. Alaba nirea dudanezkero ari buruzko ditudan eskubideak oro ematen dizkiot Demetirri.

LISANDER: Jauna, jaiotzez eta aberastasunez banaiz aren bete. Maitasunez garaia eramaten diot; nire mailla, alde guzietatik, Demetirrena bezain gora edo goragokoa da. Ta arrandi guzi oriek baiño geiagokoa dana Ermi ederrak maitatua naiz. Zergatik, ba, ez diot nire esku-bideari eutsiko? Demetir aren aurpegian agertzen dut, Elene, Nedarren alaba limurtu ta aren biotza irabazi du; ta andere gozo orrek maite-maite du, itsutuki maite du gizon zuzika ta zingabe ori.

TESEU: Aitortzen dut nigana eldu dala zurrumurru ori ta banangoan Demetirri itz egiteko asmotan, baiña neronen azi-orraziz josia, aztu egin zitzaidan. Zatoz, ba, Demetir, bai ta zu ere, Aigeu. Lagun zakizkirate; zenbait oar berezi eman bear dizkizuet bioi. Zuri buruz, Ermi eder ori, gertu zaitez zure naikeria aitaren gogora jartzeko; bestela, iñola ere eztitu ezin dezakegun Atenaiko legeak eriotzera ala betiko nexkatasun eskaintzera galtzen zaitu. Zatoz, Ipolite laztana; nola zaude, ene maite ori? Demetir eta Aigeu, jarrai zakizkirate; nire eztairi buruzko egiteko bat zuei ardurapetu ta zeroi dagokizuen zerbaitetzaz mintzatu bear dut zuekin.

AIGEU: Jarraitzen gatzaizkizu begirunez eta gogotik.

LISANDER eta ERMI ez, beste guztiak irtetzen dira.

LISANDER: Zer dun, ene maitea? Zergatik ire masailak orren zurbil? Zer dunala ta aien arrosak orren laster margultzen ditun?

ERMI: Nire begien ekaitzekin aiek urtatu litzakekan euria gabez, nunbait.

LISANDER: Ai ene! Inoiz ez baitiñat irakurri ez entzun ere ixtori naiz ipuiñetan egizko maitasunaren urbiziak eragozki gabe laster egin diñala. Batzutan jatorrien arteko aldea...

ERMI: Ori oiñazea! Goikoa apalari lotzea!

LISANDER: Beste batzutan urteen artea...

ERMI: Ori elkaitza! Zartasuna gaztetasunaz korapillatu!

LISANDER: Beste batzutan adiskideen¹ autatzea...

ERMI: Ori inpernua! Inoren begiez maitasuna aukeratzea!

LISANDER: Ala aukeratzean naikaria bazegonan, guda, eriotza, eritasuna bazetorkigunan bidera ta orrela maitasuna oiartzun bat bezain igeskorra da, itzal bat bezain igazkorra, amets bat bezain laburra, ta gau illunean zerulurrak zartez argitu ta gizonak “Begira!” esateko aldia izan dezan baiño len illunpearen autzek iresten diten tximista bezain lasterra. Izan ere, gauza distikorrak aienatu-ariñak baititun.

ERMI: Egizko maitaleak beti naigabeak jasan badizkitek, Alabearren lege diñagu ori. Ikas dezagun, ba, atzerapide ori egonarriz eramaten, oiturazko gurutz bat eta maitasunari zegokiokana baita, zorabiatzea, ametsak, asperenak, gurariak eta malkoakin, irudimenaren jarraigo gaisoa.

LISANDER: Burupide zentzuduna. Ori dunala ta entzun nazan, Ermi. Badiñat izeba alargun zar bat, guziz aberatsa ta seme-alabarik ez diñana. Aren etxea Atenaitik

1. Akats tipografikoa: “adiskideen” jartzen zuen jatorrizkoan.

zazpi lekua bide zegon eta bere seme bakartzat natxion. Antxe, Ermi liraiña, irekin ezkondu naiteken eta leku ortan ezin esetsi gaitzaken Atenaiko lege gogorrak. Egitan maite banaun, iges egin biar gabea ire aitaren etxetik. Ire begira egongo naun oianean, iritik lekua bat, bein Orrilla-eguantzaren jai-ekanduak betetzera Elene-kin joan intzan lekuan bertan.

ERMI: Ene Lisander maitea! Zin egiten diat Kupiden arranbel sendoenaz, bere urreantzeko muturdun gezi obeaz, Venusen usoen bakuntasunaz, gogoak elkartu ta maiteak babestu egiten dikan guziaz eta arako troiar ziñausle ura oial beteaz iges egiten ikusi zianean Kartaguko erregiña erretzen zian suaz, gizonek autsiriko zin guzien pean-emakumeen agintza guziak baiño kopurutsuagoak ditukanak— biar, uts egin gabe, batuko naukala irekin esandako lekuan.

LISANDER: Bete ire itza, maitea. Begira, emen diñagu Elene.

ELENE sartzen da.

ERMI: Jainkoak lagun dagiola Elene ederrari. Nora oa?

ELENE: Eder esan didazu? Jan esazu “eder” itz ori. Demetirrek maite du maitasuna zu maitatzean. Ori zorioneko maitasuna! Zure begiak izar biderakusleak dira ta zure mintzoen otseztia larratxoriaren kanta baiño gozoagoa da artzaiñaren belarrirako gariak ernamiñean eta elorriaren kuskua agiri diranean. Eritasunak itsaskorrak dira. Ene, jaiotz-emaia ai balira zureak itsasiko litzaizkiket zu utzi baiño lenago. Nire entzumenak zure aotsa beretuko luke, ene begiak zure soa, nire mingaiñak zurearen otseztia. Mundua nirea balitz, Demetir ez, andarako guzia emango nuke zu bezelakoa izatearren. Oi, ikas ezadazu nola lilluratzen duzun eta nolako arteziz jaurtzen dituzun Demetirren biozkadak!

- ERMI: Beltzuriz so egiten diot eta alaere maite nau.
- ELENE: Oi, irakatsiko al diete zure beltzuriek orrelako antzea nire irriparre!
- ERMI: Biraoka ari natzaio ta berak, berriz, ni jauresten.
- ELENE: Nire arrenek maitasun ori lortu al balezate!
- ERMI: Nik ura gorrotatzenago ta ura nire alborago.
- ELENE: Nik ura maiteago, ta ark ni gorrotoago.
- ERMI: Aren erotasuna, Elene, ez da nire erru.
- ELENE: Ez, baiña, zure edertasuna da. Ai banintz nirea erru ori!
- ERMI: Poztu zaitez; ez du nire aurpegia berriz ikusiko. Lisander eta biok iges egingo dugu toki auetatik. Lisander ezagun baiño lenago, Atenai parabisu bat iruditzen zitzaidan. Begira nire maitasunak egin dun sorginkeria: zeru bat suleze biurtu du.
- LISANDER: Elene, gure asmoak ageri egiten dizkizugu. Biar gabeen, eguzkiak², soropil-orriak urezko pitxiz apaindurik, bere zillarrezko aurpegia itsas-ufiñetako beiran betetsiko dunean –maitarien igeserako berebizko ordua– Atenaiko atea itzalgaizka igarotzea erabaki dugu.
- ERMI: Ta basoan, arrosazko oe apalen gaiñean etziñik, zu ta ni gure biotzak aien neke gozoetatik arintzen ari giñan toki artan, Lisander eta biok elkarganatuko gera. Ta andik, Atenai aldetik begiak aldendu ta, adiskide berriak eta beste laguntza bat billatuko ditugu. Agur, nire aurtzaroko lagun ezta! Otoi egin gure alde ta zori onak gerta dezaizula zure Demetir! Bete ezazu zure agin-

2. “Eguzkiak” jartzen duela ematen du, baina gainetik beste zerbait ageri da. Ingelesezko testuan “Phoebe” jartzen du, hau da, Greziako mitologiako pertsonaia, ilargiarekin lotu izan dena.

tza, Lisander. Biar gaberdirarte gure begiak maitarien janariaz gabetu bear ditugu.

ERMI irtetzen da.

LISANDER: Onelaxe izango da, Ermi laztana. Agur, Elene: Maite izango al zaitu Demetirrek zuk ura bezainbeste. (*Irtetzen da*).

ELENE: Bai dirala batzu beste batzu baiño zoriontsuagoak! Banaukate Atenai osoan Ermiren ainbatekotzat edertasunez, baiña zer egin dezaket orrekin? Demetirrek ez du orrelako usterik. Berak ez, beste guziak ezagutzen dutena ez du ezagutu nai. Ta ura Ermiren begiek lilluraturuta uts egiten dun bezelaxe, nik ere bai aren tasunez itsuturik. Gauza zakar, bekoak aintzako³ ta garai biurtu dezaken maitasunak. Maitasunak ez du begien bidez ikusten gogoaz baizik eta onetxegatik itsu irudikatzen dute beti Kupi egoduna. Maitasunaren gogoan sentzuren aztarnarik ez dago. Egoak begirik gabe urduritasun kaskarin baten irudia dira, ta orregatik esaten da maitasuna aur bat dala, autatzean maiz uts egiten dulako. Aur biurriek beren jokoetan ziñak austen ikusten ditugun bezela, maitasun aurra ere ziñausle dugu orotan. Demetirrek begiak ikusi baiño len zin txingorte bat egin baitzidan nirea bakarrik zala ta esanaz. Ta txingorte ori Ermiren beroa artu zunean urtu zan zin zaparrada gesalduta. Ermi ederraren igesaren berri emango diot; basora jarraituko zaio, nunbait, biar gabean eta berri onengatik eskerrak ematen badizkit sari gora bat artu izango dut. Baiña naiko izango da nire miña gozatzeko an ura begiratu al izatea ta itzultzea. (*Irtetzen da*).

3. Eskuizkribuan hitz honen amaiera ez da oso ongi ulertzen, makinaz hizki bat baino gehiago ageri baita. "Aintzako" esan nahi zuela iruditzen zaigu.

BIGARREN AGERRALDIA

Gela bat TXIRLORARENEAN.

*TXIRLORA, LAZTABIN, TUTA, TXIRUL, MUTUR
eta GOSEKIL sartzen dira.*

TXIRLORA: Lagundi guzia dago emen?

TUTA: Obe litzake bakoizka izendatzea lerro-lerro.

TXIRLORA: Ona emen, duke jaun eta duke andrearen aurrean, aien ezta egunean arratsaldean aurkeztuko dan izkirimirian ari izateko aintzat artzen diran guzien lerrokada.

TUTA: Aurrenik, esazu, Peru Txirlora maitea antzerkia zertaz ari dan. Irakurri gero antzez-lagunen izenak eta orrela elkar adituko dugu.

TXIRLORA: Ea bada: “Piramu ta Tisbe komeri guziz negar-garri ta eriotz anker-ankerra” da gure antzerkia.

TUTA: Idaz-lan bikaiña, alafede, ta oso alaia. Orain Peru Txirlora ona, deitu antzezlariak izen erreskadaren arauz. Lerroka zaitetze, jaunak!

TXIRLORA: Erantzuzute nik deitu ala. Nikola Tuta, eulea.

TUTA: Gerturik. Esazu zein antzez-lagun dagokidan eta jarrai.

TXIRLORA: Zuk⁴, Nikola Tuta, Piramurena egin bear duzu.

TUTA: Zer da Piramu? Maitale bat ala nagusitzar bat?

4. Eskuizkribuan akats tipografiko bat dago: “zu” jartzen du, ergatiboa falta duelarik.

TXIRLORA: Maitasuna dala ta bere burua galakienik iltzen dun maitale bat.

TUTA: Orrek zenbait negar malko eskatzen ditu bear bezela egiteko. Nire gain badago zaindu bitzate entzuleak beren begiak. Ekaitzak sortu eraziko ditut eta errukituko naiz bear dan neurrian. Betor gaiñerakoa. Alaere, tiranu irudian ari naiz obekienik. Erkule antzestu nezake izugarriki ala zirt-edo-zarteko ta guzia puskatzeko edozein irudi.

Arkaitz gogorrek, durduri joaz,
kartzel-morroilloak ditute ausiko.
Ta Foiben gurdiak, urrun dirdiraz,
aduei eragiñez, dana ondatuko.

Goi-goitikoa duzute ori! Ots, izendatu beste antzezla-riak. Erkuleren mintzoera duzute ori, tiranu baten mintzoera. Maitari bat samurberagoa da.

TXIRLORA: Patxi Txirul, auspo-adabatzailea.

TXIRUL: Emen nauzu, Peru Txirlora.

TXIRLORA: Zure gain Tisbe.

TXIRUL: Zer da Tisbe? Zaldun ibiltari bat?

TXIRLORA: Piramuk maite bear dun anderea da.

TXIRUL: Ez, enefedea, ez dut emakumerik antzestu nai. Badut bizarra ernamiñean.

TXIRLORA: Ez da axolik orregatik. Mozorroaz antzestu ta nai duzun bezain emeki mintza zaitkez.

TUTA: Aurpegia estali al badut, utzi nazazute Tisberen irudian ari nadilla. Emakumezko mintzuratxo batez itz egiten ariko naiz “Tisne, Tisne! A, Piramu, ene maitea! Ire Tisbe laztana, ire andere maitetsua!”

TXIRLORA: Ez, ez, zuk Piramu antzeztu bear duzu ta zuk, Txirul, Tisbe.

TUTA: Ea bada, jarraitu.

TXIRLORA: Erruperta Gosekil, jostuna.

GOSEKIL: Emen nauzu, Peru Txirlora.

TXIRLORA: Erruperta Gosekil; zuk Tisberen ama antzeztu bear duzu. Toma Mutur, lapikogiña.

MUTUR: Emen nauzu, Peru Txirlora.

TXIRLORA: Zuk Piramuren aita; nik Tisberen aita. Laztabin, zubeltxaria, zuk leoiarena. Ta, onekin ongi banaturik daude antzez-lagunak, nik uste.

LAZTABIN: Ba al duzu idatzia leoiarena? Baldin baduzu emaidazu, arren; ikas-gogorra naiz ta.

TXIRLORA: Gertu gabe egin dezakezu, orroatzea besterik ez duzu.

TUTA: Utzi nazazute Leoiarena egiten ere. Atsegin emateko moduan ariko naiz orroaka. Orro egingo dut eta dukeak esango du: “Ea berriz ere! Ea berriz ere!”

TXIRLORA: Lazgarrikiegi egingo zenuke: duke-andrea ta beste andreak deadar egiteraiño ikaratuko lirake ta ori naikoa izango litzake gu guziok urkatzeko.

GUZIAK: Ez litzake amaren semerik urkatu gabe geldituko!

TUTA: Andreak beretik irten erazteraiño izutuko bagenitu, egia diozute, adiskideok, gu urkatzea baiño gauza bidezkoagorik ez lukete arkituko; nik, ordea, nire aotsa emarazi ta usakume samur baten antzera egingo dut orro. Urretxindorra bat iduri orro dagikezuet.

TXIRLORA: Ezin dezakezu antzeztu Piramu baizik; gizon begiko bat baituzu Piramu; uda egun batean ikusi liteken edozein gizon bezain galanta, gizon guziz maitagarria ta gizontsu bat. Beraz, zuk Piramu antzeztu bear duzu.

TUTA: Ots bada, nire gain artzen dut. Zein bizar izango dut ohea ura antzeztutzeko?

TXIRLORA: Bo! nai duzuna.

TUTA: Zure galtzu kolorezko bizarras ari izango naiz, urresagar kolorekoaz, purpur bizi kolorekoaz naiz Frantziko koroia ren kolorekoaz: zearo oria.

TXIRLORA: Badira buru prantzitar batzu illerik ez daukatenak eta burusoil antzeztu bear ko zenuke. Baiña, jaunak, ona emen zuen antzerki zatiak. Arren, eske ta otoi egiten dizuet biar gaberako aiek ikasi ta nire billa joateko, illargi zuritan Jauregiko basora, iritik lekua bat bide. Antxe saiatuko gera. Irian bilduko bagiña laguntaldeak estuerazi ta gure asmoa ezagutuko luketelako. Anartean, antzerkirako bear diran gauzaen lerrokada bat idatziko dut. Ez uts egin, arren!

TUTA: Antxe elkarganatu ta lasaikiago ta ausarkiago saiatu gaitkez. Ar itzau neke oriek; ongi egizute, agur!

TXIRLORA: Dukearen arteondoan elkarganatu ko gera.

TUTA: Aski da: zirt edo zart. (*Irtetzen dira*).

Bigarren atala

LENENGO AGERRALDIA

Baso bat Atenaitik urbil.

*MAITAGARRI bat eta PUCK sartzen dira
elkar aitziko aldetatik.*

PUCK: Oles, iratxo! Noruntz zoaz alderrai?

MAITAGARRI: Mendi ta ibar gaiñean,
txapar ta astarrosan,
zugadi ta esi artean,
su ta uretan zear.
Orotatik nabil alderrai ta aron,
illargi-moltzoa baiño ariñago;
Mari Erregiñaren menpeko nauzu,
aren obo berdek urtatzen ditut.
Bedats-lili gorak aren kutunak
dira ta aien urre-jantzien zetak
ikus ditzakezu; pitxiak dira,
guk maitagarriok egin-emaitzak,
orizta orietan daude urringaiak
An billa bear tut zenbait intz tanta,
lili bakoitzeko belarrin pitxi
batxo zintzilika bear dut jarri.
Agur, iratxoen zakarren ori;
banoa Erregiña ta datoz aurki.

PUCK: Ementxe egingo din erregek bere jaia gau ontan. Ardura artu erregiña aren aurrean agertu ez dedin. Oberon aserre gorritan baitzegonan ari buruz. Indietako bakaldun bati ostutako mutil eder bat diñalako otsein. Iñoiz ez din erregiñak euki menpeko ain zoragarririk eta Oberon bekaizkorrak bere jarraigoaren zaldun egin nai liken mutil ori, oian urbilgaitzetan barna arekin ibiltzeko; erregiñak, ordea, indarrez zeukan mutiko maitea, ura koroatzen din lorez eta bere poz guzia argan jartzen din. Ta ori dunala ta orain artzulo, zelai, iturri garden naiz izarren argi dirdaritsutan elkar arkitzen ditenetan, ain gogor ari ditun liskarrean eta aien iratxoak ere, bel-durrez beterik, ezkurren oskoletan ziri-zara egin eta beren buruak estaltzen dizkiten.

MAITAGARRIA: Zure itxurak iruzur egiten dit osoki ala Errobin Mutil Ona deritzan iratxo biurri ta mamultza zaitut. Baserriko neskak izutu, esnea apar egin, malatsa naspildu, etxeko andrearen alegin guziak alperrik galduz, guriña mamitzea ta beste batzutan garagardoa artzitzea eragozten duna ez al zera? Gabez dabiltzanei ez al diezu bidea galdu eragiten eta aien gaitzari irri egiten? Iratxo on eta Puck maitea esaten dizutenei lana aurre-ratu ta zori ona ematen diezu. Ori ez al zaitut?

PUCK: Zuzen mintzatu aiz. Orrako ibiltzale alai ori naun. Oberonen jostari naun eta par eragiten zionat babaz ongi azitako zaldi gizenen bat erakartzen diñanean beoka baten irrintzia irudikatuz. Batzutan amakide baten katilluan, sagar egosi baten iduri pean, uzkurtzen naun eta zurrut egiten diñanean⁵, aren ezpaiñekin kask egin eta garagardoa aren papar igarrean barna isuri

5. Jatorrizkoan “diñanea” jartzen du, baina “diñanean” beharko luke.

erazten diñat. Atso zugarrak, ipuin beltz bat jaulkitzen ari dunean bere iru oiñetako alkitzat artzen natxion; ordun nik aren ipurditik aldendu egiten naun eta bera aozpez erori, “Jostun!” garrasi egin eta eztulaldi batean asten dun. Ta ordun billerako guziak, saietsak estutuz, parreka ta usinka ari ditun, eta an ordu alaiagorik iñoiz eman ez ditanela zin egiten ditun. Baiñan, alde egin, iratxo, Oberon zetorrekan eta.

MAITAGARRIA: Bai ta nire ugazandrea ere. Oberon ai balioa!

OBERON bere jarraigoarekin, alde batetik, eta TITANI bereakin, bestetik, sartzen dira

OBERON: Ordu txarrean arkitzen aut illargitan, Titani arro ori.

TITANI: Ara! Oberon bekaizkorra! Jauzi gaitezen emendik, maitagarriok; aren oe ta laguntzari uko egin diet.

OBERON: Geldi, geldi, goizollanda arroputz ori: ez ote naun ire jaun?

TITANI: Ire andrea nauk orrezkero. Bazekiat, ordea, zenbat aldiz maitagarrien erria itzalgaizka utzi ta, Korinen iduri pean, egun osoan txilibitua jotzen eta Pillide maitekorrari maitasun-neurtitzak abesten ari izan aizen. Zergatik etorri aiz ona Indiako bazter urrutienetatik? Amazone azkarra, ire prakadun jabea, ire maitari guda-zalea Teseurekin ezkondu urren zegokala ta aren eztoea poz eta zoriontasunez betetzera ator, etorri ere.

OBERON: Nola dun bekoki, Titani, Ipoliteretikiko diñadan adiskidegoa niri aurpegira emateko, ire Teseurekiko maitasunaren jakitun natxionala dakiñalarik? Ark arrapatua ziñan Perigoneren beso artetik ez ote uen atera,

gabaren argi ezbaikotan? Egeleri, Arianeri ta Antiloperi egin zizkienan ziñak ez ote ion ausi erazi?

TITANI: Bekaizkeriak asmatua duk ori. Ta bein ere, udamugatik ez dikagu elkar arkitzen mendi gaiñean, aranean, basoan naiz zelaiean, iturri gardenaren ondoan, latsaren bazter zumetzuen naiz itsasalde ertzean, txistuka ari dukan aizetan gure biribilketak dantzatzeko, gure kirolak nastutzeraz ez atorrara ire iskanbillez. Orregatik aizeak beren soiñuaz guri alperrik dei eginda, asperkunde artzeko edo, zurgatu dizkitek itsasoko laiño izurritsuak. Auek, legorrean erori ta, ibai apalenak arroarroturik beren ugaldeak gaindu erazi dizkitek. Ori dukala ta idia alperrik atsanditu duk bere uztarri pean; lugiñak bere izerdia galdu dik eta bihi eldueza, artagarako bizar samurra burutu baiño len, usteldu duk. Artegia utsik zegok zelai urpetuan eta beleak artalde illez gizentzen dituk. Bederatzi gizonen mairu-jokoa loiez beterik zegok, eta zapadura gabez, ezin nabaritu zitezkek belar lasaiean irtenezin bakana. Gizasemeek negua eskatzen ditek emen, ez eresiek ez leloek ez dizkitek gauak donesten. Orregatik itsas-uiñen nagusi danan⁶ illargiak, bere sumiñez zurbillik, ezueriz jositako aizea ezatzen duk; ta giro orren txarra dukala ta urte-aroak bestelaturik ikusten dizkiagu. Antzigar ille-zuria arrosa gorriaren altzo ezean erortzen duk, eta Negu zarrak, isekaz bezela, kuskusaintsuzko txorta bat ipintzen dik bere izotzezko koroiaien gaiñean. Udaberriak, Udak, Udazken igalitsuak, Negu aserretuak beren oiturazko jantziak aldatzen dizkitek; ta mundu arrituak ezin zeza-

6. Eskuizkribuan ez da ongi irakurtzen hitz hori: badirudi azpian “dakan” jartzen duela.

kek ezagun orain, aien ekarrien bidez, zein zein dukan. Eta gure lipizta ta liskarretatik zetork gaitz auen jatorria bera. Gu gaituk aren guraso ta sortzailleak.

OBERON: Ekarrri, bada, ongibidea: igandik zioan ori. Zer-gatik naigabetu bear din Titanik bere Oberon? Mutiko bat besterik ez diñat eskatzen ura nire aldeko egiteko.

TITANI: Eztitu ire biotza. Maitagarri erri osoa ez uke nai-koa izango mutiko ori niri erosteko. Aren ama nire jaurespideko serora bat uan, eta gabez, Indietako aize urrundatuan, sarri askotan erausiari eman zioagu elkarrekin eta, nire alboan eserita, Neptunen ondar urre-antzekoetan, uiñen gaiñetik zioaztikan merkatarien ontziei begira gengozean. Aien aize oialen sabela puztutzen ikusirik, aize lizunaren bidez aurdun bailitzan, irri egiten genialarik, eta (ordun nire morroi gazteaz sabela aberats zian⁷ ura) aiek idurikatzen ari ukan lerdenki ta kulinka liraiñaz. Ta lur gaiñean gorgoiñaturik, niretzako zirtzilleri billa ziakan eta bazetorrekan berriz, bidaldi batetik itzultzen ukalakoa egiñaz, salgaiez aberatsa. Baiña ilkorra izanik, aur egitean zandu ukan eta nik aren ederragatik azten diat mutikoa ta aren ederragatik ez diat alde egingo.

OBERON: Ta noiz arte egon gogo dun oian onyan⁸?

TITANI: Teseuren ezteiak egin arte, apika. Gure biribilketan gozaro dantzatu ta illargitan gure jolasak ikusi baldin nai baduk, ator gurekin bestela utzi nazak, ni nire gau ibilketaetatik itzuriko nauk eta.

7. Orriaren amaieran hitza mozturik ageri da eta “zian” jartzen duela ematen du.

8. Badirudi akats tipografikoa dagoela hemen, “ontan” beharko lukeela esango genuke.

OBERON: Emaidan mutiko ori ta irekin joango naun.

TITANI: Ez ta ire erreñu zoragarri guziaren orde ere! Goazen, maitagarriok! Baldin luzarago ekuratzen banauk, benetan mokokatuko diagu elkar.

TITANI irtetzen da bere jarraigoarekin.

OBERON: Ongi da. Oa ire bidetik. Ez aiz oian ontatik irtengo irain onegatik nire zigorra artu gabe. Atoz⁹ onara, ene Puck galanta. Oroitzen al aiz lurmutur batean eserita negoalarik, izurde baten gaiñean ziakan arrainneska bat kantatzen entzun nianean, bere soiñu eztsitu, goxoaz itsaso burrunbaria ibitu ta uiñetako neskatxaren eresia aditzeko zenbait izar beren ibilbideetatik alde egin ziaten bat-batean?

PUCK: Oroitzen nauk.

OBERON: Orduntxe ikusi nian, ik berriz ezin ikusi, Cupid oso izkillotua illargi otzaren eta lurraren artean egazka. Sartaldean errege-aulkian eseritako vestal ezeinbat artu zian jomuga ta bere arranbeletik maitasun gesi ain zorrotza askatu eta eun milla biotz zulatu nai bailitun. Ikusi al izan nian, ordea, Cupid gaztearen gezi sumiña illargi garbiaren izpi ezatsuetan itxungi ukala, ta serora erregetarra igaro ukan neskatx-gogoetan, maitasunetik azke. Ala ere, oartu nion azkena nun erori ukan: sortaldeko loretxo baten gaiñean, atzo esnea bezelako zuria ta orain gorria maitasun-zauriaz, neskatxek papantzea esaten ziotekena. Ekardak lore ori; bein batean landara erakutsi nian. Bere urriñak gizon naiz emakume baten betazal lokartuetan lauskitu ezkeru, maiteraziko dik zoroki esnatzean ikusi dezan aurrenengo sorkari bizia.

9. Akats tipografikoa zegoen eskuizkribuan: “atoó” jartzen zuen.

Ekardak landare ori, ta onara aite berriz lebiatanak lekua bat igeri egin baiño len.

PUCK: Berrogei miñututan gerriko bat ezarri dizaiokiat lurbirari.

OBERON: Urin ori euki ta gero, Titani lotan zegokenean kirikatu ta aren begi gaiñean isuriko diat. Ordun, begie-taratuko zaiokan lenbiziko izakia, dala leoia, dala artze, dala otsoa, dala zezena, tximu biur bat naiz matxango urduria, jarraituko zaiok gogo maitemindunez, eta nik aren begiak sorginkeritik jaregin baiño len, beste belar batez egin dezakeanez, aren aldeko mutilla eman bearko zidak. Baiña nor zetorrek? Ikusi- eziña nauk eta entzun dezakeat aien izketa.

DEMETIR sartzen da ta ELENE aren atzetik.

DEMETIR: Ez aut maite; ez akit jarraiki, beraz. Nun zeuden Lisander eta Ermi ederra? Bata ilgo diñat, besteak iltzen natxion ni. Oian ontan estaldu ditunala esan didan eta emen nagon zubillen artean zubil eginda, ezin baitiñat billatu nire Ermi. Ots, utikan eta ez etorri geiago nire atzetik.

ELENE: Zuk erakartzen nauzu, biotz gogorrezko burni-bizi ori; baiña ez duzu burnirik erakartzen, nire biotz au zintzoa baita, altzairua antzo. Utzazu zure erakartze-indarra ta ez dut zuri jarraitzeko indarririk izango.

DEMETIR: Limurtzen al zaitut? Eder esaten dizut? Ala ez dasaizut, aldiz, argi ta garbi, maite ez zaitudala ta ezin zaitzakedala?

ELENE: Ta orregatik ere maiteago zaitut. Zure erbi-txakurra naiz eta zuk, Demetir, ni jo geiago ta nik zu laztanduago. Erabilli nazazu zure erbi-txakurra antzo

bakarrik; egotzi, jo, aztu, galdu nazazu, baiña naiz ta ezaiña izan, utzi nazazu bederik zuri jarraitzen. Zein leku apalago eskatu al dezaket zure maitasunean –eta ala-ere, oso goratutzat jotzen dut– zure txakurra darabiltzazun eraz erabilli izatea baiño?

DEMETIR: Ez zirikatu geiago nire gogoaren gorrotoa, geisotzen bainaun begiraten audanean.

ELENE: Ta ni geisorik nago zu begiratu ezez.

DEMETIR: Arrisku geiegian jartzen duzu zure begirunea, iria utzi ta maite ez zaitunaren eskuetan zure burua emateaz gabaren abagunaren eta leku bakar baten aolku gaiztoaren gaitzurrean zure nexkatasunaren altxor joria ezartzen duzularik.

ELENE: Zure zindotasuna dut babes; niretzat ez baita gaua zure aurpegia ikusten dudanean, eta beraz, ez dut uste gabean nagonik. Ez zaio ere baso oni peitzen mundulagunarte bat niretzat mundu osoa zera ta. Nola esan diteke, ba, bakarrik nagola niri so egiteko mundu osoa emen dagolarik?

DEMETIR: Igandik iges egin eta txaparretan ezkutatuko naun basabereen gogara uzten audala.

ELENE: Ankerrenak ez du zurea bezelako biotz bat. Iges egizu nai duzunean; ipuiña aldatuko da. Apolek egiten du iges eta Dianek eizatzen du. Usoak jazartzen du mirotza; orei-eme otzanak laster egiten du katamotza eizatzeko. Alperrikako lasterra koldarkeriak jazartzen dunean eta kemenak iges egiten!

DEMETIR: Ez dut nai etiketarik irekin; utzi nazazu joaten ala jarraitzen baldin baatzait gaitz egingo diñat basoan; jakitun egon.

ELENE: Bai, jauretxean, irian, baserrian egiten didazu gaitz.

Au lotsa¹⁰ Demetir! Zure laidoak nire kuntzea iraintzen dute. Guk emakumeak ezin dugu maitasunagatik burrukatu gizonek egin dezaketen eraz. Limurtuak izateko gaituzute; ez gera egiñak limurtzeko. (*DEMETIR irtetzen da*). Jarraikiko natzaizu ta inpernu au zero egiñik, ilgo naiz onenbeste maite dudanaren eskuz. (*Irtetzen da*).

OBERON: Agur, maiteder ori; bera sarri ontatik atera baiño len, ik egingo dun iges argandik eta berak billatuko dik ire maitasarrea.

PUCK sartzen da berriz.

Ba al dakark lorea? Ongi etorria mamu ibildaun ori.

PUCK: Bai, emen dago.

OBERON: Emaidak, mesedez. Bazekiat basa-elarra loretzen eta martxo-liliak eta sagu-belar kulunkariak azten ditukan bazter bat. Auntzosto usaintsuek, otsolar urrindunek eta asto-arrosa politek gerizpetzen ditek osoro. Antxe egiten dik lo Titanik gau zati batez, lore oriek urrukatua, dantza ta atsegiñen artean; antxe eranzten dik sugeak bere larru nabarra maitagarri bat inguratzeko adiñakoa. Ta lore orien uriñaz begiak igortziko dizkiat eta ameskeri gorrotagarritz bete geldituko duk. Ar zak pixka bat eta billatu abaroan. Atenaiko andere eder bat gazte anker batez maitemindua zegok. Igortzi itzak gazte orren begiak, baiña egik anderea izan dedilla esnatzean ikusi dezan lenengo izakia. Gaiñean zeukakan jantzi atenaitarretik ezagutuko duk gizona. Ari adi ardu-raz to noz maiteminduago dedin orain no toz dagona

10. Orria moztuta dago eta ez da hitzaren amaiera ongi irakurtzen, baina "lotsa" esan nahi dela ematen du.

baiño. Ta alegindu adi ni arkitzeko lenengo kukurrukua
baiño len.

PUCK: Ez izan beldur, nagusi. Ire jopuak onelaxe egingo
dik.

BIGARREN AGERRALDIA

Basoko beste alderdi bat.

TITANI sartzen da bere jarraigoarekin.

TITANI: Ots, orain biribilketa bat eta maitagarri kanta bat. Gero urrutira zaitezte miñutu baten irurenez: batzu otso-larretako kuskua usaintsuetan arrak iltzeko; beste batzu saguzarrei guda egiteko, aien larruzko egaetaz burusiak egiteko nire iratxo ñarroei, ta beste batzu gabean bere deadarrez gure gogo meaxkak zurtu erazten ditun gautxori oiularia urrutiratzeke. Lelo ezadazute lokartzen naizeño; gero, zuen lanbideetara ta utzi nazazute atsedeten.

MAITAGARRIAK kantatzen ari dira.

Zuek min bikoitzeko suge natudunok,
kirikiño lartsuok, ez zaitezte agertu;
ez kalte egin ziraunak eta surangillok,
gure erregiñagana, arren, ez urbildu.

Urretxindor, kanta ezazu
gurekin lo-lelo ezta,
loa, loa, loa, loa.

Ez sorginkerik,
ez begizkori,
ez ta kalterik
gure andragana
ez bedi ondora;
gau on, ba, loa.

Armiarma euntzailleak, ez etorri ona,
utikan! gorulari ankaluzeok, ken!
kakarraldo beltz oiek ez zaitezte urrera,

barakuilloak ta arrak ez kalte egin emen.

Urretxindor, kanta, eta abar.

MAITAGARRI: Goazen emendik. Guzia ongi dago onez-
kero. Bat bakarrik geldituko da urrundik begirari.
(MAITAGARRIAK *ateratzen dira*. TITANI *lokartzen da*).

OBERON *sartu ta lorea lauskitzen du TITANIren
betazalen gainean.*

OBERON: Esna zaitezenean ikusiko duna, orixe eukiko dun
egizko maitetzat. Maitatu ta igartu adi arengatik. Dala
ontza, katua, artza, leoi-nabarra naiz zurda lastuko
basurdea, itzartu zaitezenean agertuko dun ire begietan
ire maitale bezela. Itzarri adi sorkari zakarren bat urbil
dedinean. (*Irtetzen da*).

LISANDER *eta ERMI sartzen dira.*

LISANDER: Ene maitea; alditxartu zorian zagoz basoan
barna ibiltzearen ibiltzeaz; ta egia esan, bidea galdu egin
dut. Ongi baderitzazu, Ermi, atsedean artuko dugu, egu-
naren on-egiña igurikitzen dugula.

ERMI: Orrela biz, Lisander; billa ezazu oge bat zuretzat,
nik soropil auen gainean eratzango dut burua.

LISANDER: Zotazal bat bera eukiko dugu biok burupeko.
Biotz bat, oe bat, bular bi ta ziñestasun bat.

ERMI: Ez, Lisander maitea; nire ederragatik etzan zaitez
aruntzago, ez etzan orren urbil.

LISANDER: O, emaeizu nire itzei adirazpen bakunena. Mai-
tasun-solasak maitasunez atzaldut bear dira. Esan nai
dut nire biotza zurearekin loturik dagola, biak bat baka-
rrik egiten dutelarik, bi bular zin batez elkartuta, ots, bi
gogo ziñesmen batez batuak. Ez ezadazu ukatu, beraz,
zure alboan oetokia orrela etzanaz ez baitut itza jango.

ERMI: Lisander oso poliki ari da itz jokotan. Neronen aziera ta arrotasun irainduko nitun Lisanderren zinttasuna ezmezean jarri banu. Baiña, adiskide maitea, maitasarre ta gizabidearren etzan zaitez aruntzaxeago. Lotsak bearresten du berezte au senargai zintzo bat eta neskatxa bateri ain ongi dagokiena. Alde egizu, beraz, ta gau on, adiskide gozo ori. Zure maitasuna ez dedilla besteratu zure bizitza amaitu arte!

LISANDER: Amen, amen diotsat otoitz eder orri. Ta nire bizitza buka dedilla, beraz, kirmentasunari azken eman dezaiodanean. (*Baxtertzen da apur bat*). Ona emen nire oea. Loak damaizula bere atsedeen osoa.

ERMI: Opa orren erdia opa egillearen begietera datorrala. (*Lokartzen dira*).

PUCK sartzen da.

PUCK: Basoan zear ibillia naiz, baiñan ez dut atenaitarrik arkitu are¹¹ begietan sortzeko lore orrek dun eragimena aztarnatu dezakedan. Gaua ta isilla!... Nor dago emen? Atenaiko jantzia dauka. Auxe dut nire nagusiak esan zidanez, atenaitar neskatxa gutxiezten duna. Ta ona emen neskatilla lozorrotan, lur ezatsu ta loitsu gaiñean. Arima ederra! Ez du bekokirik izan zaldun biotz-beltz, nabarmenaren ondoan atsedeteko. (*Lorea lauskitzen du Lisanderren betazalen gaiñean*). Zakar ori: ire begietan lertzen diat lillura onen al-izate guzia. Esna zaitezenean maitasunak eragotzi dezaiola loari ire betazal gaiñean eseritzea. Itzartu adi ni joan baikoz, orain joan bear baitiat Oberonen billa. (*Irtetzen da*).

11. Akats tipografikoa dagoela dirudi: itzultzaileak “aren” esan nahiko zuela iruditzen zaigu.

DEMETIR eta ELENE sartzen dira lasterka.

ELENE: Geldi adi, iltzen banauk ere, Demetir maitea.

DEMETIR: Ekura adi, arren, eta ez nazan nekarazi onela.

ELENE: Ene, nai duk illun artean ni utzi? Ez egin orrelakorik.

DEMETIR: Ekura adi ire onerako. Bakarrik joan nai diñat.
(*DEMETIR irtetzen da*).

ELENE: Arnas gabe nago eizaketa zoro ontan. Nire arrena geiago ta eskerra gutxiago. Zorionekoa da Ermi nunai dagola, begi donetsi, erakarkorrak dauzkalako. Zerk egiten ote ditu ain distikorrak? Negar malko gaziak ez, nire begiok arenak baiño sarriago urtatzen baitira. Ez, ez; artz bat bezain itsusia naiz, beldurtuta iges egiten baitute arkitzen nauten basa-piztiak. Ez da arritzeko, beraz, Demetirrek nigandik iges egitea mamu batengandik bezela. Zein ispillu biurri, atzipetiren bidez erkatu dut nire burua Ermiren begi ederrekin? Baiña nor dago emen? Lisander lur gaiñean etzanda! Illik ala lotan? Ez dakust odolik, ez zauririk. Lisander, baldin bizi bazera, itzar zaitez, zaldun ona.

LISANDER (*Itzartzen dalarik*): Ta sutara jaurtiko diñat burua ire maitasun eztiagatik! Elene garden ori! Izaerak bere antzea¹² agertu dik iregan, ire bularrean zear ikusi erazten baitzidan ire biotza. Nun da Demetir? O, on diñat izen laidogarri ori nire ezpataz il-eraztea!

12. Eskuizkribuan ez da oso garbi ikusten “antzea” edo “antzera” zer jartzen duen. Jatorrizko testuarekin parekatuta (“Nature shows art”) lehenengoa iruditut zaigu aukerarik egokiena.

ELENE: Ez esan ori, Lisander, ez esan. Zer zaik ark ire Ermi maitatzea? Jauna, zer zaizu Ermik zu maitatzen zaitula? Pozik egon bear duzu.

LISANDER: Pozik Ermirekin! Ez, garbai naun arekin eman dizkiñat miñutu gogaikarriez. Ermi ez-baiña Elene diñat maite. Nork ez liken emango bela bat uso baten orde? Giza-naimenak adimena dik jaurle ta adimenak i neskatxa jatorragoa aizela esaten zidan. Gauzak ez ditun beren sasoi arte eltzen. Gazte nindunan au, ez diñat izan beraz, orain arte adimena aldua. Oraingotik nire naimena adimenaren menpeko ipintzen diñat; ark bidatzen natxion ire begietaraiño ta aietan irakurtzen dizkiñat maitasun-liburu ederrenean idatzi maite irakurgaiak.

ELENE: Iseka minkor ontarako jaioa ote naiz? Noiz merezi izan ditut onelako zirtoak zuregandik? Ez al da aski, mutil gaztea, ez al da aski Demetirren begietatik begirada goxo bat ere iñoiz irabazi ezin izatea. Zuk nire ezgaitasunari irri egiten bear zaitezen? Egitan, irain egiten didazu, alafede, niri orrelako nargaz maite lege egiteaz. Baiña ongi izan Aitortu bear dut zaldun gizapide onekoagotzat jotzen ziñudala. Ene, gizon batek astandutako emakume bat beste batek iraindua izan bear! (*Irtetzen da*).

LISANDER: Berak ez du Ermi ikusten. Lo egin or, Ermi, ta iñoiz ere ez etorri nire ondora. Gozokien asebetek iguin garai-eziña urdaillari ematen zion bezelaxe, ta targo batek atzipeturiko gizonak ura geien gorrotatzen dutenak diran bezela, orrelaxe i, nire asebeta ta targoa, guziek eta nik iñork baiño geiago gorrotatua izan zitezela. Ta nire men guziak beren maitasun eta al-izatea eskeiñi ditzatela Elene ospatzeko ta aren zaldun izateko. (*Irtetzen da*).

ERMI (*Esnatzen dalarik*): El, Lisander, el! Alegeñak egin nire bular gaiñean narrezten dukan suge au idokitzeko! Ai ene ta ni! Arren! Izan diadan ameskaitza! Begira, Lisander, nola dardaratzen naunan izuarren. Amets egin nian suge batek biotza iresten zidakanela ta i irrika ari intzala eserita, aren arrapakin ankerraz atsegin arturik. Lisander! Zer? Alde egiña? Lisander! Ene Jainkoa! Nola ez nauk entzuten? Joan egin ote duk? Ez itzik, ez murumurik? Ene, nun aiz, ba? Mintza entzuten baldin banauk. Mintza, arren bai arren! Zorabiatu urren nago beldurrez! Ez! Ez zaude urbil, beraz. Eriotza bear dut ala zu berealaxe arkitu. (*Irtetzen da*).

Irugarren atala

LENENGO AGERRALDIA

Baso bat.

*TITANI etzana lotan. TXIRLORA, LAZTABIN, TUTA,
TXIRUL, MUTUR eta GOSEKIL sartzen dira.*

TUTA: Bagaude geranok?

TXIRLORA: Egin-egiñak; ta emen duzute gure saiakizunera-
rako leku bizi-egoki bat. Belartza au agertoki izango
dugu; elorri abarrok aldaetxe, ta dukearen aurrean
bagangoz bezela jokutzen ariko gera.

TUTA: Peru Txirlora...

TXIRLORA: Ze atsegin, Tuta galanta?

TUTA: Badira Piramu ta Tisberen komeri ontan egun-ta-
beti ederretsiko ez diran gauzak. Aurrenik. Piramuk¹³
ezpata atera bear du bere burua iltzeko ta andreak ezin
jasango dute ori. Zer erantzuten didazu?

TXIRUL: Alajaiña! Beldur izugarria!

GOSEKIL: Dana gogotan artu ta, uste dut iltzarrea bazterka
ezarri bear dugula.

TUTA: Ez orrelakorik: badut guzia atontzeko bide bat.
Idatzi ezadazute itzaurre bat, eta itzaurre orrek adiraz

13. Eskuizkribuan akats tipografikoa ageri da: "Piramu" jartzen du, *k* gabe.

dezala ez diogula iñori kalterik egingo gure ezpataz, eta Piramuk ez dula bere burua ziñez eta egiz iltzen. Segurantz geiago emateko, esaiezute ni Piramu au ez naizela Piramu, Tuta eulea baizik.

TXIRLORA: Ederki, orrelatsuko itzaurre bat izango dugu ta zortzi te seiko neurtizetan idatziko da.

TUTA: Ez; jarri itzasu bi geiago ta zortzi ta zortzikotan idatzi dedilla.

TXIRUL: Ta leoiak ez ote ditu andreak ikaratuko?

GOSEKIL: Orren beldur naiz, alafede.

TUTA: Jaunak, ongi ausnartu bear duzute ori, Jainkoak lagun dagigula! Andre tartera eramatea izugarrizko gauza da; ez baitago leoi bizia baiño basa-egazti ikaragarriarik. Gogotan artu bear dugu ori.

TXIRUL: Beraz, beste itzaurre baten bidez leoia ez dala leoi esan bear dugu.

TUTA: Ez da aski; antzezlariak beren izena esan eta leoiaren lepoan zear bere aurpegiaren erdia erakutsi dezala, auxe edo orrelatsukoren bat esanaz: “Andreak, edo andre ederrak; mesedez, edo-ta arren, edo ara obekiago, otoi!, ez izan beldurrik, ez ikaratu: nire buru au zuenen orde. Baldin uste baduzute uste, nerau leoi bat naizela errukarria nintzake, seguru ere. Ez, ez dago orrelakorik: besteak bezelakoxe gizon bat nauzute”. Ta ordun azaldu dezala bere izena ta esan dezaiela, zabal-zabal, Laztabin zubeltxaria dala.

TXIRLORA: Ederki, orrelaxe egingo dugu. Baiña baditugu alaz-ere, bi korapillo; ots, illargiaren izpia gela batean sartzea, baitakizute Piramuk eta Tisbek illargi-xuritan elkar arkitzen dutela.

LAZTABIN: Illargi-bete izango dugu antzerkia eman bearco dugun egunean?

TUTA: Egutegi bat, egutegi bat! Ikus almanakan; ikus ia illargi bete izango dan; ikus illargi bete izango dan.

TXIRLORA: Bai, illargi bete izango dugu gau ortan.

TUTA: Orrela ezkeru, zabalik utziko dugu antzeztutzen ariko geran gizategi aundiko leio bat eta illargia gibel atean zear sartuko da.

TXIRLORA: Bai, bestela bat-edo-bat etorri bearco da kriseillu bat eta elorri sorta batekin eta Illargi-zuri itxuratzeko datorrela esan beza. Badago, ordea, beste korapillo bat; orma bat bearra dugu gizategi erdian, izan ere Piramuk eta Tisbek orma bateko zirrikituan zear itz egin omen zioten elkarri.

LAZTABIN: Iñoiz ere ez dezakezute orma bat agertokian sartu. Zer diozu, Tuta?

TUTA: Nor-edo-nork Orma irudikatu bear du. Aski da gainean igeltsu naiz buztin naiz kare txaplasta batzu eukitzea orma bat irudikatzeko, ta beatzak onela jarri ditzala irrikituen artean Piramu ta Tisbe isil-misilka ari ditezen.

TXIRLORA: Orrela egin al baditeke, ongi joango da guzia. Ots, eseri zaitezte, zeratenok, eta ekiezute zuen esatekoei. Asi zaitez zu, Piramu. Zure esaldia bukatu ala, sar zaitez abaro ortan, eta orrela bakoitza bere aldian.

*PUCK sartzan da gibelaldetik*¹⁴.

PUCK: Nolako larreko gizon zakarrak ditugu maitagarri-erregiñaren etzalekuaren orren urbil? Zer! Komeri bat

14. Akats tipografikoa: "gibelaldetik" jartzen zuen eskuizkribuan.

ertutzen? Entzule bat izango naute bai ta antzezlari bat ere, baldin bide ematen badidate.

TXIRLORA: Mintza, Piramu. Aurrera zaitez, Tisbe.

TUTA: Tisbe, lore ezta mintsua da...

TXIRLORA: Urrintsua, urrintsua.

TUTA: ... lore ezta urrintsua da,
orrelakoa ire arnasa, maite ori, maitena.
Baiña, isil! mintzura bat! Itxon apur baten,
eta ire ondora laster naun etortzen. (*Irtetzen da*).

PUCK: Iñoiz ez da emen ikusi Piramu bakanagorik.

TXIRUL: Nik itz egin bear dut orain?

TXIRLORA: Bai, bear ere, alajaiña! Ulertu bear baituzu Piramu entzun otsa zer dan ikusi ta berealakoan etorriko dala.

TXIRUL: Piramu distikorra,
lilia baiño ere
margoz zuriago
azubillean arro
agiri dan arrosa
baiño gorriago,
gazte ta eragikorra,
pitxi ederrena,
iñoiz nekatu gabe
lasterkan ari dan
zaldi onena bezain
zindo, zintsu aizena.
arkituko aut, Piramu,
Niniren obian.

TXIRLORA: Ninuren obian, gizona. Oraindik, ordea, ez duzu ori esan bear. Piramuri egingo diozun erantzun

bat duzu ori. Beingoan esaten duzu zure esatekoa, erantzuna iguriki gabe. Sar zaitetz, Piramu; zure aldia igaro da; “zindo, zintsu aizena”z amaitu bear duzu.

TISBE: O, inoiz nekatu gabe lasterka ari dan zaldi onena bezain zintzoa aizena...

Sartzen dira berriz PUCK eta TUTA, onek asto buru batekin.

PIRAMU: Ederra banintz, iretzat bakarrik nintzake...

TXIRLORA: Au izugarria! au arritzekoa! Sorginduak gaude. Arren, jaunak! Iges egin dezagun, adiskideok! El!

TXIRLORA, LAZTABIN, TXIRUL, MUTUR eta GOSEKIL irtetzen dira.

PUCK: Jarraikiko natzaizue. Txapar eta idoietan zear, iratz eta elorrietan barna dantza eragingo dizuet. Zaldi naiz eiza txakur naiz buru gabeko artza naiz basurde naiz larresu biurtuko naiz. Irrintzi, zaunka, kurrinka, orro ta erre egingo dut aldizka, zaldiak, txakurrak, basurdeak, artzak eta suak bezela. (*Irtetzen da*).

TUTA: Zergatik egiten dute iges orrela? Ni beldurtzeko zitalkeri bat da ori.

TXIRUL: Ene, Tuta, nola aldatu aiz! Zer dakust ire lepo gainean.

TUTA: Zer dakuskan? Irea bezelako asto buru bat ote? (*TXIRUL irtetzen da*).

TXIRLORA sartzen da berriz.

TXIRLORA: Jainkoak bedeinka zaitzala, Tuta! Jainkoak bedeinka zaitzala! Antzaldatua ago! (*Irtetzen da*).

TUTA: Atematen dut aien maltzurkeria. Astotzat artu nai naute; baiña dagitena dagitela ez dut leku ontatik zirkin

egingo. Ibilkatuko naiz nire eran eta kantuz ari izango naiz beldurrik ez dudala oar dezaten (*Kantatzen du*).

Ez zozaita, lumabeltza,
moko oriskaduna,
ez zozoa mintzo eztia
ez epetxa txikia

TITANI (*Esnatzen dalarik*): Zein aingeruk iratzartzen nau nire lorezko oean?

TUTA: Ez txonta, ez txolarrea,
ez larratxoria;
ez kukua erantzunik¹⁵
ez damaioguna.

Izan ere, nork¹⁶ nai du eztabaidan sartu txori orren iño-zorekin? Nork gezurtatu txori bati, naiz kuku ta kuku egiten badizu ere?

TITANI: Abestu berriz ere, ilkor gozo orrek; ire kantuak zoratu dizkitek nire belarriok. Orobat begiok ire irudiaz maitemindu dira eta ire gizontasun ederraren indarrak i ikusi ta maite audala esatera beartzen natxiok.

TUTA: Uste dut, andrea, ez duzula ortarako bide aundirik. Baiña egia esan, maitasuna ta adimena gutxitan dabiltz elkarrekin gaur egunean; damu da auzoko zintzoren batek aiek adiskidetzeko alegiñak ez egitea. Ikusten duzunez, badakit txantxetan ibiltzen arira datorrenean.

TITANI: Ederra bezain zugarra aiz.

TUTA: Ez naiz bat ez bestea. Baiña baso ontatik irtetzeko bear dan besteko antzea banu, naikoa nuke niretzat.

15. Akats tipografikoak medio, ez da erraza zehazki idatzita dagoena identifikatzea. “Erantzunik” izan daiteke balizko aukerarik egokiena.

16. Akats tipografikoa: “nor” jartzen du eskuizkribuan, ergatiborik gabe.

TITANI: Ez opatu oian ontatik joaterik; ementxe ekuratu-
tuko aiz, nai ta nai ez. Mail goieneko izpiritu bat nauk.
Udaberria menpeko diat eta i maite. Ator nirekin, beraz;
maitagarriak emango dizkiat ire morroitzan ari ditezten,
itsas-zolara joango zaizkik txirlarri billa ta lorezko oean
lo egiten agolarik abestuko ditek. Ta ire giza izakera
zakar ori garbituko diat, i aizezko izpiritu zailu bat egi-
teraiño. Illar-lore!, Armiarmasare!, Sits!, Yebenazi!

*ILLARLORE, ARMIARMASARE, SITS eta YEBENAZI
sartzen dira.*

ILLARLORE: Emen nauzu.

ARMIARMASARE: Bai ta ni ere.

SITS: Bai ta ni ere.

YEBENAZI: Bai ta ni ere.

GUZIAK: Nora bear?

TITANI: Izan zaitezte zintzo ta adeitsu zaldun onekin; jauzi
ta dantza egizute bere aurrean, elikatu ezazute mer-
txika ta masusta gorriez, mats amusko, piko musker eta
masustaez. Ken ezaiozute kotxuei aien eztidun azkonak;
bil itzazute aien ezkozko iztarrak zuziak egiteko ta piztu
itzazute ipurtargiaren begi distikorretan nire maiteari
argi egiteko jeikitzean eta oeratzean. Eta idoki jain-
koilloen ego kikirikiak bere begi lokartuetatik illargi
izpiak aizatzeko. Kurtu zaitezte aren aurrean mamuok,
eta agur egiozute.

ILLARLORE: Agur, ilkor ori!

ARMIARMASARE: Agur!

SITS: Agur!

YEBENAZI: Agur!

TUTA: Milla esker, biotz-biotzetik. Esaidazute, arren, zuen izenak.

ARMIARMASARE: Armiarmasare.

TUTA: Zurekin barrukotasun geiago egiteaz poztuko naiz, Armiarmasare jaun on ori; baldin beatza ebaki badezat, zugana jotzera ausartuko naiz. Zure izena, etxeko seme zintzo ori?

ILLARLORE: Illarlore.

TUTA: Agur egiezu, arren, nire izenean, zure ama Kui andreari ta Illarleka zure aitari. Zure ezagutzan ari izateaz poztuko naiz ere... Zure izena, jaun ori, mesedez?

YEBENAZI: Yebenazi.

TUTA: Yebenazi jauna, ongi ezaguna dut zure egonarria. Idi-erreki koldar aundi orrek zure etxeko seme asko irentsi ditu. Itz ematen dizut: zure aideek bein baiño geiagotan negarrak begietaratu dizkidate. Zurekin ezagutza zabalagoa egitea nai dut, Yebenazi jauna.

TITANI: Ots, bere morroitzan ari zaitetzte; eramazute nire gerizpera. Illargiak begi ezetsuez so egiten digula iruditzen zait; eta ark negar egiten dunean edozein loratxok negar egiten du ere. Neskaxtasun galduren bat deitoratzen. Billur ezazute nire maitearen mingaiña: eramazute isilik.

BIGARREN AGERRALDIA

Oianeko beste leku bat.

OBERON sartzen da.

OBERON: Jakin nai nuke jakin, Titani esnatu ta bere begien aurrean lenik agertu ta maite maite bear dun izakia zein dan. Emen dator nire geznaria.

PUCK sartzen da.

Ots, iratxo irrigille ori, zein jolas dugu orain sorgin-baso ontan?

PUCK: Nire andrea mamu batez maitemindua duzu. Bere aterpe bakar, agurgarriaren urbil lo zorroak arturik zegolarik, burua ateratzeko Atenaiko dendaetan ari diran langille zakarrak, zapartingarri talde bat aratu da Teseu aundiaren ezta egunean antzestu nai duten komeri bat saiatzeko. Lagun iñozo orietako ergelena, Piramuren irudia egiteko dana, agertokitik irten eta zara batean sartu da, ta ordun nik mugonera jotzen, asto buru bat tinkatu nion lepo gaiñean. Bereala, Tisberi erantzun bear ziola ta badator berriz nire zapartingarri. Gaiñerakoak, ura ikusi baikoz iges egin dute, ziri-zara doakion eiztariaren begia arkitu dan ate izua antzo, ala suizkilluaren dunbada entzutean goratu ta karrankaz zeruan zear egaketa lasterraz banatzen diran txo sail bat iduri. Nire oinkada otsaz bein eta berriz erortzen da bat eta iltzen dutela deadarrez ari da ta Atenairi elka. Burua aulago ta beldurra aundiago, edozein gauza bizigabe, etsai biurtzen dute. Sasiek eta arantzek atzitzen ditute aien jantziak; onen mauka, aren ginbailla ta dana uzten dute. Onela estutzen nitun bitartean, Piramu galanta

antxe nun antzaldaturik eta kinka artan, Titani esnatu ta berealaxe asto batez maitemindu da.

OBERON: Nik asmatu baiño obeki gertatu duk au. Baiña kutsutu al dituk atenaitarraren begiak lorearen uriñaz, agindu nianez?

PUCK: Lotan artu nian— egiña duzu ori ere. Eta Atenaiko neskatxaren alboan zeutzan. Beraz, esnatu orduko begietaratu bear zaio.

DEMETIR eta ERMI sartzen dira.

OBERON: Geldi ago: emen diagu atenaitarra bera.

PUCK: Izan ere, ori da neskatxa; mutilla, ordea, ez da ori.

DEMETIR: Oi, zergatik gaizki artu maite maite zaituna? Utzi mintzo garratzok zure etsai garratzentzat.

ERMI: Marmazika izan nauk orain arte; baiña gaizkiago ari bear nindukek irekin. Beldur bainauk i biraokatzeko bide eman didakala. Baldin il baduk Lisander lotan zegoalarik, oiñak odolean ditukan ezkeru ondora adi ta il nazak ni ere. Eguzkia ez zaiok egunari kirmenago bera niri baiño. Lokarturik Ermigandik itzalgaizka iges egin dikala ziñetsi dezakeat. Lenago ziñetsiko nitek lurbira alderendu daitekela, ta illargia zirrikitu ortan zear anti-podaetaraiño sartuz bere nebaren eguerdia nastutzen etorri litekekela. Ik¹⁷ il duk, nunbait. Orren goibel eta kopetilluna, eriotzegille bat dirudik, aurki.

DEMETIR: Zure ankerkeri gozagaitzak biotzean zaurituta ilgaiarena da ala ere, zuk nire eriotzegille orrek,

17. Hizkiak bata bestearen gainean idatzirik daude eta ez da erraz nabaritzen “zuk” edo “ik” dagoen idatzirik. Aditzari begiratuta, “ik” da aukerarik egokiena.

Artizar urrutiak bere zeru argitsuan bezain distikor ta eder ematen duzu.

ERMI: Zer ikusten dik orrek nire Lisanderrekin? Non duk bera? A, Demetir ona, atzera eman nai didak?

DEMETIR: Naiago nuke aren gorputzilla nire erbi-txakurrei ematea.

ERMI: Utikan, txakurra! Utikan, zitala! Nire neskatxeroapenaren mugak igaro erazten nauk. Il duk, beraz? Izan zaitezela ezabatua gaurgero gizon lerrokadan! Oi, arren bai arren, esaidak egia, bein bederik! Lo zegoalarik il duk ez baiukan ura begiratzeko bekokirik izango ernai egon balitz. Ori egitsari ederra! Ar batek, sugegorri batek egin lezakek berbera. Sugegorri batek egin dik. Inoiz inongo sugetzarrek ez zian ziztatu irea baiño mingain biurragoz, narrazti ori.

DEMETIR: Bidegabeki aserretzen zera. Lisanderren odolarekiko ogenik gabe nauzu, ez da il ere nik dakidalarik.

ERMI: Esaidak, arren, esaidak ongi zegokala.

DEMETIR: Zer nuke sari, esan baneza ori?

ERMI: Ni geiago ez ikusteko doaia. Ire irudi gorrotuagandik igesi natxiak. Bizi naiz illik dedila ez nauk geiago ikusiko.

DEMETIR: Ez dago ari jarraitzerik aldarte sumin ortan dagola. Emen atsartuko dut une batez. Miña biziago biurtzen da loa, meko egindako zordunak bere zorra ordaindu nai ez digunean. Baldin bere begira banago, zer-edo-zer emango dit ordainbidetzat. (*Etzan eta lo egi-ten du*).

OBERON: Zer egin duk? Oso-osoan zuziatu ta maitale zintzo baten begietan isuri duk maite-uriña. Oker ortatik

etorriko duk ezinbestez maitasun zintzo baten aldatzea ta ez gezurrezko batena.

PUCK: Alabearrak agintzen du ori. Gizon kirmen baten aldean milloika dira uskorrak eta ziñautsia ziñautsiaz nastutzen ditutenak.

OBERON: Oa basoan barna aizea¹⁸ baiño ariñago ta alegindu adi Atenaiko Elene billatzen. Maitemiñez ta aurpegi-laru bere odol gaztea andeatzen dik asperen sutsuez. Zoragarri bat- edo-baten bidez ekar zak onara. Nik zoratuko dizkiat toren begiak no eldu baiño len.

PUCK: Banoa, banoa; Tartaritarraren arrabelak iruzitako gezia baiño lasterrago egazka.

OBERON: Kupiden geziak
jo lore gorri;
onen begi-ninik
itzazu busti.
ta bere maitea
dakusanean
Ark goizeko izarrak
zeru urdiñean
bezain eder ta argi
dirdira beza.
Ta i itzartzean no
alboan baduk
maite ongibidea
ari eskatu.

PUCK sartzen da berriz.

18. Akats tipografikoa dago eskuizkribuan: “barnaiizea” jartzen du.

PUCK: Gure sorgin-sail buru,
Elene badator,
eta nik lilluratu
gaztea orra or,
maitearen saria
eskatzen diola,
komeri irrigarri au
ikus dezagun, ba.
Nire jaun ori, ilkorrak
bai dirala eroak!

OBERON: Alde egik pixka bat
eingo diteken otsak
itzar bearko dik
Demetir bereala.

PUCK: Ordun bi dituegu
andre bat limurtzen,
berdin gabeko jolas
bat dugu edukiren.
Izan ere, azpikoz
gaiñera ateratzen
diran gauzaek naute
atsegintzen geien.

LISANDER eta ERMI¹⁹ sartzen dira.

LISANDER: Zer dala ta uste duzu iskirioka gorte egiten dizudala? Iskiriok eta isekak ez dira negarrez agertzen: akusazu: negarretan ari naiz zin dagizudalarik eta orrek nire ziñak biotzean sortuak dirala erakusten du. Nola ikusi zenezake nigan iseka zantzurik nire gauzaekoro zintzotasunaren ezaupidea dutelarik?

19. ELENE izan beharko luke.

ELENE: Zure gezurra geroago ta aundiagoa da. Egiak egia iltzen dunean, ori burruka zerutar eta inpernutar batean! Eskeintza oriek Ermiri dagozkio. Zapuzten al duzu? Ziñen bidez aztatu ziñak ez dute aztarik. Ura ta niganako zure ziñak pisuaren azpil bietan ipiñi ezkeroinbateko azta dute; biak eleak bezelako ariñak.

LISANDER: Zentzua galdua nuan eskeintzak egiten nizkio-nean.

ELENE: Ez, galdurik duzu orain ura zapuzten duzunean.

LISANDER: Demetirrek maite du ta ez zaitu maite.

DEMETIR (*Esnatuz*): O, Elene, andregoi, neskaxeder betegiña, jainkozko ori! Zerekin, nire maitea berdinduko ditut zure begiak? Leiarkia aren aldean ugerra da. Nola zirikatzen dute musua gerezi eldu, gorrien antzeko zure ezpaiñak! Sortaldeko aizeak bere arnasaz laztantzen dun Tauru tontorreko elur aratz, zuriak, bela-luma bezain beltza dirudi eskua goititzen duzunean. Oi, utzadazu mun dagiodan zuritasunezko erregiña orri, zeruko sillu²⁰ orri.

ELENE: Oi, au laidoa! Oi, au inpernua! Ni parregarri jartzeko elkaturik ikusten zaituztet. Baldin zaldun baziñate ta gizabiderik bazenute ez zenidateke onenbesteko iraiña egingo. Ez duzute aski ni gorrotatzea, ongi dakidanez, ta orren gain elkar artu bear duzute oso ta bizi niri irri egiteko? Gizonak baziñate, dirudizutenez, ez zenuteke andere otzan bat onela erabilliko, niri zinka, eskaintzaka ta merezi baiño geiago goraka, biotz-biotzetik gorrotatzen nauzutela etsita nagolarik. Leikide zerate biok Ermirekiko maitasunean eta leikide zaituz-

20. Hemen, “zeinu” zentzu horretan ageri da.

tet nire lepotik parre egitean. Ori egitsari ederra! Ori gizon eginkizuna zuen isekaz neskatx gaiso baten begietan negarrak sortu eraztea. Ari oneko gizonak²¹ ez luke onela neskatx bat irainduko, ez ta ez luke ere kiroltzat artuko aren egonarria aitu-eraztea.

LISANDER: Biotz gogorra zera, Demetir. Ez zaitetz orrela ari izan, Ermi maite baituzu. Badakizu jakitun nagola ta ementxe aitortzen dut gogo-gogoz, biotz-biotzez uzten dizkizudala Ermiren maitasunarekiko nire eskubideak, Elenerekiko zureak utzi itzadazu, ura maite baitut bai ta maite izango il arte.

ELENE: Inoiz ez dute egin isekariak mintzoera utsalagorik.

DEMETIR: Lisander, eukak ire Ermi, ez diat nai arean. Maite banian maitasun guzi ori joana duk. Ene biotz au egun bateko arrotza baizik ez duk izan aren baitan. Orain Elenegana duk argan beti egotez egoteko.

LISANDER: Elene, ori ez da orrela.

DEMETIR: Ez gutxietsi ezaguna ez dukan biotzondoa edo bestela larrutik ordainduko duk. Orra nun zetorrekan ire maitea, or duk ire laztana.

ERMI sartzen da berriz.

ERMI: Gau illunak begiari bere ariketa kendurik belarria adikorrago egiten dik; ikusmena auleraziz entzumena bikuntzen dik. Ene begiok ez ditek igana jotzen, Lisander, baiña ire aotsak ireganatu natxiok. Zergatik utzi nindukan ain gogorki?

LISANDER: Zergatik geldituko unan maitasunak beste leku batera joatera bultzatzen diñan ura?

21. Akats tipografikoa zegoen eskuizkribuan: "gizonek" jartzen zuen.

ERMI: Zein maitasunek alde eragin zezakean Lisander nigandik?

LISANDER: Lisanderren egizko maitasuna; ekuratzen uzten ez zionana. Elene ederra, an goian suzko borobillek eta argizko begiek baiño geiago gaua ditzierazten diña. Zergatik abil nire billa? Ez al dun ulertu irekiko gorrotoak i utzi erazi nationala?

ERMI: Zure gogoaz bestera mintzo zera; ezin liteke ori.

ELENE: Ara!, ura ere elkartean dugu! Orain badakust irurok elkar artu dutela nire aurka jolas anker au antolatzeko. Ermi iraingiña, adiskide eskerbeltza, zuk asmatu duzu, zuk gertu iskirio zikin au ni oiñazetutzeko? Aztu al duzu gure barrukotasuna, gure aizpa-maitasarrea, biok elkarrin emandako ordu goxoak, banandu genuan²² garaia geiegi aurreratzen zula ta aldi oin-ariñari akar genionean? Oi, danori aztu duzu: aurtzaroko adiskidetasuna, gaztaroko bakuntasuna. Bost aldi, Ermi, bi iratxo bizkor iduri, gure orratzez eundu genuan biok lore bat bera, eredu berberaren aurrean lanean lumatxa berberean eserita, soiñu bat bera erspide batez kantatzen ari giñalarik, gure eskuak, gure biotzak, gure aotsak eta gure gogoak bat egiñak izan bailiran! Orrela azi giñan elkarrekin, bi gerezi biki antzo, bananduak diruditenak, baiña erabateko loturak batuak; azubil berberaz eraturako bi igali begiko. Onela, bi gorputz agirikin, biotz bat baizik ez geneukan, orrelaxe mazmarro bikoitz batean bi erdiak jaun batenak dira ta galdor berberaz koroatuak. Eta gure onerizko zar au erdibitu ta gizon auekin bat egiten zera zure adiskide gaisoari irri egiteko? Ori

22. Eskuizkribuan “banandu genuan” bi hitzoren artean bada beste bat, ez dena oso argi irakurtzen, baina izan litekeena “banandu berria genuan”.

ez da adiskide baten jokabidea, ez ta nekatx batena ere. Iraiña nik bakarrik artu badut ere, gure kuntze guziak biraoka zaitzake argatik nik bezainbat.

ERMI: Arriturik nauzu zure itz neurrigabeakin; nik ez zaitut²³ laidotzen, zuk laidotzen nauzu, dirudianez.

ELENE: Ez al diozu Lisanderri eragin isekaz nire atzetik etorri ta nire begiak eta aurpegia goretsi ditzan? Eta oraindik orain oiñaz esti-eragiten niñun Demetir zure beste adiskidea ez al duzu zirikatu ere, andregoiko, neskaeder, jainkozko, arrigarri, gain-gaiñeko ta zerutarra esan dezaidan? Zergatik diotsa au gorrotatzen dunari? Eta zergatik Lisanderrek bere gogoan betetzen dun zure maitasunari uko egin eta bere biotza eskeintzen dit zure aginduz eta oldez baizik? Baldin zuk baiño zoramen gutxiago badut, zuri baiño maitale gutxiago atxikitzen bazazkit, zu bezain zorionekoa ez banaiz²⁴, eta, aitzitik, maite dudalarik maitatua ez izanik, nire zorigaitz au urrikaldu bear zenuke ta ez arbuiatu.

ERMI: Ez dut ulertzen esan nai duzuna.

ELENE: Ots, jarraitu, goibel zagozelakoa egizu. Ari zaitetzte kiñuka, gibela ematen dudanean; egiozute elkarri begi kliska; jarraitu zuen josta goxoaz; mundu guzia mintzatu tuko da orren ederki egindako iseka onetzaz. Biotzik, zintzotasunik naiz gizalegerik baldin bazenute ez niñuzute parragarri erabilliko. Baiña ongi izan. Nire errua da, alde, eta eriotzak ala urrutiratzeak ongituko dute laster.

23. Akats tipografikoa zegoen eskuizkribuan: "zaitu" jartzen zuen.

24. Akats tipografikoa zegoen eskuizkribuan: "babaiz" jartzen zuen.

LISANDER: Geldi zaitetz, Elene gozoa; entzun nire zuribidea, ene maitea, ene bizia, ene gogoa, ene Elene ederra.

ELENE: Ederki ari zera!

ERMI (*LISANDERri*): Ene adiskide, ez egiozu irri orrela.

DEMETIR: Zure eskaria alperrikoa baldin bada nik jakingo dut ura beartzen.

LISANDER: Ire indarrak ez natxiok aren eskariak baiño geiago eragingo. Ire zemaiaik aren otoiak bezain indargabeak dira. Elene, maite zaitut; zin egiten diñat nire biziaren gain, ire alde galtzeko gertu natxion bizi onen gain. Zin egiten diñat maite ez audala esaten diñana, gezurra esaten diñala.

DEMETIR: Ark baiño askoz geiago maite audala esaten diñat nik.

LISANDER: Baldin ori badiok, jarrai akit eta erakutsi zak.

DEMETIR: Arin, goazen!

ERMI: Zer esan nai du orrek, Lisander?

LISANDER: Exti, ijitu ori!

DEMETIR: Ez, ez, jauna, Ermigandik askatu ta niri jarraitu nai duzulakoa egiten duzu, baiña ez zatoz. Gizon otzana zera, utikan!

LISANDER: Utzi nazan, katueme, zoztorra. Sorkari zikiña, utzi nazan ala justiko aut nigandik suge bat baintz bezela.

ERMI: Zer dala ta orren gogorra biurtu zera? Zergatik onako aldatze au, ene maite ezti ori?

LISANDER: Ire maitea! Utikan tartaritar beltz ori! Ut, osakai nardagarria, edari gorrotagarria, ut!

ERMI: Jostatzen ari al aiz?

ELENE: Bai, ziñez, bai ta zu ere bai.

LISANDER: Demetir, nire itza beteko diat.

DEMETIR: Nai nuke zure bearra bete dezazula gutxirekin beartzen zaitutela baitakust. Ez dut zure itza ziñesten.

LISANDER: Zer ba! Emakume au zauritu bearke dut, jo bearke, il bearke? Gorrotatzen badut ere, ez diot kalterik egin nai.

ERMI: Gorrotatzea baiño gaitz aundiagorik egin al dezaidakezu? Ni gorrotatu? Zer dala ta? Ene! Zer da berri, ene maitea? Ez al nauzu Ermi? Lisander ez al zaitut? Atzo bezain ederra naiz. Gau bateko aldi laburrean maitatu ta utzi egin nauzu. Utzi egin nauzu... Jainkoari ez dakiola nai ori egia izaterik!

LISANDER: Bai, biziaren gain! Eta i berriz ez ikusteko erabaki sendoaz. Ez izan, beraz, orrekiko itxarorik, ez zalantzarik, ez ezbairik. Etsi-etsita egon aiteken; ez dun jostaketa, egi utsa baizik. Gorrotu aut eta Elene dut maite.

ERMI: Ai ene ta ni! Zu atzipeti, loreak usteltzen dituzun arra, maitasun lapur ori! Gabez itzalgaizki etorri ta nire maitalearen biotza ostu didazu, beraz?

ELENE: Ederra da²⁵ au, izan ere! Ez duzu, beraz, erabiderik, ez neskalotsarik, ez begirune izpirik ere? Atera nai dizkiozu aserre otsak nire mintzoari. Ut, ut!, azalutsa, andrakilla!

ERMI: Andrakilla! Zer dala ta ori? A, badakust. Bere luzera nirearekin erkatu, bere goibeaz illarraindu ta bere itxura,

25. Ez da ulertzen oso ongi zer jartzen duen, baina itxura batera, "ederra da" izan liteke aukerarik balizkoena.

bere itxura aundiaz gaiña artu dit. Onen ñarroa naizela ta aren onerizkoa lortu al duzu? Onen txikitizat jotzen nauzu, beraz, zu agaluze ori. Esaidazu, onen txikitizat jotzen nauzu? Nire azkazalok zure begietara ez eltze-raiñoko txikia ez nauzu, ala ere.

ELENE: Arren, jaunak, parragarri artu banauzute ere, ez utzi niri kalte egiterik. Ez naiz gaizto, gaitzik egiten ez dakit. Egizko neskatxa naiz koldarkeriz. Ez utzi jo nazala. Ni baiño txikiagoa dalako buru egin dezaiokedala uste duzute, apika.

ERMI: Txikiagoa! Entzuzute berriz ere.

ELENE: Ermi ona, ez zakizkit izan orren gaiztoa. Beti maite izan zaitut, Ermi, zure zadorrak gorde ditut zintzoki, iñoiz ez dizut kalterik egin. Auxe dut bakarrik zurekiko utsa: Demetirrenganako nire maitasunak eraginda, zure igesa baso ontara ageri egin diot. Bera jarraitu zaizu; ni, berriz, jarraitu natzaio maitasunarren. Astandu nau, ordea, beregandik; jotzea, lurreratzea bai ta iltzea ere eskaindu dit. Orain, baldin uzten banauzute, joango naiz bakez. Nire erokeria Atenaira eroango dut berriro eta ez natzaizue geiago jarraituko. Utzi nazazute joaten. Badakusazute zeñen xalo ta bioztia naizen.

ERMI: Ots, zoaz, ba, nork geldierazten zaitu?

ELENE: Nire atzean uzten dudan biotz zentzu gabe batek²⁶.

ERMI: Norekin? Lisanderrekin?

ELENE: Demetirrekin.

26. Eskuizkribuan “bat” dago idatzita. Ermiren galderari erantzuten dionez, ergatiboa egokiagoa iruditzen zaigu.

LISANDER: Ez izan beldurrik, Elene, ez dizu kalterik egingo.

DEMETIR: Ez, jauna, ez dio egingo, naiz ta zu ari lagundu.

ELENE: O, sumintzen danean gaiztoa ta maltzurra da. Subegorri bat zan ikastolara zioanean; eta txiki bada ere, beldurgarria.

ERMI: Txiki osterera ere! Beti “txiki” ta “txikiago”! Zergatik uzten duzute orrela niri irain egiten? Utzi gaitzazute biok biotara!

LISANDER: Alde, epoa, kazkarra, arbiaziak joa, puluka, ezkurra!

DEMETIR: Arduratsuegia zera zure zerbitzuak onartzen ez ditun emakume bateri buruz. Utzazu soillik; ez mintzatu Elenez; ez artu aren laguntza. Baldin inoiz ari maitasunik agertzeko bekoki baduzu, larrutik ordainduko duzu.

LISANDER: Orain ez natxiok lotzen; jarrai akit, baldin biotz baduk eta ikusiko dugu biotako zein dukan Elenerekiko eskubide geiago.

DEMETIR: Jarraitu? Ez, bekoz-beko joango gera.

LISANDER ata DEMETIR irtetzen dira

ERMI: Zu zaitugu, andereñoa, naspil guzi onen egillea. Ez, ez joan.

ELENE: Ez naiz zugandik entzinduko ta ez zurekin geldituko. Zure eskuak nireak baiño lasterragoak dira muturketarako; nire anak, ordea, zureak baiño luzeagoak, laster egiteko. (*Irtetzen da*).

ERMI: Arriturik nago ta ez dakit nora jo. (*Irtetzen da*).

OBERON: Or duk ire zabarkeria. Beti egiten duk uts, ire malmuzkerietan gogoz ari ez aizenean.

PUCK: Siñetsidazu, iratxoen errege ori, oker bat izan da. Ez al zenidan esan gaztea, atenaitar janzkeratik ezagutuko nula? Nire egiña ez da, ba, gaiztesgarri, atenaitar baten begiak igortzi ditut eta. Ta pozik nago gertatuaz, aien liskarrak jostatu naulako.

OBERON: Badakusk maitale oriek burrukatzeko toki baten billa zebiltzakala. Lastertu adi, ba, Errobin, egizu gaua illunago. Estal ezak arin zeru izartsua laiño itsuz, Akeront bezain beltza ta bidea galdu eragiek naikide sumindu oriei, elkar arkitu ez dezaketekan. Batzutan Lisanderren mintzura alakotu ta zirika ezaiok Demetirri nausa garratzez; ta bestetan irri egiok Lisanderri, Demetir baintz. Eta orrela alde eragiek bata besteagandik, loak eriotz antzekoak, bere berunezko oiñak eta saguzar egoak aien bekaiñetan jarri ditzan arte. Ordun lauskitu belar au Lisanderren begietan; bere uriñaren eragitez edozein ikusmen uts kendu ta begiak beren oiturazko ariketan itzultzen dituk. Esnatu ditezenezan narrita guzi au, amets bat, ikuskari uts bat iduriko zazkiek eta maitaleak Atenaira joko ditek berriz eriotzera arte amaituko ez dukan loturaz batuta. Egiteko ortan ari aizen artean erregiñagana joango nauk eta aren mutil iditarra eskatuko ziokat. Mamu orren zoragarria kenduko diñat begietatik eta bakea orotan izango diagu berriz.

PUCK: Nire iratxo-errege ori, laster egin bear da ori. Dagoneko gabaren irantsugeak baitoaz ego arin odeiak ebakitzen eta an bean Ortzargiaren aintzindariak dirdiratzten du; onen urbiltzeaz orron dabilzan iratxoak itzultzen dira parrastaka illerrietara; bidarte ta uiñetan eortzitako arima madarikatuak dira guziak, arrez josiriko beren illobietara dioazenak. Egunal aien laidoa erakutsi dezan

beldurrarren, argia oldez uzten dute ta gau kopetillunaz elkartzen dira betiko.

OBERON: Gu, ordea, beste ari bateko izpirituak gaituk. Maiz jolasean ari izan nauk ortzargi maitekorrekin eta, igurai bat antzo, oianetan barna ibilli nitekek. Sortaldeko atea, gorri gorri eginda zabaldu dedin arte Neptunen gainean bere izpi ongilleak isuriaz eta aren gatzeko uin muskerrak urre ori biurtzen dizkitekala. Ala ere, laster egik; ez galdu astirik; eguna gabe egikizun au buka dezakegu.

OBERON irtetzen da.

PUCK: Gora ta bera, gora ta bera,
eramango ditut gora ta bera,
nire beldur dira baso ta irian;
eramazkizu, Goblin, gora ta bera.
Emen dator bat.

LISANDER sartzen da berriro.

LISANDER: Nun ago, Demetir arroputz ori? Mintza adi orain

PUCK: Emen doillora: ezpata eskuan eta gertu. Nun aut?

LISANDER: Berberean eukiko nauk irekin.

PUCK: Jarrai akit, ba, lurgain berdiñago batera.

LISANDER badoa aotsari darraiolarik.

DEMETIR sartzen da berriro.

DEMETIR: Lisander, mintza adi berriro; itzurti, koldarra, iges egin al duk? Mintza! Txapardi batean ago? Nun estaldu duk ire burua?

PUCK: I aiz koldarra, izarrei aupaka ari aizen ori. Burruka billa abillala txaparrei esaten diezu ta ez duk etorri nai.

Ator, bedurti; ator, umegorri; seska batez astinduko aut.
Lotsagarria duk iretzat ezpata ateratzea.

DEMETIR: Baiña, or ago?

PUCK: Arraikio nire aotsari. Au ez duk gizonki ari izateko lekua.

Irtetzen dira - LISANDER sartzen da berriro.

LISANDER: Beti igesi doa nire aurretik eta ez da niri aup egi-
tez atertzen. Dei egiten didan lekura naizeneko joana da.
Doillora, ni baiño askoz orpo-ariñagoa da. Laster egin
dut, baiña berak ara lasterrago iges eta azkenik bide illun
malkar batean sarturik nago. Emen atsedean artuko dut
(*Lurrean etzaten da*). Etorri laster, egun ongillo ori; zure
argi urdiñarrea zuk erakutsi orduko, Demetir arkitu ta
irain au apendu egingo dut. (*Lokartzen da*).

PUCK eta DEMETIR sartzen dira.

PUCK: Ja, ja, ja! Koldarra, zergatik ez ator?

DEMETIR: Itxaron, biotz baduk, baitzekusat nire aurrean
laster dagikala beti lekuz aldatzen eta ez gelditzeko ez
niri aurpegiz-aurpegi begiratzeko bekokirik ez daukala-
rik. Nun aiz?

PUCK: Ator onara; emen nauk.

DEMETIR: Irri egiten didak, alegia. Larrutik ordainduko
duk au baldin iñoiz egunaren argitan aurpegia ikusten
badiat. Orain oa nai dukan lekura. Nekeak oe otz ontan
luze-luze etzan erazten natxiok. Eguna urbiltzean agertu
bat egingo diat. (*Lurrean etzan eta lokartzen da*).

ELENE sartzen da berriro.

ELENE: Oi, gau gogaikarria! Gau luze ta ikaragarria!
Laburtu ire orduak! Diztiatu Sortaldean, eguantz ongille

ori, nire laguntza gaisoa iguintzen dutenengandik urrun, Atenaira itzuli nadin egun argiz. Ta i, loa, batzutan miñaren begiak isten ditukana ostu nazak aldi batekotz neronen laguntzatik. (*Etzan eta lokartzen da*).

PUCK: Iru baizik ez ordun? Betor bat geiago. Bi kuntze bakoitzeko lau egingo ditute. Emen dator bestea aserre ta goibel. Kupid mutil biurria dugu emakume gaisoak orrela zorutzen ditu ta.

ERMI sartzen da berriz.

ERMI: Bein ere ez naiz onen nekatua egon; onen atsekabeta. Intzez blai eginda, sasi illarrek urratua, ez naiteke aruntzago joan, ez narrastu ere. Nire aztalek nire naimenarekin bat ez datoz. Emen atsedean artuko dut argia urratu arte. Baldin liskarrean ari badira, Jainkoak²⁷ lagun dagiola Lisanderri. (*Lurrean etzan eta lokartzen da*).

PUCK: Lur gaiñean
 lo bakean;
 begietan
 nik botako
 sendagaillu, maite zintzo.
 (*Uriña isurtsen du Lisanderren begietan*)
 Esna orduko
 duk artuko
 atsein gozo,
 ire maitea
 berriro ikustez.
 Ta anbiolako supita
 egia oso aterako da:
 “Idekoak elkarrekin”.

27. Akats ortografikoa zegoen eskuizkribuan, “Jiankoak” jartzen baitzuen.

Tok duke no,
guziak ondo
ta oro atsegin.

Irtetzen da.

Laugarren atala

LENENGO AGERRALDIA

Basoa.

LISANDER, DEMETIR, ELENE ta ERMI lotan.

TITANI ta TUTA sartzen dira, IRATXO ta MAITAGARRI talde batekin. OBERON atzekaldean dago, aiek ez dakustela.

TITANI: Ator, eseri adi lorezko oe ontan, ire masail zoragarriak laztantzen, ire buru legun goxoan astoarrosak jartzen eta belarri luze, ederroi musu ematen ari nadin, ene atsegin ezti ori.

TUTA: Nun duk Illarlore?

ILLARLORE: Emen.

TUTA: Atz egidak burua, Illarlore. Nun diagu Mus de Armiarmasare?

ARMIARMASARE: Emen nauzu.

TUTA: Mus de Armiarmasare, jaun ona, ar itzazu izkilluak eta il ezadazu kardabera artan kokaturik dagon iztar gorriko erle ori. Gero, nire musiu ona, ekardazu aren ezti-zorroa. Ez minkartu geiegi egiketa ortan, musiu, ta arretaz ari zaitetz ezti-zorroa lertu ez dedin. Ez nuke nai, musiu, zu eztizko uifien pean murgilduta ikusterik... Nun dugu Mus de Yebenazi?

YEBENAZI: Emen.

TUTA: Ekatzu bosteko ori, mus de Yebenazi. Utzi agurre-riok, arren, musiu on.

YEBENAZI: Ze atsegin?

TUTA: Ezer ez, musiu ona, niri azka, Illarlore zaldunaren lagun zaitezela baizik. Bizargiñenera bear dut, musiu, aurpegia oso illetsua dudalakoan baianago. Ta asto onen minbera naiz eta illeak pitin bat kilika egiten badit, atz egin bear diot nire buruari.

TITANI: Nai al duk entzun soiñurik, ene maite goxo ori?

TUTA: Izan ere, belarri ona diñat soiñurako. Ekarri zintzariak eta kriskitiñak.

TITANI: O, esaidak, ene maite, zer nai dukan jateko.

TUTA: Lakari bat anabaka, alegia. Olo onik, olo legorrik aogozatuko niken. Elbitz bal bat, elbitz on, elbitz gozoa jateko gogo bizia diñat ere. Ez zegon ori bezelakorik.

TITANI: Bazeukat iratxo azkar bat, burintzaren gordailuan billatu ta intxaur berriak ekarriko dizkikana.

TUTA: Naiago nituke eskukada bat edo bi tilista legor. Baiña esaiezu, mesedez, zuretarrei nekarazi ez nazatela, alako logalea datorkit eta.

TITANI: Loegiketanik gorgoiñatuko autnire besoetan. Maitagarriok, zoazte bakoitza bere lekura. (*MAITAGARRIAK irtetzen dira*). Onelaxe elkartzen dituk goxoki auntzostoa ta aienbelarra. Onelaxe jartzen dizkitek untzak bere erez tunak zumarraren beatz azaltsuetan. O, bai maite audala! Bai maite-maite audala! (*Lokartzen dira*).

PUCK sartzen da.

OBERON (*aurrera eginda*): Ongi etorria, Errobin maitea. Ba al dakusak ikuskizun atsegintsu au? Orain asten nauk

aren erokeriaz urrikaltzen. Arestian, oianaren sarreran ergel gorrotagarri orrentzako esku-erakutsi gozoak biltzen ari unala arkituko nianean, ori sudurrera eman eta akar egin ziokat. Aren maitariaren baldoki lairatsuak estu baitzizkian lore berri ta usaintsuzko koroiez. Len sortaldeko pitxi biribillak antzo kuskuen gaiñean arrotzen itukan intz tantak, orain lore polit orietako begien barruan, beren zorigaitza deitoratzen ari itukan negarrak ematen ziaten. Ura atarratu ta itz otzanez barkamena otoi egin zidakanean, nik mutikoa eskatu niokan. Berealakoan eman zidakana, eta aren maitagarri bati agindu niokan nire iratxo-erriko abaro batera eraman dezan. Orain mutikoa diadala, osatuko diat aren begien uts iguigarri ori. Ken ezak, beraz, Puck zintzoa, atenaitar zakar orren burutik antz-aldatzen dikan zomorroa, besteak bezela ura esnaturik, Atenaiera guziak itzuli ditezen gau ontako gertarietan amets baten neke gogai-karria besterik ikusten ez ditekela. Baiña askatu dezadan leenik, maitagarrien erregiña.

*TITANI*gana *urbildu ta isurtzen du aren begietan*
lore baten uriña.

Oi ziñana izan zaitez;
Ikus, zenesakusanez;
Dianen kskuak baitu
Kupiden lore goitu.

Ots, ene Titani maitea, esna zaitez, ene erregiña ezta.

TITANI (Itzartzen dala): Ene Oberon maitea. Oriek ikuste-koak nik ikusiak! Asto batez maitemindurik nengoala uste nian.

OBERON: Or etzaten dun ire maitea.

TITANI: Nola gertatu duk ori? Oi, bai gorrotatzen ditekela orain ene begiok aren irudia.

OBERON: Isilik, une batez. Errobin, ken ezaiok buru ori. Titani, agindu soiñua jotzeko orrako bost oriei lozorro gogorra eragin dezaieten.

TITANI: Soiñua! Ots, jozute soiñu lo-eragille bat.

SOIÑUA.

PUCK (*TUTARI*): Itzartu zaitezenean ikusi berriro erorren kaiku-begiekin.

OBERON: Soiñua, jozute! (*Geldiune, soiñua*). Zatoz, ene erregiña; eskuoak elkarri eman eta lo-ordi oriek, etzaten diran lurra gorgoiñatu dezagun. Orain adiskidetu gera berriz zu ta biok. Biar, gau erdian Teseu dukearen jau-regian dantza nagusiak egin eta guzitariko atsegin onak deituko ditugu bera ta beratarren gaiñera. Antxe ezkonduko dira ere, Teseurekin batera, bi maitale zintzo biko oriek, guziak pozik diralarik.

PUCK: Iratxo-erregea, adizu; goiz-larratxoria entzuten dut.

OBERON: Ordun, ene erregiña, garraizkion isil-isilik gauaren itzalari. Guk inguratu dezakegu lurra illargi alde-rraiak baino lasterrago.

TITANI: Goazen, jauna, ta, egaz egiten dugun artean, esaidazu zer dala ta gau ontan nire burua ikusi dudan lur gaiñean lotan ilkor oiekin.

Irtetzen dira. Eiza-adarrak entzuten dira.

TESEU, IPOLITE, AIGEU ta jarraigoa.

TESEU: Bioa zuetako bat basozaiñaren billa. Gure ekanduak bete ditugu; ta oraindik goiz dan ezker, ene maiteak nire eiza-txakurren soiñua entzungo du. Aska itzazute sortaldeko aranean; zoazte, ots, ta ekardazute laster iru-

raia. (*Morroi bat irtetzen da*). Goazen orain, erregiña ederra, mendi-tontorrera ta andik bat egindako txakur eta oiartzunaren soiñu nastua adituko dugu.

IPOLITE: Alako egunean, Espartako txakurrekin artzetan zebiltzan Erakel eta Kadmurekin elkar egin nuan Kretako baso batean. Bein ere ez dut iskanbilla alaiagorik entzun; oiana bakarrik ez, zerua, iturriak eta iguru-alde guziak ere ots bat eginda ziruditen. Bein ere ez dut entzun soiñugaitz²⁸ ain musikazkorik, ostots ain ezirik.

TESEU: Nire eiza-txakurrak Espartar-odolekoak dira; ormaza zabala ta illea gorrixka ditute. Beren belarri zintzilikariak goiz-intza ekortzen dute; iztar-okerrak dira ta Tesaliko zezenak bezelako okozpe aundikoak. Motelak jazarkundean, baiña beren zaunkak joale-otsak antzekoak dira. Bein ere Kretan, naiz Espartan, naiz Tesalian ez dute eiza turutak ots eztitsuagoak jo. Ebatzi ezazute entzun dezazutenean. Baiñan, isilik, nolako neskatx ederrak ditugu auek?

AIGEU: Jauna, alaba dut au emen lokartua ta emen Lisander; beste au Demetir; Elene Nedarren alaba ere badago. Emen guziak elkarrekin arkitzeak arritzen nau.

TESEU: Goizean goizik jeiki dira, nunbait, orrillaren ekandua betetzeko ta gure asmoez jabeturik, gure jaiburu ontan lagunkide izateko etorri dira. Baiña esaidazu, Aigeu, ez al dizu gaur Ermik bere erantzuna eman bear?

AIGEU: Bai, nire jauna.

28. Ez da garbi irakurtzen zer jartzen duen eskuizkribuan, baina "soiñugaitz" izan daiteke aukeretako bat. Ingeleseko jatorrizkoan "discord" jartzen du horren lekuan.

TESEU: Zoaz eta agindu eistariei turuta-otsaz iratzarri ditzatela.

*Turuta-otsa eta didarrak barruan. DEMETIR, LISANDER,
ERMI ta ELENE esnatu ta jeikitzen dira.*

Egun on, adiskideak. Balendin gurenaren eguna igaro da. Baso ontako egaztiak ez²⁹ al dira gaur arte abikide billa asten?

LISANDER: Barkatu, jauna (*LISANDER eta gaiñerakoak belau-
nikatzen dira*).

TESEU: Altxatu zaitetze, arren. Badakit zuek biok etsai ta leikideak zeratena. Nondik nora elkar-artze arrigarrri au? Nola gorrotoak edozein bekazikeri baztertu ta gorrotoaren ondoan lo egiten du etsaigoren beldurrik gabe?

LISANDER: Jauna, erdi lo ta erdi ernai nagolarik³⁰ ez dakit zer erantzun. Ezin dezaikezut esan nola etorri naizen onara: zin egiten dizut. Baiña, uste dudanez –egia esan nai nuke, ba, ta orain bai oroitzen naiz nola izan zan– Ermirekin eldu nintzan onara. Gure asmoa Atenaitik irtetzea zan, aren legearen menpetik iges egiteko.

AIGEU: Aski, aski, jauna, aski entzun dugu. Legearen betetzea eskatzen dut. Legea aren buruaren gaiñean. Iges egin nai zuten zuri ta bioi uts eman, Demetir, zuri emaztea ostuz ta niri alaba zuri emateko nuan erabaki sendoa ezeztatuz.

29. Akats tipografikoa: “es” jartzen zuen.

30. Eskuizkribuan ez da ongi nabari zer jartzen duen. Badirudi “nagiturik nagolarik” edo “argiturik nagolarik” jartzen duela, baina ezin ziur esan lehenengo hitza ezabatuta dagoen ala ez. Dena den, ingelesezkoan “Half ‘sleep, half waking” jartzen du, eta horregatik egin dugu “erdi lo ta erdi ernai nagolarik” horren alde.

DEMETIR: Jauna: Elene ederrak esan zidan aien igesa ta baso ontan elkar arkitzeko zuten asmoa. Aserre gorritz jarraiki natzaie ta Elene, berriz, maitasunak eraginda etorri da nire atzetik. Ez dakit, ordea, nire jauna, nolako eragitez –sorginkeriz izan da nunbait– nire Ermirekiko maitasuna urtu da, elurra urtzen dan bezela. Maitasun ori umetan atsegin nuan jostaillu uts baten oroia iruditzen zait orain. Eta nire biotzaren uste ta eragite guzia, nire begien atsegin bakarra Elene da. Arekin itz arturik³¹ nengon Ermi ikusi baiño len. Nardatu egiten niñun janariak ertuna bezela; osasunaz, ordea, nire izatezko gozamenara itzuli naiz ta orain maite dut, nai, opa, ta eguneta eguzki kirmen izango natzaio.

TESEU: Ongi arkituak, maitari zintzoak. Gero emango diguzute gertari onen berri geiago. Aigeu, nire naiak gaiña artu bear dio zureari. Nai dut gaur bi biko auek gurekin batera jauretxean elkartu ditezela betiko. Goizberanduan geran ezkerro, utzi dezagun alde batera eizatzeko asmoa. Zatozte Atenaira gurekin; iru bikoek jai bakar bat izango dute. Goazen, Ipolite. (*TESEU, IPOLITE, AIGEU ta jarraigoa irtetzen dira*).

DEMETIR: Gertariok txiki ta nasi agertzen zazkit; urrundik odei biurtzen diran mendiak iduri.

ERMI: Gauzaok begi okerreaz ikusten ari naizelakoan nago; edozein gauza bikonde agertzen zaidala.

ELENE: Orrelaxe nago ni ere. Demetir, arkitutako pitxi bat iruditzen zait, neronena dana ta ez dana.

31. Akats tipografikoa dago eskuizkribuan: “artutik” jartzen du.

DEMETIR: Etsi-etsita zaudete oso ernai gerala? Oraindik lotan, ametsetan gaudela uste dut. Ez al duzute uste dukea arestian ementxe zegola ta berari jarraitzeko esan digula?

ERMI: Baiki, ta nire aita ere.

ELENE: Ta Ipolite ere bai.

LISANDER: Ta jauretxean bere lagun izateko dei³² egin zigun.

DEMETIR: Itzarrrik gaude, beraz. Jarrai gakizkien eta gure ametsak elkarri jauliko dizkiegu, bidenabar. (*Irtetzen dira*).

TUTA (*Esnatzen dalaik*): Nire aldia datorrenean dei egidazute ta erantzun egingo dut. Itz auen ondoren dut aldia: “Piramu guziz eder ori!”. Ots, Peru Txirlora! Txirul, auspo-adabatzailea!, Mutur, perzkill! Gosekil! Jainkoak lagun dagidala! Itzalgaizka joan dira ni lotan utzita! Ikuskaria arrigarriena izan dut. Amets bat egin dut... Gizonaren gogamenak ezin esan lezake amets au zer dan. Ura azaltzea nai banu asto bat nintzake. Uste nuan nintzala... uste nuan neukala... baiña zozo betea litzake eduki uste nuana esateko asmoa luken gizona. Giza begik ez du entzun, giza belarrrik ez du ikusi, giza eskuk ez du txastatu, giza mingaiñak ezin gogoratu ez biotzek esan nire ametsa zer zan. Eskatu diot Peru Txirlorari amets onetzaz balada bat idazteko. “Tutaren ametsa” duke izena, izan ere bada tuta ta zoroa, ta dukearen aurrean abestuko dut antzerkia amaitzean. Tisbe il ondoren kantatuko dut, bearbada, ederrago eman dezan.

32. Akats tipografikoa zegoen jatorrizkoan, “de” jartzen baitzuen.

BIGARREN AGERRALDIA

Atenaien. TXIRLORAREN etxeko gela bat.

TXIRLORA, TXIRUL, MUTUR, eta GOSEKIL sartzen dira.

TXIRLORA: Galde egin al duzute Tutarenean? Itzuli al da?

GOSEKIL: Ez dute aren berririk. Sorgindurik dago, nun-bait.

TXIRUL: Baldin ez badator, antzerkiarenak egin du. Ezin egin diteke, ezta ala?

TXIRLORA: Ezin. Ez dugu Atenai osoan Piramu ark bezela antzetzu lezaken gizonik.

TXIRUL: Ez: Atenaiko langilleen artean buru jantziena da, izan ere.

TXIRLORA: Bai ta iduri onenekoa ere; ta bere mintzuras eremua da.

TXIRUL: “Eredua” esan bear duzu; eremua, Jainkoak lagun dagigula! gauza larria da.

LAZTABIN sartzen da.

LAZTABIN: Jaunak, dukea jauretaketik dator eta badaude bizpairu jaun-andre nagusi arekin batera ezkondu diranak ere. Gure jostaketa antzetzu izan bagenu illargia labe gaiñean genuke.

TXIRUL: Oi, Tuta galanta ori! Sei penike egunean bizi bitartean galdu dituzu. Eziña zan sei penike egunero ark ez eukitzea. Urka nazatela baldin dukeak eman ez balizkio sei penike egun-sari Piramu idurikatzeagatik.

TUTA sartzen da.

TUTA: Nun ditut mutil oriek? Nun ditut nire biotzeko oriek?

TXIRLORA: Tuta! Au egun ederra! Au zorioneko ordua!

TUTA: Jaunak, arritzekoak ditut zuei esateko. Baiñan ez egizkidazute galde, zer dan esaten badizuet egizko ateenaitarra ez naiz ta. Esango dizuet dan-dana gertatu dan bezela, zeatz-meatz.

TXIRLORA: Esaiguzu, Tuta maitea.

TUTA: Ez dizuet itz bat ere esango. Jakingo duzute bakarrik dukea bazkaldu berria dala. Ar itzazute zuen jantziak; lotu ongi bizarrak; jarri galartzu berriak xapiñetan, eta bildu zaitezte jauregian bereala. Bakoitzak ikus dezala berriz bere papera; labur esateko, ba, gure izkirimiria aurkeztuko da. Dana dala, Tisbe jostezuri garbia euki dezala ta leoiaren egiten dunak ez ditzala azkazalak moztu iizearen erpeak antzo ager ditezten. Eta antzezlari maite-maiteak, ez jan tipulik ezta berakatzik ere; arnas goxoa atera bear baitugu, ta orrela guziek esango dute, etsita nago, anterki bikaiña dala. Itz geiagorik ez. Ots, goazen. (*Irtetzen dira.*)

Bosgarren atala

LENENGO AGERRALDIA

Atenai.- TESEUren jauregia.

*TESEU, IPOLITE, PILLOSTATER, jaunak eta laguntza
sartzen dira.*

IPOLITE: Bakana da gero, Teseu nirea, maitari oriek diotena.

TESEU: Bakanagoa egizko baiño. Ezin ditzaket iñoiz ere ziñetsi ipuin zar oriek ez amets-uskeri oriek. Maitariiek eta zoroek burua ain beroa, irudimena ain bizia ditute ta adimen otzak ulertu dezakena baiño aruntzago ikusten dute. Zoroa, maitaria ta olerkaria irudimen utsa dira. Batak zoroak, inpernuak eduki litzake baiño txerren geiago ikusten ditu; maitariak, ez zentzudunago, Eleneren ederra ijitu-andre baten bekokian dakus; olerkariaren begiak, berriz, bere ameskeri ederrean pirrillaka badoa zerutik lurrera ta lurretik zerura; ta irudimenak izaki ez ezagunen antzak sortzen ditularik, olerkariaren idazlumak antz-aldatzen ditu ta aizezko ezerez oriei egoitza ta izen bat ematen dizkie. Irudimenaren indarrak orrelako antzea du ta baldin atsegiñen bat ar badeza, berealaxe sortzen du atsegin ori dakarren sorkaria; ala gabez beldurren bat asmatu ezkeru, bai errezkari artzen dula sasia artz batetzat!

IPOLITE: Baiña gau orretzaz kontatu dizkiguten guziak eta aien gogoen aldatze osoak aitor ematen dute badagola artan amets-irudiak baiño zertxobait geiago ta aien esana sendotzen dute. Dana dala, ordea, bakana ta arri-garria da.

LISANDER, DEMETIR, ERMI ta ELENE sartzen dira.

TESEU: Emen datoz maitariak poz eta atsegiñez beterik. Atsegiñak, adiskide onak! Atsegiñak eta maitasun egun alaiak lagun bekizkie zuen biotzei!

LISANDER: Guri baiño geiago, jauna, zuri zure urratsetan, zure maiean eta zure oean morroi izan dakizkizula!

TESEU: Ikus dezagun orain: nolako mozorro-jaia, nolako dantzak izango ditugu apalondotik oera-orduko arte-raiñoko iru ordubeteko betikotasun ori emateko? Nun dugu gure jaien oiturazko zuzendaria? Zelako jolasak gertu dira? Ez dago antzerkirik, oiñazeko ordu auen gogaitza arintzeko? Dei egiozute Pillostaterri.

PILLOSTATER: Emen nauzu, Teseu altsu ori.

TESEU: Esaidazu: zein kirol duzu gau ontarako? Zein zomorro-jai? Nola iruzur egin aldi alperrari jolas baten bidez baizik?

PILLOSTATER: Ementxe daukat gerturiko jaien izen lerroa. Zuk, jaun orrek, esango duzu zein joango dan aurretik. *(Papera bat ematen dio).*

TESEU: “Zaldi-gizonen burruka, atenaitar iren batek abes-tua, arparen laguntzaz”. Ez dugu nai onelakorik. Kontatu diot dagoneko nire maiteari Erakel nire aidearen opaz. “Bakante mozkorren matxinada, beren aserre bizian Traziko abeslaria urratzen dutelarik”. Gai zarra dugu au. Zebetik garaile etorri nintzanean antzeztu

zuten. “Irutan iru Musak bear-gorrian il berria dan Jakintzaren eriotza deitoreka”. Eztenkada zorrotz min-korren bat da ori ezkontza jai bati ongi ez dagokiona. “Piramu gaztea ta Tisbe aren maitearen arteko komeri labur, gogaikarria. Izkirimiri oso ikaragarria”. Atsegin eta ikaragarri! Labur eta gogaikarri! Ots, izotz bero ta elur beltz. Nola gozatu gozagaitz auek?

PILLOSTATER: Antzerkiak, jauna, ozta-ozta dauzka amar itz; ez dut ezautzen antzerki laburragorik. Baiña, alaere, jauna, amar itzekin luzeegia da ta orrek egiten du ura nekagarri, ez baitago guzi artan itz aukerakorik ez antzezlari egokirik. Ta ikaragarria da, bai, nire jauna, artan Piramuk bere burua iltzen dulako. Au zala ta saia-tzen ikusi nuanean begiak buztitu zitzaizkidala aitortu bear dut, baiña iñoiz ez ditute parreztandaek negar malko alaiagorik eragin.

TESEU: Nortzu ditugu ori antzezten ari diranak?

PILLOSTATER: Emen Atenaien lenean ari diran esku latzeko gizonak, egundaino buruaz lan egin ez dutenak, orain, ordea, beren oroimen landu gabeak nekatu ditute orrelako antzerkian zure ezkontzaren opaz.

TESEU: Entzungo ditugu.

PILLOSTATER: Ez, nire jaun ona; ez da zuretzakoa. Antzerkia entzun dut eta ez da ezer, ezertxo ere ez; beren gogo ona, geiegizko alegiña ta zure opaz ari izateko artu duten neke gogorra atsegin ematen ez badizu.

TESEU: Antzerki ori entzun nai dut; ezer ere ez baitut ez-egokitzat jotzen bakuntasunak eta azkuak eskaintzen dutenean. Zoaz, sar-erazi itzazute, ta eseri zaitezte, andreak. (*PILLOSTATER irtetzen da*).

IPOLITE: Ez zait eder zorigaitza zapatua ikustea ez ta azkua beraren ekiñaldi pean iltzen ere.

TESEU: Ez duzu orrelakorik ikusiko, ene maite ederra.

IPOLITE: Orrelakoetan ezer ere egiteko gai ez dirala esaten du.

TESEU: Aundiagoa izango da gure ontasuna ezerez bat dala ta aiei esker emanda. Gure jolasa, aiek ez aditu aditzean etzango da. Azkua atsegin emateko gai ez danean zentzun onak asmoa gogoratzen du, ez merezia. Izan naitzen leku guzietan, jakintza aundienek atotsi naute ongi etorri ikasiekin. Ikusi ditut dardaraz eta zurbiltzen, esakuntzaen erdian kokatu, beren oiturazko mintzoak beldurrean ito, ta bueuenik, mintzul gertatu, ongi etorriarik ematen ez zidatarik. Baiña, siñetsidazu, maitea, isiltasun ori berori zan niretzat ongietorri ederrena ta aien zintzotasun xalo, lotsakorrean, banuan irakurtzen jakitun aogorri, ausartu baten mingain zoliak esan lezakena baiño geiago. Orregatik maitasunak eta xalotasun mintzulak³³, nik uste itz gutxiago ta obekiago aditzen diote elkar.

PILLOSTATER sartzen da berriz.

PILLOSTATER: Itzaurrea gerturik dago, jauna, on bazaizu.

TESEU: Esaiozu sartzeko. (*Turutots alaia*).

TXIRLOA sartzen da Itzaurrea esateko.

ITZAURREA: Irain egiten badizuegu, ondo bearrean da.

Ori uste bear duzute, ez gatozkizula irain egiten gogo

33. Jatorrizkoan ez da oso garbi irakurtzen zer jartzen duen hemen, baina “xalotasun mintzulak” behar duela iruditu zaigu, ingelesez “tongue tied simplicity” ageri baita.

onez baizik. Gure antzea agertzea orixe da gure egizko asipena ta azkena. Begira, ba, ez etortzea zuei nekaraz-tera alaitzera ez etortzea izango litzakela gure egizako asmoa. Guzia zure atsegiñerako ez gatzaizkizue etorri. Nekagarri izateko gertu dagoz antzezlariak. Aien erakuspenaz jakingo duzute jakin naiko zenutekena.

TESEU: Lagun ori ez da puntuetan gelditzen.

LISANDER: Laster egin du bere itzaurrean barna, moxal izu bat iduri; ez du geldi-unerik ezautzen. Irakaspen bikaiña, jauna: ez da aski mintzatzea, egoki mintzatzea baizik.

IPOLITE: Izan ere, bere itzaurrea jo du aur batek txilibitua bezela: soiñua bai, neurririk ez, ordea.

TESEU: Aren itzaldia kate naspildu baten antzekoa zan: dana ongi, baiña ezer ez eraz. Zer dator orain?

PIRAMU, TISBE, ORMA, ILLARGI ta LEOIA sartzan dira.

ITZAURREA: Jaun onak, izkirimiri onetzaz arritu egiten zerate, noski; baiña arritu, egiak dana agiri dezan arte. Gizon au Piramu da, jakin nai baduzute, ta andre eder au Tisbe da, gezurrik esan gabe. Kare-orrez jositako gizon ori Orma da, bi maitariak banantzen zitun orma doillo-rra. Ta Ormako irrikaren zear gaisoak txutxumutxu ari ziran. Orregatik ez da iñor txunditu bear. Gizon au, bere kriseillu, txakur eta lar balakin, Illargia ematen du; bear duzute jakin, ba, maitari auek elkartzen oi zirala illargi zuritan, Ninuren illobi ondoan, elkar maiterazteko an. Izenez Leoi deritzan iize izugarri orrek, gabez lenbizikoa etorria zan gure Tisbe kirmen uxatu edo izutu zun eta, iges egitean soingaiñekoa lurrera erortzen lagatu zun, leoi zitalak ao odoltsuaz oso gorritu zuna. Badator laster Piramu, mutil gazte, lerdena ta Tisberen soingaiñekoa gorritua du arkitzen. Ta ordun, bere altzairuaz, altzairu

errudun eta odol-egarriaz, jotzen du bipilki bere biotz irakitsu, odoltsua. Ta Tisbek, mazustabearen gerizpean zegona, aren sastakaia zorrotik atera ta bere burua iltzen du. Gaiñerakoa, Leoiak, Iliargiak eta Ormak eta maitari bi oriek esango dizuete zeatz-meatz, zuen aurrean eku-ratzen diran artean.

*ITZAURREA, PIRAMU, TISBE, LEOIA ta ILLARGIA
irtetzen dira.*

TESEU: Leoiak itz egiteak arritzen nau.

DEMETIR: Ez dago zertan arritu bearrik, jauna; leoi batek egin dezake ainbeste astok egiten dutena.

ORMA: Izkirimiri ontan bertan gertatu bearra da nik, Mutur izeneko onek, orma bat antzeztea. Eta, mesedez, nai nuke dezazuten uste, ormak zulo edo arrail bat daukala; zulo ortatik, sarritan, bi maitariak, Piramuk ta Tisbek oso isilki gabez etorri ta solas egiten diote elkarri. Buztin onek, kare-orreak ta arriek darakuste orma bat naizela ta egia da izan ere; ta zirrikitu onen zear, eskui ta esker aldean bi maitale beldurtsuak ari dira isillean.

TESEU: Nai al zenukete kareak eta ille-ordeak obeki mintzatu?

DEMETIR: Egundaiñoakoetan mintzatzen entzun dudan artesi burutsuena da jauna.

TESEU: Piramu urbiltzen da orain: isilik!

PIRAMU: Oi, gau kopetillun ori! Gau kolore beltzduna!
Oi, gau ori, beti egun ez danean atorrena!
Ene, gau ori, gau ori! ai ene, ai ene, ai!
Nere Tisbe bere agintzaz aztu ote dan beldur naiz...

Eta i, orma ori, orma maite, orma maite gozoa!
 aren aitaren ta nire lur artean agona;
 Ene, orma ori! Ene orma ori, orma atsegin, ederra!
 ire arrailla erakuskidak artatik so daikedan.

(ORMAK *beatzak zabaltzen ditu*).

Anitz esker orma adeitsu, Tzeuk lagun dagikala.
 Baiña zer ikusten diat? Nire Tisbe ez zekusat.
 Orma txarra, ire zear ez zekusat poz bat ere!
 Ire arri iruzurgilleak madarikatu bitez!

TESEU: Ormak, mintzodun dan ezkeru, biraoa itzuli bearko
 lioke.

PIRAMU: Ez baldin ere, jauna; ez luke egin bearko; “Mada-
 rikatu bitez Tisberen erantzunaren oarra da. Orain-
 txe etorriko da no ta nik ormaren zear kuku egin bear
 diot. Ikusiko duzute: esan dizuedan bezelaxe agituko da
 guzia. Or dator.

TISBE sartzen da berriz.

TISBE: Piramu ederragandik berezitzen naukala
 ta ni sarritan deitorez aditu naukan, orma!
 nire gerezizko ezpainañak pa egin zietek maiz
 ire arriai, karez ta illez loturiko ire arriai.

PIRAMU: Mintzo bat zekusat³⁴. Banoa zirritura kukuxkan
 ene Tisberen aurpegi polita entzun dezadan.
 Tisbe!

TISBE: Maite ori, ene maitea i aizela diat uste.

PIRAMU: Uste ezan ik nai dunena. Ni naun, bai, ire maite.

TISBE: Ta ni Elene lez, aduak il eraz nazan arte.

34. Eskuizkribuan zaila da zer jartzen duen ongi bereiztea: “zedakust” edo “zeku-
 sat” izan litezke.

PIRAMU: Ain kirmena ez zaiok izan, ez, Sapalu Prokruri.

TISBE: Ni, ba, Prokru Sapaluri bezela kirmen iri.

PIRAMU: Ene, musu emaidak orma doillor onen zulotik.

TISBE: Orma zuloari musu bai, baiña ez ire ezpafiñeri.

PIRAMU: Nai duk Ninuren obian laster arkitzea elkar?

TISBE: Bizi naiz illik aruntza banatxian eta azkar.

PIRAMU ta TISBE sartzen dira.

ORMA: Onela nik, ORMA onek bete dut nire aldia,
ta ori buruturik Orma baztertu egiten da. (*Irtzetzen da.*)

TESEU: Orain eroria dugu bi auzoen arteko orma.

DEMETIR: Ez zegoan beste biderik, jauna, berri eman gabe
entzuten duten ormak diranean.

IPOLITE: Egundaiño entzun dudan ergelkirik aundiena da
au.

TESEU: Mota ontako antzerki onenak ametsak besterik ez
dira ta txarrenak ez dira alakoak baldin usteak ontzen
baditu.

IPOLITE: Baiña zure usteari zor zaio ta ez aienai.

TESEU: Baldin uste badugu aietaz aiek beren buruez uste
dutena gizon bikaintzat artuko dira. Emen datoz bi
abere zindo, gizon bat eta leoi bat.

LEOIA eta ILLARGIA sartzen dira.

LEOIA: Lur gaiñean narraz doan sagutxo izugarriak
zuen biotz beldurtiak izutzen ditun, andrak,
ikara, noski, ta dardar egin zenezakete
leoi uzu batek orro egitean aserre.
Jakin ezazute, beraz, ni Laztabin arotza
naizela ta ez leoi anker ezta leoi emea.

Leku ontara banentor, ba, egizko leoi antzo
errukirik ez legoke nire biziterako.

TESEU: Abere oso apala ta barne onekoa dugu au.

DEMETIR: Ikusi dudan abereen aundiena da, jauna.

LISANDER: Egizko azeria da leoi au bere kemenez.

TESEU: Baiki ta ata bat zentsutasunez.

DEMETIR: Ez, jauna, bere kemenaz ez du bere zentzutasuna
gainditzen, atak azeria bezela; ongi dago, ordea, utzi
dezagun bere zentzutasunarekin eta entzun dezaiegun
Illargiari³⁵.

ILLARGIA: Kriseiliu onek illargi-adarrak ditu antzeztutzen.

DEMETIR: Buru gaiñean eraman bearko lituke adarrak.

TESEU: Ez dago ilgoran eta ori dala ta adarrak ikusi ezin
ditekez larrainaren³⁶ barnean.

ILLARGIA: Kriseillu onek antzeztutzen ditu illargi-adarrak
eta neronek illargiko gizona irudikatzen dut.

TESEU: Auxe da uts guzien aundiena. Gizon au kriseilluan
sartu bearko litzake. Nola diteke, bestela, illargiko
gizona?

DEMETIR: Arkaia dala ta bertan sartzeko beldur da; illaun-
durik baitago dagoneko.

IPOLITE: Gogait eginda nago illargi onekin; nai nuke alda
dedilla.

35. Pertsonaien arteko akats bat dago hemen. DEMETIRen esaldi hau bitan banatuta ageri da jatorrizkoan: lehenengo zatia DEMETIR berari dagokio; bigarrena berriz, puntu eta komatik aurrerakoa, (ongi dago, ordea, ...) TESEOri.

36. Eskuizkribuan "mak*" irakurtezina dugu, hots, ilargi betearen irudi borobila edo "larraina".

TESEU: Ilberan bide dago bere adikuntzaren argi urriz; baiña adeitsu ta atsegiñak izan gaitezen eta utzi dezaio-gun bere aldia bukatzen.

LISANDER: Aurrera, Illargi.

ILLARGIA: Esan bear dudan guzia auxe da: kriseillua illargia da; ni illargiko gizona; elorri bal au nire elorri bala ta txakur au nire txakurra.

DEMETIR: Guzi ori, ba, kriseilluan sartu bearko litzake, guzi ori illargian dagolako. Baiña, isilik. Emen dator Tisbe.

TISBE sartzen da berriz.

TISBE: Auxe da Ninu zarraren obia. Nun da nire maitea.

LEOIA (*Orroaka*): O-o-o! (TISBEk iges egiten du).

DEMETIR: Ongi orroatua, Leoia!

TESEU: Ongi iges egiña, Tisbe!

IPOLITE: Ongi argi egiña, Illargi! Izan ere, Illargiak ederki dirdirutzen du.

LEOIAk Tisberen soingaiñekoa urratu ta badoa.

TESEU: Ongi urratua, Leoia!

DEMETIR: Ta gero badator Piramu.

PIRAMU sartzen da.

PIRAMU: Anitz esker, Illargi ona, ire eguzki-izpiengati; esker dagikat istatzen dukalako orren argi: ire urre-antzeko ditzira dirdaitsu, ederren bidez uste diat gozatzea Tisbe zintzoa ikustez.

Baiña, geldi, au dordoa!
baiña zaldun gaztea,
zer min larri diagu emen?

Begiok, dakusazute?
Baiñan au nola liteke?
Ata ederra! Ene maite!
Ire estalki polita
odolez orbandua!
Zatozte, inpernu Piztiak!
Zatozte, zuek, Aduak!
Zukun ta ariak ebaki!
Ezazute azpira, zapal ta kali!

TESEU: Griñaldi orrek eta adiskide maite baten eriotzak
goibelduxe lezateke gizon bat.

IPOLITE: Madarikatu nire biotza, baiña erruki dut gizon
ori.

PIRAMU: Ene, Izadia, zergatik sortu al ukan leoia?
Leoi zital, uzu batek maitea dik orbandu,
dukana –oi! ez– ukana, bizi, maite ta poztu
eta aurpegi on ipiñi zian andre ederrena.

Ots, negarrak, ni ondatu,
ea, ezpata, zauritu,
Piramuren titia!

Bai, eskerreko aldean,
biotz au, aren pean
ari baituk taupakan.
Eta iltzen nauk onela,
onela, onela, onela.

(Bere burua sakaitzen du)

Illa nauk dagoneko,
igesia onezkero,
goian diat arima.

Mingain, gal ire argia!
Illargi, oa iges egiten!

Orain iltzen nauk, iltzen, iltzen, iltzen!

DEMETIR: Iltzen bat dauka buruan. Nork aterako?

LISANDER: Iñork ez, il da ta; orain ez du ezer.

TESEU: Sendagille baten laguntzaz baliteke osatu ta berriro zertu.

IPOLITE: Zer dala ta Illargia badoa, Tisbe itzuli ta bere maitaria arkitu baiño len?

TESEU: Arkitu egingo du izarren argitan. Emen dator ta bere griñako itzek komeria bukatuko dute.

TISBE sartzen da berriz.

IPOLITE: Uste dut ez ditula itz luzeak erabilliko orrelako Piramurentzat³⁷. Laster amaituko dalakoan nago.

DEMETIR: Agotz bat pisuan aski litzake Piramu ala Tisbe zein dan ohea erabakitzeke. To, gizon danez, Jainkoak lagun dagigula! No, emakume dugunez, Jainkoak obe!

LLSANDER: Degoneko ikusi du bere begi goxo-goxoez.

DEMETIR: Ta onela deitoratzen ari da, ots:

TISBE: Lo ote, nire maitea?
 zer, illik ago, ene uso?
 oi, Piramu, jeiki adi,
 mintza, mintza! Mutu ago?
 Illa, illa! Obi batek
 estal bear dizkitek
 begi polit oriek!
 Ire zitori-ezpaiñak,
 gerezi-sudur ori,
 erratz-orizko masaillok,
 joanak dituk, bai, joanak!

37. Hitza moztuta ageri da lerro bukaeran, baina *-tzat* atzizkia jartzen duela ematen du.

Deitoratu, maiteak!
Begiak zizkian porru
bezelako berdeak!...
Oi, zuek, Iru Aizpak
nigana zatozte esku
esne antzeko zurikin,
odol gorriz margoztu
zuen artaziekin
ebaki duzute ta
aren ziriko-aria.
Mingaiña, mintzorik ez
zatoz, ezpata zintzo
ta nire bularra jo!
(Bere burua sakaitzen du).
Adiskideak, agur,
Tisberenak egin du;
agur, agur, agur.

TESEU: Illargia ta Leoia gelditzen dira, illak lurperatzeko.

DEMETIR: Bai ta Orma ere.

TUTA: Ez, itz ematen dizuet; aien gurasoena banantzen zuan orma lurreratua da. Nai al duzute itz-ostea ikusi ala gure taldeko bi legunen arteko bergomasko-dantza bat entzun?

TESEU: Itz-osterik ez, arren: zure antzerkiak ez baitu zuri-bide bearrik. Itz-osterik bat ere ez, antzezlariak oro illik diranean ez baitago nori ogen eman. Alajaiña! antzerki-gilleak Piramu antzertu ta Tisberen galtza-korda batez bere burua urkatu balu, trajedi guzizko bat izango genuke; ta ala ta guzti ere, bada egiz ta ederki jokatua. Baiñan, ots, betoz bergomasko dantza oriek; utzi alde batera itz-ostea.

DANTZA: Gau-erdiko burni-miñak amabiak jo ditu.
Oera, ba, maitariak; mamu-ordu, badugu.
Goiz belurarte lo egingo ote dugun beldur naiz
gau ontan luzaroegei gelditu baigera ernai.
Antzerki-jai zakar onek gauaren oin nagia
lasterkarazi du, noski. Lotara, adiskideak!
Ezkontzak bear ditugu ospakatu bi astez,
gau-jaiakin ta solasez eta atsegin berriez.

BIGARREN AGERRALDIA

PUCK: Orain leoi gosa orroaka ari da
ta otsoak yulu egiten dio illargiari;
lo zurrunkaz dagoiño lugin nekatua,
bere lan gogorraren pean akiturik.
Orain illeti-ondoek zart egiten dute,
gau-ontzak karraisika, larritasunean
dagoan gaisoari il-jantzi zuriaren
oroitzapena ekarten dion bitartean.
Orain, gau ordu ontan, illobiek oro
aoak zabalduen ditute orroaka,
dutela irten-erazten zeiniek bere iratxo
illerriko indan barna zirrist dagiana.
Ta Hekate irukoitzaren gurdian ondoan
gabiltzan gu mamuok, eguzki begitik
beti igesean eta, amets baten gisan
illunaren lagunak, orain gera pozik.
Sagu batek ere ez du nastu eraziko
etxe bedeinkatu au. Aurretik bidaldu
naute, itsuskia eskuan, nator atosteko
auts zikindu guzia dezadan itsastu.

OBERON eta TITANI sartzen dira beren jarraigoarekin.

OBERON: Dirdira beza etxeak ezbaieko argiaz,
erdi itxungirik dagon suaren ondoan.
Edozein mamu-iratxo jauzkatu dedilla
sasi gaiñean, txori zailu baten gisan.
Eta gero guziak, lelo au niri jarrai,
kantuan eta irradan ari bitez alai.

TITANI: Lenik zuen kantari egiozute ekin
itz bakoitzari ots-ezti bat lagun bekio.

Eskuz esku, xoramen goxoenarekin,
 abestuko dugu ta leku au donetsiko.
 (*Abestia ta dantza*).

OBERON: Orain, egundu arte, lamiña bakoitza
 etxe ontan ibil bedi bere naierara.
 Gure ezkontoe obero gu gera joango
 eta bein ta betiko dugu donetuko.
 Eta antxe sorturiko jatorri guzia
 izango da betiko zorionekoa.
 Onela iru bikoek maitetasun-lege
 zintzo-zintzoki elkarri izango diote.
 Ta Izadiaren eskuz egindako orbanak
 beren askazian ez dira agertzekoak.
 Orainenik bat ere ez, eta ez erbi-
 ezpainenik ez uspelik ez xaki
 arrigarrikorik. jaiotza ergarri
 egiten dutenetakoak iñoiz beren
 aurregan gertatuko ez dira.
 Baso-intz ontaz igortzi ta bioa
 iratxo bakoitza bere bidez
 jauregi ontako gela guziak
 bake gozoaz donetsiz. Zaitetze
 urrundu; ez ekuratu;
 eguntzean elkar egin bear dugu.

OBERON, TITANI ta jarraigoa irtetzen dira.

PUCK: Baldin, gu itzalok, miñik eman badizuegu,
 au uste ezazute soillik ta dana da kitu:
 ementxe zeratela izan lo zorroan,
 ikuspenok agertu diraden artean.
 Ta irudigai apal, aul onek ez daukake
 amets-aldi batenak baiño beste ondore.
 Gure entzule maiteok, ez akartu, arren,
 zuek parkatu ezker joango gera obetzen.

Eta, Puck itzeko bat nauzuten bezela,
orain suge-txistutik itzurtzeko adua
baldin izan badugu, alegiña egingo
dugu gure buruak, len-bai-len, ontzeko.
Ezperen, gezurtia Pucki esaiozute.
Guziok gau eder bat izan ezazute.
Ekarri, ba, esku oiek, aiskide bagera:
ta Errobinek emango dizue ordainketa.

AMAIA

A Midsummer-Night's Dream

Iturria: *The comedies of Shakespeare: the text of the Oxford ed. / prepared by W. J. Craig; with a general introd. by Algernon Charles Swinburne; introductory studies of the several plays by Edward Dowden; and a full glossary.* London; H. Milford, Oxford University Press, [1911]

<http://babel.hathitrust.org/cgi/pt?num=519&u=1&seq=45&view=plain&text&size=100&id=mdp.39015046331107>

DRAMATIS PERSONAE

THESEUS, Duke of Athens.

EGEUS, Father to Hermia.

LYSANDER, }
DEMETRIUS, } in love with Hermia.

PHILOSTRATE, Master of the Revels to Theseus.

QUINCE, a Carpenter.

SNUG, a Joiner.

BOTTOM, a Weaver.

FLUTE, a Bellows-mender.

SNOUT, a Tinker.

STARVELING, a Tailor.

HIPPOLYTA, Queen of the Amazons, betrothed to Theseus.

HERMIA, Daughter to Egeus, in love with Lysander.

HELENA, in love with Demetrius.

OBERON, King of the Fairies.

TITANIA, Queen of the Fairies.

PUCK, or Robin Goodfellow.

PEASE-BLOSSOM, }
COBWEB, } Fairies.
MOTH, }
MUSTARD-SEED, }

Other Fairies attending their King and Queen.

Attendants on Theseus and Hippolyta.

SCENE.—Athens, and a Wood near it.

A Midsummer-Night's Dream

ACT I.

SCENE I.—Athens. The Palace of THESEUS.

Enter THESEUS, HIPPOLYTA, PHILOSTRATE, and Attendants.

THESEUS. Now, fair Hippolyta, our nuptial hour
Draws on apace: four happy days bring in
Another moon; but O! methinks how slow
This old moon wanes; she lingers my desires,
Like to a step-dame, or a dowager
Long withering out a young man's revenue.

HIPPOLYTA. Four days will quickly steep themselves in night;
Four nights will quickly dream away the time;
And then the moon, like to a silver bow
New-bent in heaven, shall behold the night
Of our solemnities.

THESEUS. Go, Philostrate,
Stir up the Athenian youth to merriments;
Awake the pert and nimble spirit of mirth;
Turn melancholy forth to funerals;
The pale companion is not for our pomp.
Hippolyta, I woo'd thee with my sword,
And won thy love doing thee injuries;

[EXIT PHILOSTRATE.]

But I will wed thee in another key,
With pomp, with triumph, and with revelling.

Enter EGEUS, HERMIA, LYSANDER, and DEMETRIUS.

EGEUS. Happy be Theseus, our renowned duke!

THESEUS. Thanks, good Egeus: what's the news with thee?

EGEUS. Full of vexation come I, with complaint
Against my child, my daughter Hermia.
Stand forth, Demetrius. My noble lord,
This man hath my consent to marry her.
Stand forth, Lysander: and, my gracious duke,
This man hath bewitch'd the bosom of my child:
Thou, thou, Lysander, thou hast given her rimes,
And interchang'd love-tokens with my child;
Thou hast by moonlight at her window sung,
With feigning voice, verses of feigning love;
And stol'n the impression of her fantasy
With bracelets of thy hair, rings, gawds, conceits,
Knacks, trifles, nosegays, sweetmeats, messengers
Of strong prevailment in unharden'd youth;
With cunning hast thou filch'd my daughter's heart;
Turn'd her obedience, which is due to me,
To stubborn harshness. And, my gracious duke,
Be it so she will not here before your Grace
Consent to marry with Demetrius,
I beg the ancient privilege of Athens,
As she is mine, I may dispose of her;
Which shall be either to this gentleman,
Or to her death, according to our law
Immediately provided in that case.

THESEUS. What say you, Hermia? be advis'd, fair maid.
To you, your father should be as a god;
One that compos'd your beauties, yea, and one
To whom you are but as a form in wax
By him imprinted, and within his power

To leave the figure or disfigure it.
Demetrius is a worthy gentleman.

HERMIA. So is Lysander.

THESEUS. In himself he is;
But, in this kind, wanting your father's voice,
The other must be held the worthier.

HERMIA. I would my father look'd but with my eyes.

THESEUS. Rather your eyes must with his judgment look.

HERMIA. I do entreat your Grace to pardon me.
I know not by what power I am made bold,
Nor how it may concern my modesty
In such a presence here to plead my thoughts;
But I beseech your Grace, that I may know
The worst that may befall me in this case,
If I refuse to wed Demetrius.

THESEUS. Either to die the death, or to abjure
For ever the society of men.
Therefore, fair Hermia, question your desires;
Know of your youth, examine well your blood,
Wher, if you yield not to your father's choice,
You can endure the livery of a nun,
For aye to be in shady cloister mew'd,
To live a barren sister all your life,
Chanting faint hymns to the cold fruitless moon.
Thrice blessed they that master so their blood,
To undergo such maiden pilgrimage;
But earthlier happy is the rose distill'd,
Than that which withering on the virgin thorn
Grows, lives, and dies, in single blessedness.

HERMIA. So will I grow, so live, so die, my lord,
Ere I will yield my virgin patent up
Unto his lordship, whose unwished yoke
My soul consents not to give sovereignty.

- THESEUS. Take time to pause; and, by the next new moon,—
The sealing-day betwixt my love and me
For everlasting bond of fellowship,—
Upon that day either prepare to die
For disobedience to your father's will,
Or else to wed Demetrius, as he would;
Or on Diana's altar to protest
For aye austerity and single life.
- DEMETRIUS. Relent, sweet Hermia; and, Lysander, yield
Thy crazed title to my certain right.
- LYSANDER. You have her father's love, Demetrius;
Let me have Hermia's: do you marry him.
- EGEUS. Scornful Lysander! true, he hath my love,
And what is mine my love shall render him;
And she is mine, and all my right of her
I do estate unto Demetrius.
- LYSANDER. I am, my lord, as well deriv'd as he,
As well possess'd; my love is more than his;
My fortunes every way as fairly rank'd
If not with vantage, as Demetrius';
And, which is more than all these boasts can be,
I am belov'd of beauteous Hermia.
Why should not I then prosecute my right?
Demetrius, I'll avouch it to his head,
Made love to Nedar's daughter, Helena,
And won her soul; and she, sweet lady, dotes,
Devoutly dotes, dotes in idolatry,
Upon this spotted and inconstant man.
- THESEUS. I must confess that I have heard so much,
And with Demetrius thought to have spoke thereof;
But, being over-full of self-affairs,
My mind did lose it. But, Demetrius, come;
And come, Egeus; you shall go with me,
I have some private schooling for you both.

For you, fair Hermia, look you arm yourself
To fit your fancies to your father's will,
Or else the law of Athens yields you up,
Which by no means we may extenuate,
To death, or to a vow of single life.
Come, my Hippolyta: what cheer, my love?
Demetrius and Egeus, go along:
I must employ you in some business
Against our nuptial, and confer with you
Of something nearly that concerns yourselves.

EGEUS. With duty and desire we follow you.

[EXEUNT THESEUS, HIPPOLYTA, EGEUS, DEMETRIUS, and Train.]

LYSANDER. How now, my love! Why is your cheek so pale?
How chance the roses there do fade so fast?

HERMIA. Belike for want of rain, which I could well
Beteem them from the tempest of mine eyes.

LYSANDER. Ay me! for aught that ever I could read,
Could ever hear by tale or history,
The course of true love never did run smooth;
But, either it was different in blood,—

HERMIA. O cross! too high to be enthrall'd to low.

LYSANDER. Or else misgraffed in respect of years,—

HERMIA. O spite! too old to be engag'd to young.

LYSANDER. Or else it stood upon the choice of friends,—

HERMIA. O hell! to choose love by another's eye.

LYSANDER. Or, if there were a sympathy in choice,
War, death, or sickness did lay siege to it,
Making it momentary as a sound,
Swift as a shadow, short as any dream,
Brief as the lightning in the collid night,
That, in a spleen, unfolds both heaven and earth,
And ere a man hath power to say, 'Behold!'

The jaws of darkness do devour it up:
So quick bright things come to confusion.

HERMIA. If then true lovers have been ever cross'd,
It stands as an edict in destiny:
Then let us teach our trial patience,
Because it is a customary cross,
As due to love as thoughts and dreams and sighs,
Wishes and tears, poor fancy's followers.

LYSANDER. A good persuasion: therefore, hear me, Hermia.
I have a widow aunt, a dowager
Of great revenue, and she hath no child:
From Athens is her house remote seven leagues;
And she respects me as her only son.
There, gentle Hermia, may I marry thee,
And to that place the sharp Athenian law
Cannot pursue us. If thou lov'st me then,
Steal forth thy father's house to-morrow night,
And in the wood, a league without the town,
Where I did meet thee once with Helena,
To do observance to a morn of May,
There will I stay for thee.

HERMIA. My good Lysander!
I swear to thee by Cupid's strongest bow,
By his best arrow with the golden head,
By the simplicity of Venus' doves,
By that which knitteth souls and prospers loves,
And by that fire which burn'd the Carthage queen,
When the false Trojan under sail was seen,
By all the vows that ever men have broke,—
In number more than ever women spoke,—
In that same place thou hast appointed me,
To-morrow truly will I meet with thee.

LYSANDER. Keep promise, love. Look, here comes Helena.

Enter HELENA.

HERMIA. God speed fair Helena! Whither away?

HELENA. Call you me fair? that fair again unsay.

Demetrius loves your fair: O happy fair!
Your eyes are lode-stars! and your tongue's sweet air
More tuneable than lark to shepherd's ear,
When wheat is green, when hawthorn buds appear.
Sickness is catching: O! were favour so,
Yours would I catch, fair Hermia, ere I go;
My ear should catch your voice, my eye your eye,
My tongue should catch your tongue's sweet melody.
Were the world mine, Demetrius being bated,
The rest I'd give to be to you translated.
O! teach me how you look, and with what art
You sway the motion of Demetrius' heart.

HERMIA. I frown upon him, yet he loves me still.

HELENA. O! that your frowns would teach my smiles such skill.

HERMIA. I give him curses, yet he gives me love.

